


Zu hemen zaude. goiena



6.
ALDIA

DANBAKA))))

MUSIKA LEHIAKETA

GAUR HASIKO DA DANBAKA BERGARAKO SEMINARIXOAN

Lehiaketan parte hartuko duten hamasei taldeetatik lauk joko dute lehen kontzertuan: Korda Rota, Ktarsia, Sotoalde eta Malko. Beste hiru kontzertu izango dira areto berean finalaren aurretik, Gabonak bitartean / 34

ANDER MONEDERO



Malen Osa: "Ama egunero dut gogoan, eta azken lasterketan detailea izan gura nuen harekin" / 32

Ikerlanen 50 urteko ibilbidea jasotzen duen 'Bizitek' erakusketa Kulturaten / 2


Hondakin organikoa errefuseko frakzioetik atera eta herrian kudeatu nahi du Aramaioko Udalak / 14

SINADURAK

 JON ETXEBERRIA / 6	 EIDER NAJERA / 22
 ITSASO ERRETOLATZA / 9	 ASIER UGARTE IMAZ / 29
 OIER ZUMARRAGA ARANBURU / 16	 AINTZANE OIARBIDE / 40

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



Hezkuntza digitala: etenik gabeko eguneraketa

Roge Blasco kazetariari elkarrizketa



Audi Q4

Disfrutatu teknologiaz!

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70

Udalaitz

BULEGOAK ALOKAGAI GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOAN

Start-up-ak | Enpresak | Ekintzaileak | Autonomoak
60 eta 1.000 m2 artean

Informazioa:
ptgaraia@ptgaraia.eus
943-03 88 46



GARAIA

Ikerlanen ibilbidea, erakusketa batean jasota

'Bizitek' erakusketa inauguratu zuen atzo Ikerlanek Kulturaten. Enpresaren 50 urteko ibilbidea jasotzen da bertan eta azaroaren 13ra arte egongo da ikusgai. Hainbat erakundetako ordezkariak izan zen inaugurazioan; tartean, Pradales lehendakaria

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA *Bizitek, 50 urte teknologia bizitzaren* izeneko erakusketa inauguratu zuen Ikerlanek Kulturaten. Imanol Pradales lehendakariak izan zuen inaugurazioa egiteko ardura. Debagoieneko zentro teknologikoaren ibilbide zabala batzen du erakusketak, eta haren 50. urteurrenaren ospakizunen programa ixteko balio izan zuen ekitaldiak. Erakusketa 17:30etik 20:30era egongo da irekita, astelehenetik larunbatera, eta azaroaren 13ra arte egongo da ikusgai.

Historia bizia

Erakusketak bost arlo ezberdin izango ditu: Historia, Pertsonak, Inpaktua, Garapen Teknologikoa eta Etorkezuna. Arlo guztiak informazio-panelen, argazkien, audioen, bideoen eta garapen teknologiko esanguratsua batzuen bidez osatuak daude, Ikerlanen iragana, oraina eta etorkizuna lehen pertsonan bizi ahal izateko. Modu horretan, historia zeharkatzen duen zentro teknologiko baten bizipena jaso ahaliko dute bisitariak, 1974an inguruko kooperatiben beharrei zerbitzua emateko martxan jarri zenetik herrialdeko hainbat enpresaren zerbitzura dagoen zentro teknologiko gisa finkatu zen arte, bereziki, zibersegurtasuna, adimen artifiziala, energia, mekatronika eta halako teknologia aurreratuetan.

Erakusketan espazio zentral bat eman nahi izan diote proiektuaren benetako protagonistatzat hartzen dituztenei; hau da, hamarkadetan zehar Ikerlanen parte izan diren pertsonak. Horretarako, hainbat testigantza bildu dituzte. Horrez gain, bisitariak historia zeharkatzea esanguratsuen bidez zeharkatzea proposatzen zaie, hala nola Espainiako lehen robot industriaren sorrera, NASArekin espaziora egindako bidaiak eta ziber-



Inaugurazio ekitaldira bertaratu ziren erakundeetako ordezkariak. GOIATZ ARANA

IMANOL PRADALES LEHENDAKARIAK INAUGURATU DU KULTURATEKO ERAKUSKETA

segurtasun laborategiak berriki lortutako ENAC akreditazioa, nazioartean aitzindaria. Bitxikerietarako tartea ere badira erakusketan; tartean, ibilbide profesionala Ikerlanen hasi zuen aurkezle ezagun baten berri izatea eta ikuslea 2074ra eramango duen denboraren kapsulan bidaiak egitea.

Mundua hobetzea ipar

Jon Etxeberriak, Ikerlaneko zuzendari nagusiak, eskerrak eman zizkien zentro teknologiko askorentzat eredu izan den proiektu sozioenpresarial bakar hori sortzeko etengabeko laguntza ematen jardun duten erakundeak. "Mundua eraldatzeko sortu ziren Mondragoneko kooperatibak, mundua hobetzen saiatzeko eta pixka bat justuago bihurtzeko. Duela 50 urte Ikerlan sortu zuten pertsonak eta

erakundeek helburu hori bera bilatzen zuten teknologiaren transferentziaren bidez, eta gai izan ziren indarrak batzeko eta proiektu sozioenpresarial bakarra sortzeko. Gaur, inoiz baino harroago gaude pertsonak erdigunean jartzen dituen, bezeroei konpromisoa eta zorroztasuna eskaintzen dien eta hurrengo belaunaldiei ahalik eta etorkizun onena utzi nahi dien proiektu kolektibo baten parte izateaz", gaineratu zuen.

Ordezkaritza zabala

Hainbat erakundetako ordezkariak batu zituen inaugurazio ekitaldiak. Pradales lehendakariak gain, bertaraturakoen artean izan ziren Mikel Jauregi, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua; Alberto Fernandez, Eusko Jaurlaritzako Teknologia eta Berrikuntzako zuzendaria; Jon Gurrutxaga, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza zuzendaria; Maider Morras, Arrasateko alkatea; Pello Rodriguez, Mondragon Korporazioko presidentea; eta Adolfo Plaza, Ikerlaneko presidentea.



Hainbat makina eta semaforoa Arlabango errepidean. IMANOL BELOKI

Arlaban mendatea ireki egin dute, lanak amaitu bitartean

Oraindik ere martxan jarraitzen dute Arlabango lanek, baina dagoeneko errepidea irekita dago

G.B.Z. DEBAGOIENA

Dagoeneko erabilgarri dago GI-627 errepidea; hau da, Arlabango mendatearen gainetik Eskoriatzako Aingeru Guardako biribilgunerainoko errepidea. Irailean hasitako lanak oraindik amaitu gabe dauden arren, azkenean, urriaren 19an, zapatua, errepidea irekitzeko hautua egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Lanak GI-627 errepidean, 21.900 eta 23.200 kilometroen artean egin dituzte, batez ere. Egindako lan guztiei esker, bidearen zati horretan errepidearen desnibela nabarmen aldatu dute, eta hainbat puntutan lerradura ere egonkortzea lortu da.

Hilabete hauetan ez da erabat itxita egon, larrialdietako ibilgailuei, inguruko etxebizitzetara doazenei eta inguruko jarduera ekonomikoetara doazenei sarbidea baimendu zaie eta. Orain, lanek izan duten aurrerapenari esker, mota guztietako ibilgailu eta txirrindulariak igaro ahal izango dira bertatik.

Lanak oraindik ere martxan

Errepidea trafiko orokorrarentzat irekitzea erabaki duten arren, lanak ez daude erabat amaituta. Lerraduretan azken txukuntze lanak egin behar dituzte, eta asfaltatze lanak ere erabat amaitu gabe daude oraindik. Hori dela eta, langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, trafikoa guztiz eten barik, bi semaforo jarri dituzte errepidearen alde banatan.

Beharrezko lanak

Foru Aldundiak errepideko lerradura egonkortzeko lanak hasiko zituela iragarri zuen abuztu amaieran, honetarako beharra zegoela identifikatu ostean. Une hartan iragarri zuten, lanek irailaren 2tik urriaren 4ra arte iraungo zuten, eta bien bitartean errepidea trafiko orokorrarentzat itxita egongo zen, salbuespeneko zenbait kasu kenduta. Egin beharreko hobe-kuntza obrek errepidearen sestra aldatzera behartzen zituzten, eta erabiltzaileen segurtasunagatik hartu zuten bidea ixteko behin-behineko erabakia.

Atzeratzeko beharra

Irailean amaieran, lanak luzatzeko beharra izango zutela iragarri zuen Foru Aldundiak. Luzatze horren arrazoiak irail hasierako euriteak izan ziren. "Irailean lehenengo bi asteetan izan diren etengabeko euriek lanak aurrera eramatea eragotzi dutenez, Arlaban mendatean egonkortze lanak egin ahal izateko trafiko etenaldia urriaren 2tik urriaren 18ra luzatuko da", adierazi zuten garai hartan. Azkenean, bigarren iragarpen hori ere ez zen erabat bete, egun bateko tartegatik.

DEBAGOIENA ETA GASTEIZ LOTZEN DITUEN GI-627 ERREPIDEAREN ZATIA ERABILGARRI DAGO

"Nazioarteko sari bat jasotzea ikaragarria da"

MAIALEN FERREIRA KAZETARIA

Miamin izango diren Roche sarierako izendatu dute Ferreira. Osasun kazetaritza saritzen dute sariek, eta hark zesareari buruz egindako ikerketa izendatu dute

Jone Arruabarrena

Osasun kazetaritza saritzen duten Roche sarierako izendatu dute Maialen Ferreira (Arrasate, 1994) kazetari arrasatearra. *Eldiario.es* hedabidean egiten du lan kazetariak, eta EAEko ospitaleetan egiten diren zesareei buruz 2022an egin zuen erreportaje bat izendatu dute. Miamin dago orain; bertan izan zen atzo sari banaketa.

Ze ibilbide izan duzu kazetaritza munduan?

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsera joan nintzen Kazetaritza ikastera, eta azken urtea egitera Mexikora joan nintzen, beka baten bidez. Ikasketak bukatuta, bertan geratzea erabaki nuen, *Reforma* izeneko egunkarian lanean. Han urtebete egon ondoren, *Eldiario.es* hedabidetik lan eskaintza bat iritsi zitzaidan Bilboko delegazioan lan egiteko, eta etxera bueltatu nintzen. 2019a ezker nabil bertan lanean.

Osasun gaietan espezializatu zara?

Ez; kazetaritza lokala denez, gai asko jorratzen ditut. Batez ere, gizarte gaiak lantzen ditut, baita kultur gaiak ere batzuetan. Baina, orokorrean, denetarik. **Nola sortu zitzaizun zesareen gaia ikertzeko aukera?**

Madrilgo delegazioan hasi ziren zesareen gaia lantzen, eta ohar-

tu ziren Euskadiko datuak bereziak zirela, Estatu mailako zesarea tasa baxuena zegoelako hemen. Orduan deitu zidaten niri, hemengo kasua ikertzeko. Lana luzea izan zen; hilabete ugari ibili nintzen gaia lantzen. Azkenean, lortu nuen bi emakumekin euren erditze prozesuari buruz hitz egitea, eta pediatria batekin ere egon nintzen. **Zenbat zesarea egiten dira EAEn urtero?**

2022an egin genuen erreportajea, eta orduan genituen datuak 2021ekoak ziren. Espainian erditzen ziren emakumeen %24,23ri egiten zitzaien zesarea bat, eta Euskadiren kasuan %14,19ra jaisten da tasa hori.

Zerk desberdintzen ditu EAEko ospitaleak beste leku batzuetatik?

Erizainek eta pediaterk esaten duten moduan, asko kostatzen zaie protokoloak aldatzea ospitaleetan, orokorrean. Betidanik egin den hori ez dute aldatu nahi. Baina Gurutzetako ospitalean Jorge Burgos medikua saiatu zen protokolo hori aldatzen eta zesarea gutxiago izateko manio-bra berezi bat erabiltzen. Gurutzetako ospitaleak, gero, Euskadiko ospitale guztietara eraman dute. Nire ustez, hori da berezitasuna: protokolo horiek betidanik betetzeak ez duela esan nahi

ondo daudenik, eta, emakumeen zein umeen onerako bada, gauzak aldatzea komeni dela.

Nolakoa da manio-bra berezi hori?

Umeak ipurdiz etortzen direnean, manio-bra horren bitartez saiatzen dira umeak bira eman dezan sabel barruan. Horren bidez, zesarea saihestu eta erditze baginala izatea lortzen dute.

Espainian ez da manio-bra hori erabiltzen?

Mediku gehienak saiatzen dira erditzeak ahalik eta modu azkarrenean egiten, emakumeari ahalik eta gutxien sufriarazteko, baina horrek, askotan, bortxa obstetrikoa ekartzen du, erabakiak hartzen dituztelako emakumeak erdigunean jarri gabe. Emakumeek, askotan, ez dakite zer gertatzen ari den, ez diete informaziorik ematen.

Zuk bi emakume elkarrizketatu zenituen.

Bai. Bati manio-bra hori egin zioten, eta lortu zuten erditze naturala izatea. Baina besteak ez zuten lortu. Umea ipurdiz ze-

"EMAKUMEEK, ASKOTAN, EZ DAKITE ZER GERTATZEN ARI DEN; EZ DITUZTE INFORMATZEN"



Maialen Ferreira, martitzenean, Miamin. MAIALEN FERREIRA

torren, eta umearen hanka trabatu egin zen; beraz, zesarea egin behar izan zioten. Baina, hala ere, emakumeak eskertu egin zuen saiakera hura egitea. Uste dut erditzeetan kontuan hartu behar dela emakumeek zer nahi duten, eta prozesuaren parte izan behar dutela. Batzuetan ezin da, eta medikuek daukate azken hitza, baina, behintzat, emakumezkoen iritzia kontuan hartzea beharrezkoa da.

Zesarea gehiago egiten dira zentro pribatuetan.

Bai. Batzuetan, protokoloak ezberdinak dira zentro pribatueta eta publikoetan. Pribatueta, batzuetan, dirua aurrezteko interesa dago, eta pazientea ez dago erdigunean. Argi geratu da osasungintza publikoa kalitatezkoa dela eta dauzkaten baliabideak hobeak direla. Baina horretarako, osasungintza publikoa babestu eta zaindu behar da.

Nola jaso zenuen izendapenaren berri?

Sare sozialetan. Nik banekien erreportajea sarierara aurkeztu

zutela Madrilgo delegaziotik, baina ez nekien izendatuak izan ginela. Sare sozialetan ikusi nuen Garcia Marquez fundazioak argitalpen batean etiketatu ninduela, eta horrela konturatu nintzen erreportajea izendatu zutela.

Nola hartu zenuen?

Sorpresaz. Nik tokiko kazetaritza egiten dut, eta hortik kazetaritza nazionalera pasatzea eta gero nazioarteko sari bat jasotzea ikaragarria da. Batzuetan, tokiko kazetaritza gutxietsi egiten dugu eta ez diogu garrantzirik ematen, baina bertako kazetaritza eginda ere sari internazionalera heldu daitekeela ikusi dut.

Miamira joan zara saria jasotzera; zenbat egun egongo zara bertan?

Saria banaketa atzo [eguna] izan zen arren, aprobeztatu dut Ameriketako Estatu Batuak ezagutzeko, eta joan den zapatua ezker nago hemen. Konferentziak antolatu dituzte osasungintzako kazetaritzaren inguruan, eta mundu osoko kazetariak ezagutzeko aukera izan dut.

Euskaraldia egiteko modua aldatu egingo dute 2025ean

Iruñean aurkeztu dute IV. Euskaraldia, eta egiteko modua aldatzea proposatu dute antolatzaileek

Jone Arruabarrena

Maiatzaren 15etik 25era izango da 2025eko Euskaraldia. Aurtengoa, ordea, ez da azken urteetako bezalakoa izango. "Reset egitea, berrabiaraztea" proposatu dute antolatzaileek edizio

honetarako. Iruñean aurkeztu zituzten atzo aurtengo ariketaren nondik norakoak. 320.000 herritar baino gehiago dira Euskaraldian parte hartutakoak orain arte, eta, Euskaraldiko koordinatzaile Goiatz Urkijok esan

zuenez, ariketaren eraginkortasuna "aski frogatuta" geratu da aurreko edizioetan. Hala ere, gogorarazi du Euskaraldiak "bere mugak" ere badituela, eta euskararen erabilera hazteko ahalginean "ezinbestekoa" den arren ez dela "nahikoa". Horregatik, Euskaraldia "ulertu, ikusi eta bizitzeko modua" aldatzea proposatu dute antolatzaileek. Izan ere, gizarteko eragile eta herritarrekin batera egin duten hausnarketa batean, Euskaraldiak berrikuntza behar duela ondo-

rioztatu dute, herritarren ilusioa "masiboki" pizteko. Bide horretatik, "Euskaraldia gaindituko duen Euskaraldia" egin nahi dute. Hala ere, nabarmendu dute Euskaraldiko ariketaren esentziari uetsiko diotela, eraginkorra dela iritzita.

Aurrerantz egin ez dute nahi Euskaraldia egun jakinetara bakarrik mugatzen den ariketa soziala izaterik, eta "denboran zein gizartean" zabaldu nahi dute dinamika. Hau da: mugimendu oso bat sortu nahi dute,

Euskal Herri osoan euskararen erabilera aktibatzeke prest dagoen jendea batu, trebatu, antolatu eta dinamika soziala indartuta. Bide horretatik sortu dute leloa ere: *Ekar mugituz egingo dugu*. Leloak aktibazioari, mugimenduari, emozioei eta norberak besteengan duen eraginari egiten die erreferentzia. Izan ere, Euskaraldiko koordinatzailearen hitzetan, ahal den guztietan euskara erabilita, mugitu egiten dira solaskideak, eta jendartea bera.

"Olatu bat sortzen ari da hitanoa berpizteko"

IDOIA ETXEBERRIA BADIHARDUGU EUSKARA ELKARTEKO KIDEA

Euskal Herrian hitanoaren inguruko mugimendua sortzen ari dela deritzo Etxeberriak. Debagoieneko hainbat ekimen egin dituzte toka eta noka indartzeko

Jone Arruabarrena

Hitanoa berpizteko lanak hitzaldia egin zuen atzo arratsaldean Idoia Etxeberriak Bergaran, Olaso Dorrea Fundazioak euskararen bueltan antolatua duen hitzaldi sortaren barruan. Urteak daramatza Etxeberriak Badihardugu euskara elkartearen hitanoa lantzen, eta Oñatik Ingo Xonau! egitasmoaren koordinatzailea da.

Zein da hitanoaren egoera gaur egun Debagoiengan?

2023. urtearen hasieran egin genuen Badihardugutik Hikagin proiekturako inkesta bat. 4.200 erantzun jaso genituen Euskal Herri osotik, eta Debagoieneko

431 erantzun izan ziren. Inkesta hartan jendeak erantzun zuen Debagoieneko herri batean ere ez dela ona hikaren egoera. Antzuolan eta Oñatin dago egoera onena, baina beste guztietan eskasa da. Eta bi herri horietan ere tokaren egoera dezente hobea da nokarena baino. Orokorrean, esan daiteke egoera ez dela oso ona. Lehen, asko erabiltzen zen, baina gero, transmisioan eten bat gertatu zen, eta hika hizkera zakar bat bezala ikusten hasi zen jendea.

Erabileran badago aldea emakumei eta gizonezkoiei dagokienez.

Bai. Genero arrazoiak direla tarteko, emakumeen arteko noka

gehiago galdu da. Emakumeek eremu pribatua erabili izan dute gehiago, eta gizonezkoen kasuan, leku batzuetan, behintzat, eremu publikoan eta kalean mantendu da.

Hitanoa berpizteko lanak dauka izena hitzaldiak; zeintzuk dira egin beharreko lan horiek?

Lan asko egiten gabilta, leku askotan. Debagoieneko kasuan, hitano ikastaroak egin dira azken urteetan herri guztietan, eta leku askotan olatu bat sortzen ari da hitanoa berpizteko. Guk, adibidez, Oñatik Ingo Xonau! proiektua daukagu, eta 2019az geroztik hainbat ekintza egin ditugu. Hitanoa praktikatzeko



Idoia Etxeberria. GOIENA

Appa Hi! aplikazioa sortu dugu, esaterako, eta aplikazio hori badago Arrasaten, Eskoriatzan, Aretxabaletan eta Leintz Gatzagan ere.

Esan daiteke hitanoa berpizteko mugimendu bat dagoela martxan?

Uste dut Euskal Herri mailan badagoela halako olatu bat. Aberrastan hori, hizkera informal bat izatearen aukera, garrantzitsua da, eta leku askotan ari

dira hori berreskuratu nahian. Iaz, Oñatin, Euskal Herriko lehenengo hika topaketa egin genuen Badiharduguk eta UEUK, ikusten genuelako ez geneukala elkarren ezagutzarik. 80 hika eragile elkartu ginen, eta handik sortu zen eragile horiek biltzen dituen Zirika taldea. Izan ere, Durangoko Azokarako Euskal Herriko lehenengo Hikadromoa antolatu dugu.

Esan agur barizeei!

Zure barizeen tratamendurako kirurgiarik gabeko konponbidea

Zainetako ultzera eta kirurgiaren ondoren berragertutako barizeetan espezializatutako erradiologo interbentzionistak

Ibilbide zabal baten ondoren eta Varitek kliniketan arrakastaz sendatutako zain safenoen 2.500 kasu baino gehiagoren ostean, kirurgiaren beharrik gabeko metodologia berritzaile eta zehatza osatu dugu barize mota guztien tratamendurako.

Diagnostiko xehe baten bidez, tratamendu pertsonalizatuak diseinatzen ditugu, pazientearen bizitzan ahalik eta eragin txikiena izan dezaten. Horretarako, barizeak kirurgiarik gabe, ospitaleratzetik eta konbaleszentziarik gabe eta adin-mugarik gabe tratatzeko aukera ematen diguten teknikak erabiltzen ditugu.



RPS 55/19

variTek

EGOITZA BERRIA!

Alameda Rekalde 13
Bilbao-Bilbo



BILBO
690 623 391

Atotxa Zelala plaza z.g.
Donostia-San Sebastián



DONOSTIA
666 776 159

Florida kalea 72
Vitoria-Gasteiz



GASTEIZ
689 338 931

varitek@varitek.es www.varitek.es

LAGUNAROREkin adostasuna **LAGUN ARO**

Boluntariotza egiteko dei egin du Atzegik

'Orain duzu aukera' izeneko kanpaina aurkeztu berri du Atzegik, eta atzo egin zuten Debagoien mailako aurkezpena, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean. Herritarrek boluntariotza modalitatearen batean aktiboki parte hartzea da kanpainaren helburua

Gontzal Belategi Zubia DEBAGOIENA 2024ko sentsibilizazio kanpaina aurkeztu du Atzegik, desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak. *Orain duzu aukera* da kanpaina berriaren izena, eta horren helburua da herritarrek, bereziki 55 urtetik gorakoek, elkarteak eskaintzen dituen boluntariotza modalitate ezberdinetan aktiboki parte hartzea. Urriaren 23an aurkeztu zuten kanpaina Gipuzkoa mailan, Foru Aldundiko prentsa-aretoan. Debagoien mailako aurkezpena, berriz, atzo arratsaldean egin zuten, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean.



Agurtzane Barrutia koordinatzailea eta Jose Julio Heriz boluntarioa kartelekin. ATZEGI

Boluntariotzaren beharra

Kanpainaren aurkezpenetan, boluntariotzaren garrantzian sakondu zuten, hori oinarritzako delako Atzegik eskaintzen dituen aisialdiko jarduerara asko aurrera eramateko eta erabiltzaileei gizartean parte hartzeko aukera gehiago emateko. Gipuzkoan, urtean zehar, 350 boluntario inguru ibiltzen dira lanean.

Historikoki boluntariotza lanak aurrera eramane dituzten pertsonen profil nagusia gazteena dela azaldu dute. Hala ere, azken urteetan aldaketa bat izan delakoan daude Atzegiko kideak,

jende helduagoa ere hurbiltzen hasi delako boluntariotza lan horietara. Pertsona berri horien konpromiso handia ikusita, eta aberasgarri suertatu daitekeelakoan, kanpainaren arreta 55 urtetik gorako pertsonengan jarri dute, bereziki, haiek ere Atzegiko boluntariotzetan parte hartu dezaten. Modu horretan, adimen-degaitasuna duten pertsonen adin bereko pertsonekin aisialdia partekatuzko aukera izatea bultzatu nahi dute, zale-tasunak eta kezak partekatu ahal izateko.

Kanpainaren garapena

Atzegiko familiek boluntariotza egiteko moduak erakusten dituzten 4.000 kartel jarriko dituzte. Informazio-liburuxka bat eta bideo bat ere diseinatu dituzte, zenbait boluntarioren egunerokotasuna islatzeko. Kanpainaren amaiera ekitaldia azaroaren 5ean izango da, 18:30ean, Donostiako Antzoki Zaharrean. Bertara joan nahi dutenek atzegi@atzegi.eus helbidera idatz dezakete, edo 943 42 39 42 zenbakira deitu, gonbidapenak eskatu ahal izateko.

'Biharko euskara gaur' liburuxka banatuko dute berriro

Gurasoek euskararen inguruan dituzten galderak erantzutea eta aholkuak ematea da helburua

G.B.Z. DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateak eta udalek *Biharko euskara gaur* liburuxka berriro banatuko dute ibarreko ikastetxeetan. Zehazki, Arrasateko, Bergarako, Eskoriatzako eta Aretxabaletako

ikastetxeetako HH4-ko ikasgeletan banatuko dituzte. Ez da liburuxka Debagoiengan banatzen den lehen aldia, baina proiektuaren parte diren erakundeek aurten beste banaketa bat egitea erabaki dute.

Kike Amonarriz soziolinguistikak proposatutako aholku-sorta bat da *Biharko euskara gaur*. 8 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei bideratuta daude aholku horiek, hizkuntza eza-gutza, erabilera-ohitura eta hizkuntzarekiko jarrera 8 urtera arteko epean finkatzen dela uste da eta. Aholkuak euskaraz dakiten gurasoentzako zein euskaraz ez dakitenentzako dira, eta, modu horretan, gurasoen artean ohikoenak diren galderak erantzun nahi dira.

Goienakideen txokoa

URRIKO SARIAK



TD Systems telebista (32')

Parte hartzeko sariaren izena: telebista



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GASTURRO

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritza Produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte hartzearen artean egingo da zozketa.

Informazio gehiago LOPD 15/1999 legearen arabera jakinarazten dizugu: gure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren Itxeragiz automatikoki bideratuko ditugu. Datu bilerak honen helburu bakarra da erabakia hartzea zozketaren bidez. Eskubidea eraberritzea dago zozketaren ondoren, baina zozketaren ondoren ezin da eraberritzea eskatu. Eraberritzea eskatu behar duzunean, baina zozketaren ondoren ezin da eraberritzea eskatu. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

LOLA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: urriak 28



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-a / zozketa atalean



GOIENAKIDE Jatetxea

[barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



ZABALIK

JON ETXEBERRIA

Etorkizuneko formula

Enpresa berriak sortzeari ekintzailtza deitzen zaio. Enpresak, izaki bizidunak bezala, jaio eta hil egiten dira, eta, beraz, ekosistema ekonomiko osasungarria izateko funtsezkoa da etengabe enpresa berriak sortzea, desagertu berez desagertzen direlako... Euskadin 57.000 enpresa inguru existitzen dira, eta, urtero 3.000 enpresa berri sortzen badira ere, kopuru hori nahiko egonkor mantentzen da, sortutako enpresen kopurua eta desagertutakoena oso antzekoa baita. Arrakastatsu izateko eta bizirauteko, enpresa berri batek ezinbestekoak ditu bi osagai nagusi: ekintzaile ona eta ideia ona izatea.

Baina zergatik erabakitzen du pertsona batek ekintzaile bihurtzea? Argitaratu berri den *Euskal Ekintzailtzaren Behatokia*-ren txostenean bi arrazoi nagusi ematen dira:

INGURUAN DUTEN GIZARTEARENGAN ETA MUNDU MAILAN ERE ERAGINA DUTE ENPRESEK

gehiengoak behar edo interes pertsonalengatik egiten du; hau da, diru-sarrerak behar dituelako edo bere burua aberastu nahi duelako. Baina bada kopuru bat, nahiz eta txikiagoa izan, mundua aldatzeko

nahiagatik egiten duena; alegia, munduari ekarpen positiboa eginez irabazi nahi duelako bere bizimodua.

Izan ere, enpresek, beraien langileen bizitzan eragina izateaz gain, inguruan duten gizartearengan eta mundu mailan ere eragina dute. Ondorioz, enpresen arrakasta neurterakoan ezin ditugu aldagai ekonomikoak bakarrik kontuan hartu; inpaktu soziala ere neurtu behar dugu, baita nola egiten diren gauzak ere. Horregatik, gizarte orekatuagoa nahi badugu, interes pertsonaletik haratago, proiektu kolektiboen aldeko apustua ere egin behar dugu, herrian errotutako enpresa berriak eraikiz, epe luzeko ikuspegia dutenak, kalitatezko lanpostuak eskaintzen dituztenak eta bai barrura zein kanpora begira elkertasunez jokatzeko dutenak. Hamarkadak daramatzagu hori egiten gure inguruan, eta kooperatibak deitzen diegu; etorkizunerako ere formula ezin hobea, zalantzarik gabe.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Zu, euskara desagerrarazten ari den hori

JONE AMONARRIZ
'BERRIA'-N ARGITARATUA
[HTTPS://LABUR.EUS/EPNDE](https://labur.eus/epnde)

Kontzientzia kanpaina baten leloa izan ahalko litzateke. Zuzena. Argia. Deigarria. Eta akaso eraginkorra. *Zu, euskara desagerrarazten ari den hori.* Leloa handian eta ozen.

Tonu eta estetika atsegin eta alaietatik urrun.

Kezkatuta eta haserre gaudenon aurpegi ilunak irudian, eta plano ertainaren erdialdean atzamarra, zu seinalatzen. Bai, zu. Beharbada orain arte

interpelatuta sentitu ere egin ez zaren euskaldun hori.

Horrela zuzendu nahiko nuke zuregana, espero gabeko modu gordin batean, zure arretra pizteko helburuarekin. Baina ezin da. Kontziente naiz foku deseraikitzaile batetik nekez piztuko dela ezer positiborik. Ez naizela inor modu horretan inorengana zuzentzeko. Beraz, belarriak jaitsi, ideia horrekin pilotatzea egin eta paperontzira bota ostean, burua hotz, intentziorik onenarekin eta gure hizkuntzarekiko dudan miresmen eta erantzukizunetik idatzi dizut ondorengo lerrootan esan nahi dizudana.

Euskaraz dakiten beste guraso batzuekin erdaraz hizketan entzuten zaitut sarritan, Lazkao Txikiren esaldia orainaldira ekarrita; erdaraz, euskaraz ari zaretelakoan. Haurrak ere bide beretik, eta ezin ezer ere esan, nonbait, "beraiek erabaki behar baitute" zein hizkuntzatan komunikatu – diskurtso arriskutsuagorik?-. Pantailetan zer ikusi eta noren fana bilakatu ere euren esku, birjinak balira bezala hautu horietako bakoitzean. Eta horrela, hegan egiteko etapa batean, mundu oso bat ezagutu eta bizitzeko aukera mugatzen ari zataizkiete, zuen inertzietatik eta axolagabekeriak gidatuta.

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube,
Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administratzaile zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publikitate
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Urriaren 26an manifestazioa Gasteizen, Araba salgai ez dagoela esateko**JUDITH ARRIOLABENGOA UNZUETA**

ARAMAIXO BIZIRIK PLATAFORMAREN IZENEAN ARAMAIXO

Azken hilabeteotan Araban makroproiektu fotovoltaiako eta eoliko ugari aurkeztu dira, aurretik jada abian zeuden beste proiektu batzuei gehitzen zaizkienak –AHT, tomatera, dikeak eta abar–; esamolde artetsuak erabiltzen dira, hala nola *trantsizio energetikoa, lurralde-industrializazioa eta etorkizunerako aurrerapenak*, korporazio handiek gure lurraldearen kontura negozioa egin dezaten.

Gizarte etengabeko mehatxu honi erantzuten ari zaio; hainbat erakunde eta plataforma sozial eta herritar batu gara berriro ere kalera ateratzeko, astakeria honi ezetz esateko. Erakundeei eta arduradun politikoei erakutsi nahi diegu lurraldea, gure herriak eta landa ingurune bizimodua defendatzen ditugunak gehiengoa garela. Horregatik, datorren urriaren 26rako, larunbata, manifestazioa deitu dugu Gasteizen, arratsaldeko seietan, Bilbo plazatik abiatuta.

Manifestazio honekin, honako hau exijitzen dugu: -Aipatu makroproiektu horiek guztiak bertan behera gera daitezela, bai berriki aurkeztutakoak, eta baita izapidetzea aurreratuago dutenak ere.

-Enpresa handiek sustatzen duten lurraldearen harrapaketa gera dadila, eta Administrazioak ezinbestekoa den lurraldearen plangintza eta antolamendua egin dezala, ez guk eta ezta etorkizuneko belaunaldiak ere ez dezagun gure lurraldea eguzki-plaka, errota eoliko eta hormigoi itsaso bihurtuta ikusi.

-Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak gure lurraldearekin espekulatzeari utz diezaiotela, eta haren defentsan apustu garbia egin dezatela; Araban bizitzen jarraitu nahi dugu.

-Ezkutatze praktikak bertan behera utz ditzatela eta informazioa garbi helaraz diezaiotela gizarte osoari.

Salatu nahi dugu makroproiektu horiek inpaktu ekosozial izugarria dutela, eta oso kezagarriak direla biodibertsitatea, laborantza lurrak, basoak eta larreak galtzearen ondorioak. Landa bizitzaren aldeko apustua egin duten pertsonak lurraldetik aterarazten ari dira eta landa-garapen iraunkorreko proiektuak suntsitzen; azken batean, pertsona horiek beren etxeak, herriak eta lurrak uztera behartzen ari dira.

Gizarteari beharrezkotzat *saldu* nahi zaizkion espekulazio-negozio horiek zuzenean beraien eragina pairatzen duten komunitateekiko inolako gardentasunik, informaziorik eta errespeturik gabe planteatzen ari dira.

Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia: garaiz zaudete jarrera aldatzeko, bestela, Arabako espoliazioaren erantzule zuzenak izango zarete eta.

Eredu iraunkorren aldeko apustua egiten dugu, berriztagarriekin ekoiziz autokontsumorako –zero kilometroa–; ez hemen eredu makroetan ekoizten duten eta gero Europari salduko dioten enpresen negozioarako.

Argi utzi nahi dugu kudeaketa politiko oker baten ondorioz gure herrietatik eta lurretatik kanporatuak izateko arriskuan jartzen bagaituzue beti aurrean izango gaituzuela.

Makroproiekturik ez! Lurra defenda dezagun!

Udalamendi, Udalamendi**AMETS, ENERITZ ETA NEREA UGALDE** ARRASATE

Bai, kristau sinismenak bultzatuta igo euen batzuk gurutzia Udalaizera.

Aititik hala sentitzen auen, "zenbat eta gorau Jaungoikuagandik hurbilau". Baina baita bere lagunanganako maittasunak, gainontzeko mendizalienganako elkartasunak eta herri sentimenduak be; Euskal Cervinotzat eukien mendi kuttuna inguruko tontorren pare jartzekua.

Orditik mondrauetar eta euskaldun askon iruditerixan parte izan da "euskal haitzik zutunenian" auen gurutzia. Eta bai, iritzi ezberdinek aberastu eitten gaitue, eztabaidek eraiki eta sinbologia partekatzia eta berritza beharrezkua da.

Herrixa liberatzeko ein dozuela diñozue, baina zein ederra litzake aurrez herrixa kontutan hartu izana! Zinez uste dou zuen momentuko asebetetziak ez dauela inolaz konpentsauko beste mondrauetar eta mendizale askongan sortutako atsekabia.

Aurrerantzia be irrirtzika jarraitukou mendi tontorrian, "jan da lo" deiadarka.

Udalatxeko Gurutzea desagertu eta gero**ANDER SANTIAGO ETA JUAN RAMON GARAI** ALTERNATIBAKO KIDEAK ARRASATE

Zenbait iritzi irakurri ditugu azken egunetan, herriaren izenean idatzitakoak, oso partzialak direnak eta inoiz kontuan izan gabe ze egoeratan bizi ginen 1971n. Hau da gure iritzia.

Gurutzea jarri zen uea kontestualizatu egin behar dela uste dugu. Hortaz, noiz jarri zen? Frankismoan;

kolpe militarren diktadura ezarri eta 32 urtera. Kolpe militarren indar faktikoek –orduan esaten zen bezala, La Cruz, la Espada y el Saco– bultzatutako eta finantzatutako diktadura –Elizaren hierarkia, militarrek eta indar errepresiboak, dirudun handiak eta lurjabeak, hurrenez hurren–. Hezkuntza zeinen menpe zegoen? Eliza katolikoaren eta Falangearen esku, jakina: erlijioa eta espiritu nazionala. Dena zen bekatu, sexualitatea erreprimututa –besteena, ez euren–, errosario santua egunero, eskutik obatuta elizara igandeetan ikasleak...

Herritar batzuen inizatibagatik Udalatxeko gurutzea jartzea 1971n ez zen ekintza neutroa izan, gure ustez; segurutik, euren asmoa hori ez izan arren. Hau da, mondrautar batzuek inori galdetu gabe erabaki zuten hamabi metroko gurutzea jartzea herritik bistan, diktadura batean geunden eta laikotasuna debekatuta zegoen garaian. Mondrautar laikoan ideia errespetatu zuten orduan? Ezetz esango genuke; inposizio hutsa izan zen.

Orain, berriz, beste batzuek, une honetan gurutzea eurentzat botere zapaltzailea delako, moztu egin dute. Eta gauez egin dute, badakitelako egunez ingero zirela eta, segurutik, kartzela-zigorrekin, gainera –agertu dira, bai, zigorra eskatzen ari direnak ekintzaileentzat–. Ekintza honekin mindu zutenak eta beste herritar batzuk? Bai.

Eta 1971n ez al zuten inor mindu? Ados egon edo ez ekintzarekin, ekintza politiko baten aurrean gaude. Ekintza honekin ez dute jarri ikur berezirik, 1971n bezala.

Trantsizio politikoa adostu zutenek onartu zuten kolpe militar faxista bultzatu zuten goian aipatu hiru indar faktiko horiek jarraitzea, inongo erantzukizunik eskatu gabe; eta hor jarraitzen dute, santuak balira bezala, baina kriminalak izan ziren. Zigorrik eskatzeotan, badago hor nondik hasi.

Diktadorea hil ondoren, Espainiako Estatuak akonfesional deklaratu zuen bere burua; horregatik, debekatuta egon beharko litzateke udal-lurretan –lur publiko guztietan– edozein ikur erlijioso jartzea. Are gehiago, gaur egun gure herria osatzen duen kultura eta erlijio arragoarekin. Fede kontuak ezin dira eremu pribatutik atera; are gutxiago, udal agenda politikoa markatu.

Herri laiko bat gara, guztien sinesmenak errespetatu behar ditugu, fededunenak eta laikoan. Eta, une honetan, bide horretatik joatea uste dugu dela zuzenena.

Udalatxeko gurutzea berriro jartzeko argudioak *Jaungoikoa eta lege zaharretik* hurbilago dauden hemeretzigarren mendeko diskurtsoak dira; edo, bestela, aurkari politikoen kontra egiteko dena baliagarria den ideiarekin osatutakoak. Harrigarria.

Alternatibatik, aldarrikapen mesianikoen gainetik, Euskal Errepublika subirano eta laikoa defendatzen dugu, eta defendatuko dugu. Herrien, pertsonen, animalien eta ingurumenaren eskubideak urratzen dituzten tradizioak desagertzearen alde egingo dugu beti.

Beraz, inor mindu nahi ez badugu, ikur neutralak edo adostutakoak jar ditzagun toki partekatu eta publikoetan.

Mugikortasun Planak "interes handia" piztu du

Astelehenean Musakolan egindako aurkezpenarekin amaitu ditu Udal Gobernuak Mugikortasun Jasangarrirako Plana auzoz auzo aurkezteko saioak, eta balorazio ona egin du. "Herriarrek jasangarritasunaren aldeko jarrera eta interesa dute", dio

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Gaiak herritarrengan interesa piztu duela azpimarratu du Udal Gobernuak. "Parte-hartze eta interes handia nabaritu dugu, eta herriarrek euren zalantzak, kezak eta ekarpenak partekatze aukera izan dute. Batzuetan gai ezberdinei lotutako debata sortu da, guztiak egindako ekarpenei lotuak".

Autobus geltokiaren kokapenak ere "jakin-min handia" piztu duela azaldu du Gobernuak. Galdeketa buruzko xehetasun guztiak datozen asteetan iragarriko dituzte, eta azaro erdialdean egitea aurreikusten dute.

Behin aurkezpen saioak bukatuta, ekarpenak eta iradokizunak egiteko aukera izango dute herriarrek, abenduaren 19ra arte. "Auzoetako bileretan ekarpen batzuk jaso baditugu ere, herriar orok egin dezake ekarpena orain, BAZen edo webguneko erregistro telematikoan". Horretarako, eskabide orokorra bete beharko dute, *Mugikortasun Jasangarrirako Planerako ekarpena* dela adieraziz. Behin proposamenak aztertuta, behin betiko plana 2025aren hasieran onartzea aurreikusten du Gobernuak.

Galdeketa osatua gura du EAJK EAJK eskatu du plan berriari buruzko herri kontsulta autobus geltokiaren kokagunera soilik ez mugatzea eta "garrantzitsuak diren beste gai batzuetan herriarrei hitza ematea". Gai horietako batzuk dira, haien esanetan, hainbat kale noranzko bakarrek bide bilakatzea edota oinezkoen segurtasunean eta aparkalekuen erabilgarritasunean eragina izango duten neurriak hartzea. "Ulergaitza iruditzen zaigu herri kontsulta bat autobus geltokiaren kokalekuan bakarrik zentratzea. Prozesu gardenagoa eta demokratikoagoa beharrezkoa da", dio Ander Garayk, EAJko bozeramaileak.



San Andresko aurkezpen saioa. ARRASATEKO UDALA

Autobus geltokia Zalduspen mantentzearen aldeko apustua egin dute. "Egunean 500 autobus baino gehiago iristen dira bertara, eta horietatik erdiak ez du erdigunea zeharkatzen. Garibairra lekualdatuta, erdigunetik

pasako lirarteke autobus horiek guztiak". Azkenik, "aparkaleku galerari aurre egiteko", Monterronen lurpeko parking bat egitea eskatu dute; "hori herri kontsultan sartzeko eskatu diogu Gobernu Taldeari".



Bi bizikleta, Ignacio Zuloaga kalean jarri dituzten aparkalekuetan. E.A.B.

Bizikletentzako 146 aparkaleku

Ohiko bizikletentzako 138 aparkaleku jarri ditu Udalak, kargako bizikletentzako zortzi aparkalekurekin batera –73 arku, hamaika gunetan–. Bizikletak konpontzeko hiru gune autogestionatu ere jarri dituzte. Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en.



Azaroaren 4tik aurrera autonomia izango den ikasgela, aste honetan. J.B.L.

Ikasgela autonomia egongo da Kulturaten hilaren 4tik aurrera

Erabiltzaileek txartela eskuratu beharko dute urriaren 28tik aurrera; 09:00etatik 01:30era egongo da irekita

E.A.B. ARRASATE

Arrasateko Udalak gazteentzako ikasgela autonomo bat jarriko du martxan azaroaren 4an. Gladys Fernandez Belaunaldiar-teko zinegotzia eta Andoni Arratibel Kultura zinegotzia izan dira zerbitzuaren aurkezpenean eta Fernandezek azaldu du gazteen eskaera historikoa dela Arrasaten ikasgela autonomo bat egotea. "Azterketa garaiak oso gogorak izaten dira eta, askotan, etxean ez dira isiltasun eta kontzentrazio baldintzak betetzen. Gainera, liburutegiaren ordutegia mugatua da, eta, on-

dorioz, ikasteko gela honek aukera berriak eskaintzen dizkie gazteei euren ikasketak egiteko prozesuan".

Seber Altube plazan dagoen atletik izango du sarrera –pintura gelara joateko erabiltzen den atea–, eta txartel elektronikoa beharko da sartzeko. Udal webgunean eskuratu ahal izango da txartela, astelehenetik aurrera.

2025eko uztailaren 30era arte proba moduan funtzionatuko du zerbitzuak, eta erabilera irizpide batzuk ezarri dituzte, ikasgelaren zaintza "ardura kolektiboa" dela argudiatuz.

GORA ETA BEHERA



"Ezin al da garajetik irten eta eskuinera egin Zerrajeran?"



Txaetako bizilagun batek zera dio: "Garajetik irteteko Zerrajera kalean ezkerretara egin behar dugu, nahitaez; inguru hartan ez dago ikuspenik eta asko gara bertatik irteten garenak".

Gaba Baltza, askotariko eragileen lankidetzarekin

Ekin Emakumeak Elkarteak, Doke Antzerki Eskolak, Amaidolua elkarteak, Ttak gazte taldeak, Ibai-arte elkarteak, Txatxilipurdi Elkarteak eta Arrasateko udal ludotekek eta gazte txokok elkarlanean antolatu dute dagoeneko martxan dagoen egitaraua

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Iaz moduan, dagoeneko martxan dagoen erakusleho lehiaketa-rekin abiatu dute Gaba Baltza-ren bueltako egitaraua, eta azaroaren 1era arte iraungo du, Ibai-arteren eskutik. Herritarrek 688 73 41 49 telefono-zenbakira idatzita eman ahalko dute botoa, erakusleho gustukoena aukeratu. Honako establezimendu hauek hartuko dute parte: Al-tuna Lurrindegia, Arrasate Optika-Optometria, Bed's, Elkorro Osagarriak, Ennea, Intersport Loramendi (Garibai), JG, Kapi-

kua, Kids&Us, Kili-Kolo, Milar Elkorro, Portaloi Optika eta Sus-trai. Era berean, bozkatzten du-tenen artean 50 euroko lau eros-keta-txartel zozkatuko dituzte, Ibai-artereko establezimenduetan kontsumitzeko.

Halaber, udal ludoteketan Gaba Baltza-ren inguruko hainbat ekintza egiten ari dira, eta bihar eta etzi, gazte txokoen eskutik, 12 urtetik gorako nerabeentzako beldur etxea egingo dute tren geltoki zaharreko gaztelekuan. "Gonbidapenak mugatuak dira eta gaur da horiek lortzeko azken

eguna, auzoetako gazte txokoe-tan zein gaztelekuan", diote antolatzaileek.

Urriaren 29an, bestalde, *Garen guztia bidelaguntzen* hitzaldia egingo du Amaia Gozategik, 18:00etan, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, Amaidolua elkar-tearen eskutik. Zainbizi elkar-teko presidentea da Gozategi.

Eguenean Arimen Biltzarra

Urriaren 31 egun berezia izango dela nabarmendu dute. 18:00etan hasita, Arimen Biltzarra egingo dute, Arrasateko kaleak giro-tzeko. "Biteriko plazan hasi eta Monterronera ibilbide bat egingo dugu Ilargitxorekin eta bere lagun kukumarruekin. Hori horrela, herritarrek animatzen ditugu kukumarro edo baserri-tar jantzi eta kalera atera dai-tezen, guztion artean herria alaitu eta jai giroan gozatzera". Eguraldi euritsua eginez gero Arimen Biltzarra Kulturolako aterpean egingo dutela aurrera-tu dute.

00:00etan, azkenik, DJ Putzu eta DJ Galtzagorri egongo dira gaztetxean, Ttak taldearen eskutik. "Gaba Baltza batzordea osatzen dugun kide guztiek herri-tarrei gonbita egiten diegu egitarauan parte hartu eta ondo pasatzera", bukatu dute.

Izen-ematea zabalik dute Auzoko egitasmoan

Ekin Emakumeak Elkartearen lokalean egingo dituzte saioak, eguenetan, 10:30ean

E.A.B. ARRASATE

Auzoko egitasmoa martxan da Arrasaten, herritarrek euskara gerturatzeko helburuarekin. Joan den astean hasi eta ekai-nera arte, eguenetan egingo dituzte saioak, Ekin Emakumeak Elkartearen lokalean, 10:30ean. Ordubetako saioak izango dira eta helburu nagusia da euskara-rik urrun bizi direnak euskara gerturatzera, "herritar guz-tion arteko kohesio eta komu-nikazio-hizkuntza euskara iza-teko", egitasmoko dinamizatza-ileek azaldu dutenez.

Euskarara lehen pausoak eman nahi dituzten herritarrek *-au-zokideak-* eta bide horretan laguntzeko prest dauden euskal hiztunak *-auzotarrak-* elkartzen dira saioetan. Ariketa erraz eta dinamikoan bitartez *-jolasak,* abestiak, bisita gidatuak, herri-ko egitasmoetan parte hartzea...*-,* jatorri askotariko herritarren arteko harremanak sustatu eta euskarazko oinarriko hitz eta esamoldeak lantzen dituzte.

Dagoeneko saioak hasi dituz-ten arren, ahalik eta herritar gehien batu dituzte eta izen-ematea zabalik dute. Horretarako, 651 70 79 36 edo 943 79 83 70 telefono-zenbakietara deitu beharko da.



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

Erreak

Jasangarritasun Garapen Helburu (*SDG=ODS*) bat hondakinak gutxitzea da, *NET=0* bilakatu arte. Ingurumen tributu adierazlea, hondakinak zabortegietan uzteagatik eta haien errausketagatik oraindu beharreko zerga. Guztiok gehiago pagatzera birziklatzen ez denagatik?

Bada, ekin diezaiogun lanari. Horretarako, zero hondakin sortu, erdarazko 5R+ pausoak segiz: Murriztu, Berrerabili, Konpondu, Zaharberritu, Birfabrikatu, Birdefinitu, Birziklatu, Birpentsatu, Birsortu...

Nago bakoitzak bere beharrak berraztertu beharko ditugula. Bide-orriak dio arropa berriak, zero kilometroko denda batean erosi aurretik, etxekoa erabiltzea dela egokia... Eskuz norberak josi eta trikotatuz gero, hainbat hobeto. Jan-edanak murriztu lehenik, eta gero, ekologikoa hobetsi. Erregai gutxiena kontsumitu: oinez, gero bizikletaz, eta garraio publikoa kotxea baino lehen. Hegazkinean bidaiatu ala furgonetan. Tabernan etxeko patxarana edo eskoziar whisky edan.

Ziur nago bakoitzak kontzientzia lasai edukiko duela, koherentea norberak egiten duen mailarainokoa dela pentsatuta, eta, hortik aurrera, inkoherentetzat hartuko ditu besteak.



Gaba Baltza iragartzeko atera duten argazkia, Ilargitxorekin. GABA BALTAZ BATZORDEA



Gualbi
aholkularitza
Eraña aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Jokin Zaitegi plaza 6 (Arrasate) • 943 79 83 95 • erana@aserana.com • www.gualbiasores.com

"Haurdunaldi subrogatua argi-itzal askoko gaia da"

JUNE FERNANDEZ 'AINGERUAK ETA NESKAMEAK' LIBURUAREN EGILEA

Hilaren 29an, 18:30ean, Kulturaten aurkeztuko du haurdunaldi subrogatuei buruzko analisi feministak eta kuirrak lantzen dituen liburua, Borja Muñoz Arrastiarekin batera

Hasier Larrea Herrero ARRASATE
June Fernandez (Bilbo, 1984) kazetari feminista 2017a ezkerro dabil haurdunaldi subrogatuari buruzko ikuspuntuak jasotzen; hain zuzen, Ciudadanos alderdiak Espainiako Kongresuan gaia legeztatzea proposatu zuenetik. Aurtengo maiatzean *Aingeruak eta neskameak. Haurdunaldi subrogatuen analisi feministak* liburua kaleratu du, Lisipe bildumaren hamalagarren atala, gaian jantzita dauden Euskal Herriko hemeretzi feministaren elkarrizketak bibliografiarekin konbinatu eta erreportaje estilora eramanda.

laz, haurdunaldi subrogatuei buruzko jardunaldi batean egon zinen Bilbon; zer ikusi zenuen bertan?

Kongresu proselitista zen, aldeko familia eta elkarteek antolatutakoa. Kritika falta piloa nabaritu nuen, feminismitik, antikapitalismitik, ekologismitik... Kongresuaren kanpoan, bestalde, aurkako taldeak zeuden elkarretaratzea egiten: Itaia, Las Criadas... Eta han ere ez nintzen eroso sentitu, nire ustez eslogan bidezko diskurtsoak dauzkatelako: emakumeen esplotazioa da, umeen salerosketa da, eta kito, errealitate guztiak zaku berean sartuz. Nire oinarritzko tesia berresteko balio

izan zidan: eztabaida oso polarizatuta dago, eta bi aldeetatik erortzen gara sinplismoan. Beharrezkoa zen gaiaren argi-itzalak lantzea.

Herrialdearen arabera oso desberdinak dira legeak, ezta?

Spainian legez kanpokoa da praktika, baina atzerrira joan daiteke. AEBetan duela 40 urte hasi ziren, industria egonkortuta dago, logika komertzialekin: emakumeek kobratzen dute eta klinika zein agentzia bitartekoek etekinak ateratzen dituzte. Indian eskandalua sortu zuten emakumeen ustiatuek, eta atzerritarrei atek itxi zizkieten; modu masibo, hotz eta mekanizatuaren praktikak zuten zesea. Azkenetakoa legeztatzen Kuba izan da: haurdunaldi subrogatu solidarioa bakarrik onartzen du; hau da, senide edo lagunen artean, debalde, Estatuak bakarrik ikuskatuta eta osasungintza publikoan. Halako ereduak Uruguain, Kanadan eta Portugalen ere badaude.

Eredu horiek dira idealeak?

Liburuan azaltzen dut tranpa dezente daudela, altruismoaren erretorikarekin lotutakoak. Zergatik eskatu behar zaigu emakumei lan hori debalde egitea, solidarioak garelako? Zergatik modu hori da etikoagoa bizi-

raupen estrategia gisa egiten dugunean baino? Oso zaila da, ez dago eredu perfekturik: eredu komertziala gure etikaren aurka doa, eta altruistak emakumearen eskuzabaltasuna sakralizatzen du.

Liburuan datu ugari ematen dituzu; zeintzuk dira aipagarrienak?

Adopzioak jaitsi egin dira, eta haurdunaldi subrogatuak igo. Adopzioak jaitsi dira giza eskubideen urraketak saihesteko orain oztopo gehiago jartzen direlako. Jatorrizko herrialdeetan ulertu dute ez dela ona krisi baten aurrean haien seme-alabak beste herrialde batera joatea bizitzera, familia zuri batean hazita, adibidez, arrazakeriari aurre egin beharko diotelako. Antiarrazismitik asko hitz egiten da nola adopzioak erromantizatu ditugun, gure salbatzaile zuriaren jarrera medio. Haurdunaldi subrogatua ez bezala, adopzioetan umea dago zentroan, eta ez gurasoen nahia; hala ere, badaude paralelismoak. Izan ere, adoptatzen baduzu 10 urteko ume bat bere anaiarekin batera eta desgaitasunarekin, hori egiteko prest bazaude, ez da zaila adoptatzea, ez daude oztopoak. Kontua da denok nahi ditugula haur jaioberriak eta osasuntsuak.



June Fernandez, liburuarekin. ESTI MAGUREGI

Eta gestantei buruz?

Indian emakume pobreak dira gestanteak, gehienbat, baina AEBetan zuriak eta langile klasekoak; hein batean, emakume pobreek ezin dutelako gestante izan, gutxieneko egoera ekonomiko egonkorra eskatzen baitute. Bitxia iruditzen zait AEBetan gestanteen %20 inguru militarren emazteak izatea. Etxekoandreak izanda, eta militarrek soldata xumea jasota, ekonomia hobetzeko egiten dute.

Familia aniztasuna sakon jorratzen duzu baita ere.

Hemen bi diskurtso daude: haurdunaldi subrogatua familia aniztasunean kokatu behar dugun eredu ez-normatibo berri bat bezala ulertu ala familia nuklearra erreproduzitzeko beste formula bat bezala? Izan ere, gizon homosexualak diskriminatua goak dira, bikote heterosexual bat joan daitekeelako jaioberria erregistratzera eta inork ez jakin amak ez duela erditu. Gainera, familia gehienak heterosexualak dira, baina, askotan, gurasoen karrikatura egiterakoan bikote homosexualak agertzen dira. Tamalez, gayen, lesbianen eta bisexualen artean, estrategia komunitarioak bigarren planoan geratu dira. Gizon gay batek guraso izan nahi du eta bikote lesbiana batek haurra izan nahi du; orduan, gizonak semea jar dezake eta hirurek parte har dezakete hazkuntzan. Bada, halakoak gero eta gutxiago egiten dira, beldurratik. Legeak bi guraso bakarrik baimentzen ditu, eta lehia gertatzen da. Posible da hiruretako bat, normalean ama ez-gestantea, aitortza juridiko gabe geratzea. Familia-ereduetan aitortza juridikoa aldarrikatu beharko genuke, eta bitartean iruditeria horiek sortu; posible dela familia batean bi gurasok baino gehiagok parte hartzea.

"EZ DAGO EREDU PERFEKTURIK; KOMERTZIALAK ETA ALTRUISTAK, BIAK KRITIKA DAITEZKE"

Mesedetako 'co-housing' proiektua garatzen dabil ISEO

Belaunaldiarteko egitasmoaren bigarren bertsioa Udalean eta Etxaluzen aurkeztu du Aitor Orobengoak

H.L.H. ARRASATE

Mesedetako ikastetxea izandako eraikinean cohousing edo etxebizitza komunitarioen eredu ezartzeko duen proiektua aurkeztu du asteon ISEO enpresako kide Aitor Orobengoak. Azaldu

duenez, proposamen berriak 83 lagunen ekarpenak jasotzen ditu.

Udalak "begi onez" ikusi du eraikina halako proiektu baterako erabiltzea, baina, era berean, bideragarritasuna ondo aztertu beharko litzatekeela uste du.

Izan ere, Udalez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesa beharko luke proiektuak, inbertsio potoloa izango litzatekeelako. Horrez gain, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ere aldatu egin beharko litzateke, gaur-gaurkoz planak jasotzen baitu erai-kin hori hezkuntzara bideratu behar dela.

Eta proiektua gauzatzea erabakitzen bada, lehiaketa publikora irten beharko litzateke, esleituaz izateko.

Bertso-pilota jaialdia bihar, Uarkaperen 25 urteak ospatzeko

Esku-pilota eta bertsoa uztartzen dituen ekimena lehen aldiz egingo dute Arrasaten, zapatuan, 18:00etan hasita eta dohainik. Ander Etxanizek eta Jon Erasunek Mikel Goñirekin eta Manex Balerdirekin indarrak neurtu bitartean, Ane Zuazubiskarrek eta Amets Arzallusek bertsoz emango dizkiete aholkuak, bostileraren rola hartuta.

1979an jaiotakoek kintada egingo dute azaroaren 9an

Herriko Plazan elkartuko dira, 12:00etan, eta, motorrak berotzen joateko, otordu txiki bat egingo dute Ezkiña tabernan, 13:00etan. "Gero, sorpresaz, musika onez eta anekdota ahaztezinez betetako bazkari batez gozatuko dugu", diote. Parte hartzeko, 55 euroko ordainketa egin beharko da gaur zenbaki honetan: ES882095505509124341170.

Hasiera malkartsuari buelta eman guran

Senior kategoriako Mugarri Ingou Arrasate eskubaloi taldeak denboraldia hasi berri du. Lau jardunaldi jokatu dituzte arrasatearrek, eta puntu bakarra batu dute. Hala ere, taldearen jokoa ona izaten ari dela adierazi du Ane Herrero entrenatzaileak

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE
Denboraldia hasi dute Mugarri Ingou Arrasate eskubaloi taldeko seniorrek. Lau jardunalditan puntu bakarra lortu duten arren, asmo handiak dituzte denboraldi honetarako, eta "oso parekatua" izango den denboraldia aurreikusten uste dute Mugarri Ingou Arrasate taldeko kideek.

Puntu gutxi, baina lan ona

Ane Herrero entrenatzailearen gidaritzapean hasi dute denboraldia senior kategorian ari diren arrasatearrek. Ane Herrero entrenatzaileak adierazi duenez, denboraldiko lehenengo lau partiduen emaitzek ez dute islatzen taldeak egin duen lana eta jokatu dituzten partiduak, baina puntuak batzea beharrezkoa dutela nabarmendu du: "Urnietan jokatu genuen azken jardunaldiko partidua, akaso, ez da gure partidurik onena izan, baina aurreko biak, Eibarren eta Zarautzen aurka, puntu batengatik eta bi punturenatik galdu genituen, azken segundoan galduta. Hala ere, joko aldetik eta taldeak izandako nortasunagatik puntu gehiago izan beharko genituzke. Kirola batzuetan ez da justua, eta txanpona alde batera edo besterara eror daiteke".

Baja garrantzitsuak

Iazko taldeetik lau jokalarik utzi dute taldea, eta euren falta sumatzen dela azaldu du Herrero: "Xabi Lizarralde, Mikel Murillo, Mikel Teran eta Jon Ander Arizaga jokalariek aldageletan eta kantxan asko ematen zuten. Hala ere, taldea ona da, ondo ezagutzen dute elkar, urte askoz jokatu dute elkarrekin... Baja inportanteak dira, baina besteek aukerak dituzte gehiago jokatzeke, eta eurak ere gai dira erronkari aurre egiteko; beraz, taldearekin pozik nago".

Helburua, zehaztuta

Liga amaierarako aurtengo helburua argi du zein den Herrero: Saillkapenean erditik gora gertzea. "Beste urte batzuetan larri ibili gara, eta lasaitasuna lortu nahiko genuke. Taldearen indargunea da edozein jokalarik laguntzen duela, min egiten duena, eta erasoan zein defentsan talde-lanean elkartuta jokatzean oso talde ona garelako esango nuke".

Zaleen babesa ona dela ere nabarmendu du senior kategoriako entrenatzaileak, eta taldearen esku ere badagoela kantxetako harmailak zaletuez betetzea. Hori posible egiteko lanean jarraituko beharko dutela azpimarratu du.

Final laurdenetarako sarrerak Buenuenan eta Taupan salgai

Lau eta erdiko Eusko Label Pilota Txapelketako final laurdenetarako partidarako sarrerak salgai jarri dituzte Arrasateko Buenuena eta Taupa tabernetan, 20 eta 25 eurotan. Partidua azaroaren 1ean 17:00etan izango da, Uarkape frontoian.

Hiru pilota partidu jokatu dira Uarkapeko ekitaldian. Bertan arituko da profesionaletan

debuta egin berri duen Ander Murua arrasatearra B Serieko lau eta erdiko final laurdenak jokatzen, Asier Agirreren aurka. Ondoren, partida nagusia lau eta erdiko Eusko Label Txapelketako final laurdena izango da. Final laurdenetara nortzuk pasako diren asteberu honetan jakingo da, jokatu diren emaitzek erabakiko baitute. Eguneko norgehiagokari hasiera emateko, binakakoan arituko dira Dario eta Gabirondo Zabalaren eta Erostarberen aurka.



Mikel Murillori egindako omenaldian, talde-argazkian. ANE HERRERO







10

€



kupoietan

EROSKI dendetan trukatzeko.*

oparitutako dizkizugu

60€-ko erosketa bakoitzagatik

EROSKI Hipermerkatuetan

*Kupoi bakoitza urriaren 28tik azaroaren 15era bitartean trukatu behar izango da, gutxienez 60 €-ko erosketa bat egitean. Erosketa eta egun bakoitzean, kupoi bat baino gehiago trukatu behar dira, baina kupoi bakoitzerako gutxienezko erosketaren baldintza betetzen bada. EROSKI Hipermerkatuetan 10 €-ko kupoi oparitutako dizkizugu egindako 60 €-ko erosketa bakoitzeko, erosketa bakoitzeko 10 kupoi oparitutako dizkizugu, gutxienez 100€ kupoietan. Sustapena Hipermerkatuetan egongo da Indarain, Galizako eta Leongo Hipermerkatuetan izan ezik. Sustapenean ez dira sartuko bitxigintza, EROSKI gasolindegia, testulaburak, esperientzia paketeak, telefonoen kargak, E-pay barteak (ourreordaintza), erabeleak digitalak, entrega eta instalazio zerbitzuak, sexu bidezko fideltzako sustapenetako produktuek, bidaiagintza kontsultak eta Apple erreferentziak. Kontsultatu gainerako baldintzak sustapenari ohiakiko EROSKI dendetan, bota supermercado.eroski.eus webgunean ere.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30



Leintz Bailarako Txistulari Eguna iaz, Eskoriatzan. GOIENA

Txistua jotzera irtengo dira, hamabosgarrenez

Fandangoak, arin-arinak eta pasodobleak dantzatzeko aukera egongo da Arrasaten zapatuan; 11:00etan abiatuko da herriko kaleetan zehar egingo duten kalejira, eta 13:00etan kontzertua egingo dute Herriko Plazan Txistulari Eguneko musikariek

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Leintz bailarako Txistulari Eguna ospatuko dute, hamabosgarren aldiz, zapatuan. Aurten Arrasate izango da inguruko txistulariak eta txistu-zaleak jasoko dituen herria, eta antolatzaileek haur, gazte, zein heldu gonbidatu gura izan dituzte egunean parte hartzera. Aurreko urteetan bezala "adin askotariko 40 bat txistulari elkartzea" aurreikusuten dutela dio Iñaki Barrenak, Txistulari Eguneko antolatzaileetako batek, eta eurekin guztiarekin batera egingo dituzte ospakizun eguneko bi ekintza nagusiak. 11:00etan hasita, kalejira egingo dute Arrasateko alde zaharrean zehar; hala ere, ez da ohiko kalejira soilik egongo, herriko toki batzuetan geldialdia egingo baitute pieza batzuk jotzeko. Kalejiraren ostean mokadutxo egiteko aukera ere izango dute, eta amaitzeko, 13:00etan kontzertua egingo dute Herriko Plazan. Antolatzaileek aurreratu dutenez, kontzertu-

rako "txistuko pieza ohikoekin, dantzarako eta erromerietarako" abestiekin osatuta dagoen erreperitorioa joko dute. Hamahiru abesti izango dira, eta, besteak beste, pasodobleak, arin-arinak eta fandangoak interpretatuko dituzte. Kontzertua amaitutakoan denak bazkaltzera joango dira. "SUDC elkartekoek prestatu digute bazkaria, eta eskerrak eman nahi dizkiegu hartu duten lan guztiagatik", dio Barrenak.

Behar batetik hasita

Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko txistulariak elkartu eta guztiak zuten "behar batetik abiatuta" sortu zen Leintz bailarako Txistulari Eguna. "Elkar ezagutzeko, erreperitorio

KALEJIRA EGINGO DUTE HERRIKO KALEETAN ZEHAR, ETA KONTZERTU BATEKIN AMAITU

komun bat sortzeko eta betikotasunetik irteteko urrats bat bezala izan zen", Barrenak adierazi duenez. Leintz bailarako herrietako kideez gain, "Oñatiko, Soralezeko eta Altsasuko txistulariak ere gonbidatu ditugu Txistulari Eguneran".

Egoera kezagarria

Txistulari Eguna egiten den hamabosgarren aldia bada ere, Barrenak aitortu du "txistularitzaren egoera nahiko kezagarria" dela: "Gure belaunaldien atzetik ez dator errelebo sendorik; ez da ikusten, behintzat. Alde horretatik, kezkatuta gaudela. Zaletasuna badago, bereziki nagusien artean, baina gaur egungo gazteak ez dira horrenbeste hurbiltzen". Bere garaian txistulariek zuten beharretatik sortutako egun bat izan bazen ere, Barrenak adierazi du "herrira begirako ekintza bat" ere badela gaur egun, eta aprobeztatu gura izan du "herritarrek egunaz gozatzera" gonbidatzeko.

Rap eta tekno estiloetako artistak egongo dira gaztetxean

'Urban festa' jaialdia egingo dute gaztetxean zapatuan, 22:00etan; rap kantariak eta DJak igoko dira oholtzara

J.M.M. ARRASATE

Rap eta tekno estiloetan oinarritutako jaialdia egingo dute zapatuan Arrasateko gaztetxean. 22:00etan hasita, zazpi talde igoko dira oholtza gainera, eta, euren emanaldiak bukatu eta gero, DJen txanda izango da. Sarrera bost euro izango da.

Jon Zubizarreta *Ponpi*-k izan du jaialdia antolatzeko ardura, eta "rap eta tekno musika mugimenduei herrian bultzada ematea" izan da arrasatearraren helburu nagusia. "Txikitatik gustuko izan dudana musika estilo bat da, eta badakit herriko pertsona batzuek ere gustuko dutela musika estilo hau. Arrasate beti egon da punk, rock eta oi! mugimenduei oso lotuta, baina bagaude beste musika estilo batzuk gustuko ditugunak, eta horregatik antolatu dugu underground festibal hau".

Etorkizunera begira mota horretako "beste jaialdi batzuk" antolatzeko asmoa duela ere aitortu du Zubizarretak.

Hainbat tokitako artistak

Dozena bat emanaldi egingo dira, gutxi gorabehera, gaztetxean, eta horien artean Arrasateko artistak egoteaz gain – Even OHC, Ponpi, J. Roper, DJ Fain eta TVT–, Euskal Herriko beste txoko batzuetako eta Madrilgo rap kantariak eta DJak ere igoko dira oholtzara.

Esker hitzak

Zubizarretak eskerrak eman nahi izan dizkie, alde batetik, "gaztetxeko asanbladako kideei, jaialdia antolatzeko emandako erraztasun guztiengatik eta hartutako lanagatik; eta bestetik, Snare Films-i, jaialdiko kartela egiteagatik".

'Postdutarik gabeko gutunak' antzezlanaren Amaia antzokian

Kepa Errastik idatzi eta Getari Etxegaraik zuzendutako antzezlanaren egingo dute zapatuan, 19:30ean, Amaia antzokian. Nerea Ariznabarreta eta Errasti bera izango dira oholtzara, eta hamabost urte kartzelan pasata aske geratzeko ordubete geratzen zaion presoaren bakarriketa taularatuko dute. Sarrerak eskuragarri daude, 10 eurotan.



Antzezlanaren une bat. XAKE PRODUKZIOAK

Peryferykaren 'Larramendi'-rentzat Benito Ansola saria

Joan den asteburuan egin zuten 47. Euskal Zine Bilera, Lekeition, eta bertan irabazi zuen Aramaioko Zihara Etxebarriaren eta Arrasateko Daniel eta Ariana Nespeiraren ekoiztetxeak Benito Ansola saria, *Larramendi* filmagatik. Ia urtebetez ibili ziren filma egiten, eta epaileen aldetik errekonozimendua izatea "apartekoa" dela aitortu zuten.

Eneritz Furyak itxiko du urriko Kooltur egitaraua 31n

Urriko azken emanaldia izango da datorren osteguneko –urriaren 31n, 22:00etan–, eta, Bamms, Kinki Boys eta Keia taldeen ostean, Eneritz Furyak bakar-laria igoko da Arrasateko gaztetxeko oholtza gainera, haren pop abestiak eskaintzera, sintetizadoreak erabilia. Betiko legez, kontzerturako sarrerak 7 eurotan salduko dituzte gaztetxean.

Erosketa-saskira eraman diren produktuek ingurumenean eragina dutela jakin arren, eragin hori nolakoa den eta nola murriztu daitekeen ez da oso ezaguna. Besteak beste, horretarako sortu da Elikiera aplikazioa, galdera horiei erantzuna emateko eta kontsumo arduratsuen ohituren gainera portaera eta konpromisoa hobetzeko.

Zer da Elikiera?

Elikiera tresna digital bat da, gipuzkoarrek kontsumo arduratsuen gainera duten portaera eta konpromisoa hobetzea helburu duena. Gizartean kontsumo-eredu jasangarria eta osasungarria hobetzeko gaitasuna, interakzioa eta sustapena emango ditu aplikazioak. Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturako proiektu bat da, EtorkizunaE-raikiz Misioak 2023 programan sartzen dena, eta honako hauek sustatua dago: Osoigo, EROSKI eta ACEDE-H-Enea Living Lab. **Zergatik erabaki du EROSKIk bertan parte hartzea?**

EROSKIk jasangarritasuna sustatu nahi du bezeroarekin batera. Kontsumo kooperatiba gisa dugun gizarte erantzukizunetik, giltzarria da kontsumitzaileak ohitura osasungarrietan eta jasangarrietan murgiltzea. Tresna digital horrek lagunduko du kontsumitzailea kontzientziatzen erosketa jasangarriagoa egin dezakeela.

Zer emango dio Elikierak EROSKI-ri? Eta EROSKIk Elikierari?

EROSKIk I+G+B saileko taldea arduratu da jakintzaren sektorea eta aholkularitza emateaz elikadura jasangarriaren adierazleak behar bezala aplikatzeko. Horretaz gain, gure bezeroa erdigunean jartzeko ikuspegiarekin konprometituta, iritziak jasotzeko tailerak egin dira supermerkatuetan. Tailer horietan espazio interaktibo bat jarri da, non bezeroaren ahotsa jartzen den guztiaren erdigunean, dituen beharrak, lehen-tasunak eta espektatibak ulertzeko. Haren produktuak eta zerbitzuak hautatzen dituztenekin harreman zuzena izateari lehen-tasuna emanda, EROSKIk erakusten du ez bakarrik konpromisoa duela gardentasunarekin eta irekitasunarekin, baizik eta ekarpen baliotsu horiek etengabe eskaintzen ari dela doitzeko eta hobetzeko, horrela ziurtatzen baitu bezeroen eskariak eta desirak era optimoan estaltzen dituela. Entzuteko ikuspegi proak-



Ainara Llona, EROSKiko berrikuntzaren eta I+G+B finantzaketaren arduraduna, EROSKiko bulegoetan. EROSKI

"Kontsumo arduratsu eta osasungarriaren alde egiten du Elikierak"

AINARA LLONA EROSKIKO BERRIKUNTZAREN ETA I+G+B FINANTZAKETAREN ARDURADUNA

Kontsumo ohituretan eragin eta eredu jasangarriaren alde egitea da Elikiera proiektuaren asmoetako bat, eta bertan lanean dihardu, besteak beste, EROSKIk

tibo horrekin, EROSKIk sineste sendoa islatzen du kontsumitzaileen partaidetza funtsezkoa dela gure kontsumitzaileekin harreman sendoak eraikitzeko.

Beste hainbat erakunderekin elkarlanean gauzatuko da proiektua; gizarrean kontzientzia sortzea da helburua?

"ZIURTATZEN DUGU BEZEROAREN ESKARI ZEIN DESIRAK ERA OPTIMOAN ESTALTZEA"

Elikiera garatzeko, lankidetzan jardun dugu Osoigo Next enpresa ezagunarekin –partaidetza digitalean espezializatuta dagoena– eta ACEDE EAeko etxeko klusterrekin eta bere living lab H-ENEArekin. Elkarlanean ibili garen erakunde guztiok uste dugu elikadurak kontsumitzailearen partaidetza eskatzen duela etorkizuneko izango dituen beharretarako era jasangarrian garatzen jarraituko badu. Eta partaidetza –kasu honetan, kontsumitzaileak– funtsezko tresna da gizarteko beharrak ulertzeko eta aztertzeko.

Erosketa jasangarriaren aldeko apustua da? Zein da EROSKIk horrekiko duen iritzia?

Baliabideak eskasak eta ingurumen erronkak gero eta premiatsuagoak diren testuinguru global batean, EROSKIk aitortzen du garrantzitsua dela enpresa jokabideak hartzea baliabideen

"EROSKIK JASANGARRITASUNA SUSTATU NAHI DU BEZEROAREKIN BATERA"

56 zentimo gehiago ordainduta

Elikiera proiektuak martxan jarri du kontsumo ohitura jasangarriago baten aldeko aholkuak ematen dituen aplikazioa. 2.464 pertsona sartu dira aplikaziora, eta horietatik 732 pertsonak hartu dute parte asteko erosketa-simulazio batean. Simulazio horrek asteko erosketaren alternatiba jasangarriagoak eskaintzen ditu, kostua nabarmen aldatu gabe; izan ere, Elikierak egindako ikerketaren emaitzen arabera, 56 zentimo gehiago ordainduta asteko erosketa-saskia jasangarriagoa izan daiteke. Horrez gain, ikerketako datuen arabera, bertan parte hartu duten herritar gehienek adierazi dute tokiko ekonomia dela hobetzea gehien interesatzen zaien alderdia, eta, emaitzen arabera, 23 zentimoren truke %27 handitu daiteke tokiko produktuen erosketa.

efizientzia sustatzeko, hondakinak gutxitzeko eta berrerabilera eta birziklapena bultzatzeko, esaterako, gure ontziak eta bilgarriak hobetuz. Abian ditugu hondakin gutxiago sortzeko eta sortuta daudenean aprobetxamendua optimizatzeko ekintzak; alde horretatik, gure balio-kateetan ildo horretako neurriak hartzeko pizgarriak ematen ditugu. Bi lerrotan dihardugu lanean: elikagai hondakinak ez sortzeko eta gutxitzeko borrokan eta gure jarduerak sorrarazten dituen hondakin ez-organikoen birziklapenean.



Aramaioko Iturizuri kalean dauden edukiontzia. IDOIA ARANBARRI

Organikoa herrian bertan kudeatzeko asmoa dute

Gorbeialdeko Kuadrillak darama herriko hondakinen kudeaketa, eta, Udalarekin batera, errefusa eta organikoa bereizteko eta errefus gutxiago sortzeko asmoa dute. 2026tik aurrera, asmoa dute errefuseko edukiontziko sarbidea txip bidezkoa izatea

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Hondakin organikoa errefuseko frakzioetik atera behar da, eta horretarako, jatorrian bertan ondo bereiztea ezinbestekoa da. Berez organikoa ez litzateke errefuseko edukiontzira bota behar, eta horretarako, konpostajeko askotariko ekimenen bidez kudeatzea proposatzen dute —etxe bakoitzak bere kon-

posta eginez edo auzo-konposta baliatuz—. Gorbeialdeko Kuadrillarena da Aramaioko zabor kudeaketaren ardura, eta haren helburu nagusia da hondakin organikoa errefusetik bereiztea, etxeko eta auzoko konposta areagotuta, eta Udalak ere bat egiten du asmo horrekin. Gainera, asmoa da 2026ko urtarriaren 1etik aurrera errefuseko

edukiontziko sarbidea txip bidezkoa izatea.

Izan ere, gaur egun errefusen edukiontzietan jasotzen dutena Jundizko bio-konpost plantara eramaten dute, tratamendu mekaniko biologikoko plantara (TMB), eta bertan jasotako errefusa Gardelegiko zabortegira bideratzen dute gero. Azkenean, TMBn jasotakoaren %6 da bir-

ziklatzeko bidean jartzea lortzen dena. 2023an Arabako gaikako bilketa %39koa izan da, eta helburua da 2025erako %55 izatea.

Lege berria eta zerga igoera

2022an hondakinei dagokien 22/07 legea onartu zen, eta horrek dakar zabortegira eramateagatik zerga; herrietako errefusaren kasuan, 30 euro tona metriko. Eta zerga berri hori TMBk kobratzen duen tasan barneratzeko erabakia hartu dute. Beraz, horrek ekarriko du herriko hondakinen zergan igoera bat; zehazki, asmoa da %30eko igoera izatea. Hain zuzen, errefusari dagokion TMBko tasa gaur egun 96,62 eurokoa da etxebizitzako urteko, eta datorren urtean 126,95 eurokoa izango da. Horrek hilerdo ordaindu beharreko kuota 2,39 euro gehiago ordaintzea ekarriko du, gutxi gorabehera. Hori da atzo, eguena, herritarren aurrean Udalak egin zuen bilera irekian azaldu zuena. Udalaren asmoa baita zerga igoera hori eta gainontzeko zergen kopuru aldaketak astelehenean egingo duten batzordetik pasa eta datorren egunean egingo duten ohiko osoko bilkuran onartzea.

2025etik aurrera zer?

Udalak adierazi du errefusa tratatzeko kostuek gora egingo dutela datozen urteotan, MTBko tasarengatik eta zerga berriarengatik. Gainera, errefusaren bilketa zerbitzuko kostuak frakzio guztien artean garestienak dira. Eta diote errefusaren sorrera gutxitu egin behar dela, bilketa maiztasunak ere jaisteko, eta horrek eragina izango luke zergetan ere. Bide berrian, Udala prest dago behar den guztian herritarrei laguntzeko.

Jundizko bio-konpost plantara bisita

Aramaioko hiru zinegotzi eta Alaiak jubilatuen elkarteko idazkari Alex Mendikute izan dira Jundizko bio-konpost planta bisitatzen, herrian jasotzen duten errefus-educiontzietan bildutakoarekin zer egiten den bertatik bertara ikusi ahal izateko.

Mendikute, esaterako, oso harrিতa itzuli zen bisitatik. "Oso gaizki egiten gabilta, herritar guztiek pasa beharko lukete han egiten dutena ikustera. Hobetzeko asko daukagu, eta, horretarako, heziketa oso garrantzitsua da. Gure zaborra edukiontzian sartu eta gerokoaz ahaztu egiten gara. Arazorik ez dagoela pentsatzen dugu, baina zaborrak kalte gutxiago eragiteko ahaleginak egin behar ditugu", adierazi du.

Udalaren asmoa da interesa duten herritarrendako ere horrelako beste bisita bat antolatzea, bio-konpost plantan egiten dutena zuzenean ikusi ahal izateko eta kontzientziatzeko.

GAUR EGUN, JUNDIZEN JASOTAKOAREN %6 BAKARRIK JARTZEN DA BIRZIKLATZEKO BIDEAN

Hiru Txirlo Txapelketa

Etxaguenen jokatu zen joan den asteburuan Euskal Herriko Hiru Txirlo Txapelketako jardunaldia, eta 75 parte-hartzaile izan ziren. Asola-Berriko Ganix Rodriguezek irabazi zuen, zazpi txirlo botata, bigarren izan zen Bittor Astigarraga elgetarra, eta hirugarren Lazturgo Joseba Lazkano gelditu zen. Festa giroa nagusitu zen, hainbat herritar erakarri zituen eta.



IDOIA ARANBARRI

Argia moztuko dute hainbat auzotan eguaztenean

Argindar instalazioaren kalitatea eta fidagarritasuna hobetzeko, aldizkako argi moztetarako egingo dituzte hilaren 30ean, eguaztana, auzo hauetan: Ganztagan, Etxaguenen eta Eguzkierripan. Esku-hartzeak izango dira 09:30etik 12:30ak bitartean eta moztuko duten potentzia 525 kVA-koa izango da. Hornidura abisatu gabe berrezarriko dute.

Argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna da gaur

2025eko Aramaioko egutegia osatzeko argazki lehiaketa martxan da. Gaur, egubakoitza, da argazkiak bidaltzeko azken eguna, eta hainbat modutara aurkez daitezke argazkiak, JPG formatuan: udaletxean edo liburutegian pendrive batean aurkez daitezke edo postaz euskara@aramaio.eus helbidera bidalita. Hainbat sari banatuko dituzte.

Itsarazen egungo egoera, herritarrekin partekatuta

Aramaioko Udal Gobernuak Itsaraz parke eolikoaren gaur egungo egoera zertan den azaltzeko bilera egin du asteon. Herritarrek gai horrekiko jakin-mina erakutsi dute, beste behin, eta Udalak duen informazio guztia helarazi zien bertan izan zirenei

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO Itsaraz parke eolikoaren gaineko azken berriak azaldu dizkie Aramaioko Udal Gobernuak herritarrei. Asier Agirre alkateak gidatu du, eta, herritarren jakin-mina pizten duen gaia izanik, askotariko profil eta adinetako hainbat pertsona izan dira, azalpenak entzun eta gaiaren inguruko zalantzak plazaratzen.

172 metroko diametroa eta 200 metroko altuerako aerosorgailuak izango lituzke parkeak, eta Itsaraz parke eolikoaren proiektua martxan dagoela azaldu du Agirrek bileran zehar.

Udala, kontra

Parke eolikoa gauzatzearen ardura duten enpresen tramitazioak aurrera doaz, eta lurjabeen gutunak ere iritsi zaizkiela adierazi dute. Udalak proiektuarekiko aurkakotasuna erakutsi du, eta euren esku dagoena egiten dabilela azaldu. Hala ere, bi aldean errotmoak "oso ezberdinak" direla aitortu du Agirrek:

"Diru asko joan zaigu dagoeneko borroka honetan. Eta guk garbi daukaguna da proiektu honi ezetz, horrela ezetz. Orduan, horren aurrean aztertuko ditugu dauzkagun aukerak. Plan berezia guk ez dugu uzten, ez dugulako ikusten, baina ingurumen inpaktua onartzen baldin badiote eta interes orokorreko proiektu bat dela onartzen baldin badute, hor guk eskumenak galduko ditugu. Baina haiek hori lortu artean, guk jarraituko dugu gurea defendatzen".

Bileran zehar, "Estatuan energiaren gaiak jasaten duen tratamendua" salatu zuten, zentzurik ez duela adierazita, eta proiektuak Aramaiorentzat onurak ekarriko dituela gezur-

ALKATEAK ADIERAZI DU PROIEKTUAK EZ DIOLA ABERASTASUNIK EKARRIKO ARAMAIORI

tatu, Abiadura Handiko Trenaren lanekin "berdina" esan zela gogorarazita: "Argindarra leku batean sortu eta beste batera eramateak ez du zentzurik. Gasteizen ipintzen dituzte eguzki plakak eta Zierbenara eraman, Zaragozan sortu energia eta Gasteizera ekarri, Aramaion sortu energia eta Abadiñora eraman... Bien bitartean, jende pila bat diru mordo bat irabazten dabil gure kontura, eta ez dena egia da eolikoek hona aberastasuna ekarriko dutenik".

Herritarren artean kezka sortzen duen gaia da eta Aramaio Bizirik herri plataformaren bidez hainbat mobilizazio eta ekimen egin dituzte, esaterako. Agirre pozik dago herritarren inplikazio mailarekin. Eta eguaztenean egingo den bilera herritar baten parte-hartzearekin amaitu zen; "Espainiako Estatuan estilo horretako hainbat proiektu" atzera botatzen dabilzala aipatu zuen, eta esperantza zantzu bat bada goela azpimarratu.



Argazkian bezala, askotariko postuak jarriko dituzte bihar. GOIENA

Jubilatuen Eguna ospatuko dute bihar, askotariko postuak jarrita

Nardeaga kalean herrikoen zein kanpokoek hainbat postu jarriko dituzte eta animaliak ere egongo dira

A.T.G. ARAMAIO

Urtero bezala, urriko azken zapatuan, hau da, bihar, ospatuko da Jubilatuen Eguna. Produktuen eta animalien azoka egongo da 11:00etatik 14:30era bitartean Nardeaga kalean, eta bertan hainbat postu jarriko dituzte, herrikoenak zein kanpokoek. Animaliak ere izango dira: as-toak, behorrak, behiak eta oiloak egongo dira.

Meza eta bazkaria

12:00etan izango da meza, Bizente Goikoetxea abesbatzaren parte-hartzearekin, eta ondoren,

13:00etan Lagun Artean dantza taldearen eta Papargorri abesbatzaren erakustaldiak izango dira. Ibarra elkarre gastronomikoen salda eta mokadutxo batekin hartuko dituzte hala nahi duten jubilatuek, eta herriko trikitilariak eta dantzariak giroa dituzte kaleak. 14:30ean izango da jubilatuen bazkaria.

Omenaldia

Aurtengo omendua Arraga auzoko Fermin Etxebarria Elorza eta irailaren 27an 100 urte bete zituen Suñako Eustakia Agiriano Zuazua izango dira.



Aramaioko alkate Asier Agirre aurkezpenean, herritarrei Itsaraz parkeari buruzko argibideak ematen. GONTZAL BELATEGI



'AZKOITIAGUKA.EUS'

Josu Beitia azkarrena Urrakin

Joan den domekan Urrakiko Igoera irabazi zuen gaur egun Azkoitian bizi den Josu Beitia aramaioarrak, Speedcar GTR EVO monoplazarekin. Proba hartan lortutako denborak tarteko, Euskal Herriko txapela ere Beitierendako izan da. Denboraldi hasiera nahiko kaskarra izan zuen, autoarekin arazoak izan zituelako, baina amaiera ona eman dio.

"Bizipenez beteta" itzuli dira Poloniako topaketatik

Astebetetz izan dira Aretxabaleako zortzi gazte Wrocław hirian, Neska Gazteen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimenean parte hartzen; feminismoaren bueltan jardun dute lanean, poloniarrekin eta alemaniarrekin batera

Mirari Altube ARETXABALETA

Kontu mordoa ikusita, ikasita eta bizita itzuli dira Erasmus+ programaren baitan Polonian egindako topaketatik Kurtzebarri institutuko DBHko ikasle diren Zaraitzu Lazkano Goros-

tiza, Uxue Fernandez Lezeta, Ane Aguilar Olabe, Doltza Lizarriturri Etxenausia, Nahia Pasamar Rodriguez eta Izaro Urkia Garcia eta haiei lagun egin dieten Alaitz Mendieta Altona eta Amaïur Belategi Ma-

dina hezitzaileak. Urriaren 12tik 20ra bitartean elkartu dira Poloniako bertako eta Alemaniako beste horrenbeste neska gazterekin. Turkiakoak eta Palestinakoak ere gonbidatuta zeuden, baina ez zuten joaterik izan.



Polonia ezagutzeko taldeak egindako bisita bat. ALAITZ MENDIETA



Programan parte hartu duten gazteak elkartuta, lanketa baterako. A.M.

"Bagenekien palestinarrentzat oso zaila izango zela bertaratzea, herrialdearen egoera kontuan izanik. Bideo-dei bidez harremantzea zen gure gogoia, baina hori ere ez egitea erabaki zuen hezitzaileen taldeak. Hala ere, kamiseta batzuk egin genituen haiei emateko. Turkiarrei, ostera, ez zieten bisarik eman", azaldu du Mendieta.

Kultura ezberdinak

Aisialdirako eta lanerako tartea izan dute: "Wrocław hirian egon gara eta ikusi ditugu udaletxea, katedrala, alde zaharra, emakume etxea... Piszarzowice herrixoan, ostera, mendiak, eskola eta krishna kultura ezagutu ditugu". Bisita horiek elkar eza-

gutzeko eta harremanak estuzteko aitzakia izan dira: "Oso ondo moldatu gara geure artean. Ohitura ezberdinak ditugu, baina azkar egokitu ginen horietara eta hizkuntzarekin ez dugu izan arazorik. Harreman politak sortu ditugu batzuekin".

Lanean ere jardun dute; feminismoaren bueltan, hain zuzen ere: "Gure herrian zein baliabide ditugun eta nahi ditugun azaldu genien. Polonia oso herrialde katolikoa da, eta, programan parte hartu duen taldea herri txiki batekoa dela kontuan izanik, feminismoaz ez zuten ideia handirik. Beraz, saiotxo bat prestatu genuen estereotipoen eta feminismoaren bueltako kontuen gainean hitz egiteko".

Eman bakarrik ez, jaso ere egin dute besteengandik: "Kultura ezberdinak ezagutu ditugu, bizitzeko modu ezberdinak. Baita haien hizkuntzetako poloniera eta alemana-berba batzuk ere". Bizi izandakoak norberak duenari balioa eman dio: "Errealitate oso desberdinak bizi ditugula ikusi dugu, eta zorte handia dugula hemen bizitzeaz". Gaineratu dute "sekulako pribilegioa" izan dela halako topaketa batera joan ahal izatea: "Asko ikasten da, eta bizipenez beteta itzuli".

Ikastetxean eta gaztelekuan horren guztiaren berri emateko gogoz daude, baina oraindik ez dute datarik zehaztu.

EAJk dio Udal Gobernuak ez duela agintaldiko proiekturik aurkeztu

Kezkatuta dago, urte eta erdi pasatu ondoren "proiektu estrategikoen plangintzarik ez dagoelako"

M.A. ARETXABALETA

Euzko Alderdi Jeltzalearen udal taldea kezkatuta dago: "Agintaldiko proiektu estrategikoen plangintzarik gabe jarraitzen dute urte eta erdi pasatu ostean".

Hauxe adierazi dute prentsa-ohar bidez: "2024ko maiatzaren 23an, agintaldiaren urteurrenarekin batera, prentsa-oharra kaleratu zuen Udal Gobernuak agintaldiko estrategia eta proiektuak lantzen jarraitzen zuela jakinaraziz. Aldi berean, herritarren eta

herriko eragileen ekarpenak jasotzeko dinamikak martxan jarriko zituela gaineratzen zuen, eta prozesu horren ondorioz landutako plana urriaren 15ean egingo zela publiko".

Ekarpenak jasotzeko dinamika horiek "eman dutenaren berririk" ez daukate oraindik, urriaren erdia pasatu bada ere: "Ez dakigu noraino iritsi diren dinamikak. Argazki garbirik izan gabe jarraitzen dugu: zein proiektu, egutegiak...". Eta konpromisoak hartu eta eza-gutarazi beharra dagoela gai-

neratu dute, "herritarrek mezezi" dutela iritzita: "Komentua, frontoia, eskola berria, kiroldegiaurrealdeko berdegunea, Lausitta... Proiektu asko daude jokoan eta egutegi garbirik gabe jarraitzen dute".

2025eko aurrekontuari begira

Urteko azken hiruhilekoan sartuta, 2025eko udal aurrekontua lantzen hasteko garaia iritsi da, eta, horrekin lotuta, EAJko kideek diote "partida batzuk zabaltzetik harantzago" joan beharra dagoela: "Edozein kudeaketatan bezala, ziurgabetasunak daude. Aurtun, aurrekontu egonkortasun legeak dakarren gastu muga indarrean sartzen da, eta horrek ere eragina izango du, baina horiek kudeatzea da gobernu orok egin beharreko lana".

NIRE USTEZ

OIER ZUMARRAGA ARANBURU

Etxebizitza: gizarte osoaren amesgaiztoa

Etxebizitzaren afera denon ahotan dagoen gaia da azken boladan. Gizarte osoa astintzen duen problematika den heinean, manifestazio andana izaten ari da han eta hemen.

Alokairuen prezioak maximo historikoetan, hipotekak lortzea gero eta zailago, eta bitartean, soldatak blokeatuta. Alokairu turistikoaren ugartzeak eta inbertsio funtsen espekulazioak eraman gaitu egoera honetara, eta gizarteak "nahikoa da" esan du aho batez.

Sabai bat izateko, gaur egun, dirulaguntzak nahikoa ez direla dirudi. Egiturazko neurriak hartzea nahitaezkoa da. Etxebizitza sozialen eskaintza areagotzea, hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea eta alokairuen prezioak arautzea, esaterako.

Gainera, azkenaldian, pisua partekatzea gauza polita eta aberasgarria dela entzuten dugu maiz hedabideetan. Baina ez gaituzen engaina: diskurtso hau etxebizitzaren arazo larria estaltzeko saiakera baino ez da.

Etxebizitza duina izatea ezin da amesgaiztoa izan, oinarritzko eskubidea baizik.

Kukumarroak prestatzen hasteko sasoi iritsi da

Datorren asteko Gaba Baltza girote aldera hainbat kontu gertatzen dihardu azken egunetan Loramendi elkarteak, eta, aurreko urteetan legez, ihes-gela eta urriaren 31ko kale-eskea eta ekitaldia izango dira protagonistak

Mirari Altube ARETXABAETA

Arimen Gauaren bueltako ohi-tura zaharrak berreskuratzen eta berrasmatzen dihardu Euskaltzaleen Topaguneak azken urteotan, eta haren bueltan Loramendi elkarteak ere bai, helburua izanik jaia euskaratik eta euskaraz bizitzea. Horregatik, urriaren 31 gerturatzeaz bat, ekitaldi sorta antolatu dute.

Ihes-gela hilaren 29tik

Sekulako arrakasta izan du azken urteotan udaletxe zaharrean prestatutako ihes-gelak, eta aurtun ere ez du hutsik egingo. "Badakigu jendea horren esperoan dagoela, eta ea haien ikusmina asetzen dugun", adierazi du Ainhoa Sanchez dinamizatzaileak. Urriaren 29an hasi eta azaroaren 8ra bitartean zabalduko dituzte, arratsalde guztietan: 17:30ean hasita hiru saio izango dira. Azaroaren 1ean, jaieguna izanik, goizean ere izango dira bisitak. Aldez aurretik izena ematea eskatu dute, eta horretarako prestatutako galdetegia bete beharko da. Iaz legez, bi eratako txandak egongo dira. Batetik, familiendakoak; 8 eta 14 urte artekoendako gaztetxoak heldu batek lagun eginda sartu beharko dute, bost laguneko taldeak osatuta. Eta bestetik, 15 urtetik gorakoendakoak; bakarrik sartuko dira lau taldeetan. Prezioa da 20 euro taldeko.

Tailerra eta eskea

Umeentzako tailerrak antolatu dituzte urriaren 30erako: kukumarroak prestatuko dituzte, hurrengo egunean behar bezala moztarotuta irten daitezen eskean. "Moztarotzeko ohitura gero eta zabalduago dago eta guk geureari eustearen alde egin dugu. Horregatik, kukumarro jantzia zelan atondu erakutsiko diegu: alkandora koadroduna; aurpegian zapi zuria begietarako bi zulorekin eta irribarra



Arimak, Herriko Plazan, iazko ikuskizunean. MIRARI ALTUBE

marrastuta ahoan; eta lastozko kapela". Ludotekako umeekin eta hizkuntza errefortzuetan dihardutenekin landuko dute gaia eta egun horretan ez dela zerbitzurik egongo gogorarazi dute, tailerra bakarrik.

Ohi legez, kale-eskea hilaren 31n izango da, eta komertzioetara bisita egingo dute neska-mutikoei. Aurtun arautu egin gura izan dute: "15-20 minutuko txandak jarriko ditugu establezimendu bakoitzean; hala adostu dugu merkatariekin, lan-karga gehigarri ez emate aldera". Ohitura horrekin bat egingo dutenek kartela izango dute dendaren aurrealdean. Umeek, oster, hainbat baldintza bete beharko dituzte gozokiak jasotzeko: "Kukumarro jantzia izango dute soinean, eta ezinbestean abestu beharko dute Gaba Baltzerako gertatutako koplak. Gainera, ezingo dira sartu komertzio barrura, kanpoan abestuko dute eta dendariari han itxarongo diote".

Herriko kaleak eta txokoak apaintzera ere gonbidatu dituzte herritarrak egun horretan: "Ondoren, argazkiak atera eta bidali Loramendira, sare sozialan zabalduko ditugu-eta gero".

Eskearen ondoren, Arimen Gaua girotzeko ekitaldia izango da Herriko Plazarako eskaileren bueltan. Jaiki elkarteko dantzarien laguntzarekin prestatuko dute ikuskizuna.

Kontakizun ilunak

Kontakizun ilunen lehiaketa ere antolatu du Loramendik. Helduei bideratutako deialdia da eta urriaren 28ra bitartean aurkeztu beharko dira. Edozein formatutan idatzitako narrazioak onartuko dituzte: poesia, mikro-ipuina, bertsoa...; gehienez, orri batekoak. Loramendiren bulegora eroan beharko dira lanak, edo postaz bidali: kaixo@loramendielkarte.eus. Saria izango da Aretxarte merkatarien elkarteko establezimenduen artean gastatzeko bonu bat.



Smooth Trip taldea emanaldi batean. SMOOTH TRIP

Smooth Trip taldeak abesti ezagunekin beteko du Arkupe

Mikel Zamora aretxabaletarra buru dela, The Police, Ken Zazpi eta Radiohead taldeen kantuak joko dituzte bihar

M.A. ARETXABAETA

Arrasaten, Gasteizen eta Errioxa aldean hainbat emanaldi egin ostean, etxera, Arkupeko oholtzara, etorriko da Smooth Trip taldea. Aurtun sortu du proiektua Mikel Zamora abeslari aretxabaletarrak eta hirukotea eratu turkiar jatorriko Selcuk Senyurt aretxabaletar perkusio-jolearekin eta Kolonbiatik etorritako German Muñoz arrasatear gitarristarekin. Abesti ezagunen bertsioekin osatutako errepertorioa aretxabaletarrei erakusteko gogoz izango dira, bihar, urriak 26, 20:00etan.

Talde ospetsuen abesti ezagunak abestuko dituzte; The Police, Ken Zazpi, Radiohead, The Eagles eta Jarabe de Paloren bertsioak, besteak beste. "Oso gogotsu gaude, baina kanpoko emanaldiek baino ardura handiagoa sorrarazten digu", adierazi du Zamorak. Aurretik, ekainean, Mendiolako Areano landetxean "gertukoendako" kontzertua egin zuten, baina badaki oraingoa "ezberdina" dela. Dena den, ez dira musikari hasiberriak eta Zamorak berak, esaterako, 2022an diskoa kaleratu zuen kantu propioekin.

Txalaparta ikastaroa antolatu du Sutunpa taldeak azarorako

Aretxabaletako Sutunpa txalaparta taldeak ikastaroa antolatu du azaroko lau egunetarako. Kuartelean elkartuko dira, 18:00etatik 19:30era bitartean, azaroaren 7an hasita. Izena emateko epea zabalik dago, Loramendi elkartera jota: Durana kaleko bulegoan edo 685 75 67 29 telefono-zenbakian. Azken eguna hilaren 5a da eta ikastaroaren prezioa, 20 euro.


Herriko txalapartariak eta Arientzako kanpai-jole eskolako taldekideek bat eginda sortu dute Sutunpa, eta egunetan elkartzeko dira entseguetarako. Herrian badagoela txalaparta jotzen ikasteko gogoia atzemandako antolatu dute orain ikastaroa.

Jabetze Eskolaren saioetan izen-emate epea bukatze da

Jabetze Eskolak bi ikastaro eginiko ditu urtea bukatu aurretik. Azaroaren 21ean lodifobia izango dute langai, hainbat ertzetatik jorratuta: historian zehar eraikitako genero rolak, gaur egungo autopertzepzioa, autoestimua, indarkeria sinbolikoak...

Bestetik, abenduaren 28an eta 29an autodefentsa feminista saioak izango dira. Helburua da nor bere buruarekiko konfiantza lantzea eta erasoei aurre egiteko oinarriko teknikak ikastea.

Bi ikastaroetarako alde aurretik eman behar da izena, helbide honetara idatzita: berdintasuna@aretxabaleta.eus. Azken eguna urriaren 31 da.



Iñaki Agiriano, asteon, Eskoriatzako bibliotekan, erretiroa hartu berri, Udalak egindako oparia eskuetan duela. IMANOL BELOKI

"Komunitatea ardatz, zubi-lanak egin behar ditu bibliotekariak"

IÑAKI AGIRIANO JAUREGI ESKORIATZAKO LIBURUZAIN OHIA

40 urtez Eskoriatzako liburuzain izan denak erretiroa hartu berritan, bibliotekako hasierak izan ditu gogoan; baina baita etorkizuna ere

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iñaki Agiriano (Eskoriatza, 1961) Eskoriatzako bibliotekaria izan da 40 urtez, eta, liburutegiko arduraz izateaz gain, irakurzaletasuna sustatzeko zenbait ekintzatan aritu izan da: Literatura Juntaixe, Irakurketa Klubak, Literatura Solasaldiak eta beste hainbat. Liburuak irakurtzeari utzi gabe, erretiroa hartu berri du; liburuzain gisa izan dituen eginbeharrez eta bibliotekaren bilakaeraz jardun du eskoriatzarrak.

Erretiroa hartuta, baina irakurketa utzi gabe, seguruenez; zer ari zara irakurtzen orain?

Hiru liburu ari naiz irakurtzen aldi berean. *Nomadas* liburua-ekin ari naiz, *Babilonia* irakurri berri dut... Nobelak eta

"INFORMAZIO GEHIAGO TRAFIKATZEN DA ORAIN, ONERAKO ETA TXARRERAKO"

saiakerak ditut gustuko, eta idazle asko. Atxagaren *Xola* bildumak, esaterako, sekulako maila literarioa du; Juan Kruz Igerabideren poesia apartekoa iruditzen zait; oraintsu, Karmele Jaioren azken nobelak ere oso gustura irakurri ditut... Irakurle, berriz, Robert Louis Stevenson-ek egin ninduen, *Atxor uhartea* eta *Botilako deabrua* liburuekin. Ipuin haiek izugarri gustatu zitzaizkidan gari hartan, eta norbera irakurle sentimenduen bitartez egiten da; barruan

zerbaitek ukitzen bazaitu, horrekin geratzen zara.

Eskoriatzako bibliotekan nola hasi zinen?

Luis Ezeizan nenbilela, 13-14 urte nituela, Don Andres Fernandez irakasle eta zuzendari zela ireki zen Jose Arana eskoletan zegoen biblioteka, eta gu zortzigarren mailan geunden. Ikasle batzuk joan ginen liburuak fitxak egiteko, eta hortik hamar urtera hasi nintzen lanean. Filosofoiako lizentziatura bukatu berri, 1984an soldaduska aste-betez egin nuen. Euskaldunok, katalanek eta Asturiaseko gehienek zerbait genuen; mediku ezagun baten bitartez libratu egin nintzen. 1985ean, Mari Carmen Otxo-aizpurua, irakasle zenak eta Jose Arana eskoletan bibliotekaren arduraz ere bazuenak, utzi egin behar zuen, eta bertan lanean hasteko aukera irten zitzaidan, egunean hiru ordu inguru egiteko.

Ordutik hona, hiru kokapen izan ditu bibliotekak, eta zu hiruretan.

1985eko azaroaren 1ean hasi nintzen herriko lehenbiziko bibliotekan, Fernando Eskoriatza plazako Jose Arana eskoletan. Gero, 1987an, gaur egun kultura etxea dagoen eraikinera lekualdatu zuten, eta, ondoren, ikastolako eraikina Ganuza etxera eraman zuten, Edorta Zubizarreta alkate gisa Udalera sartu berri zela, eta 2022ko otsailean inauguratu zuten gaur egun ezagutzen dugun liburutegia.

Zein da liburuzain baten eginbehar nagusia?

"Liburutegia komunitatea eriteko lorategia da", esaten zuen Gonzalo Oyarzun bibliotekari txiletarrak, eta metafora gisa asko gustatzen zait. Bibliotekari batek argi izan behar du zein komunitatetan bizi den eta komunitate horren beharrak zeintzuk diren. Hasieran, lau liburu zahar zeuden Eskoriatzako liburutegian; kultura etxeko eraikineran joan ginenean liburu ugari iritsi ziren, eta nire arduraz nagusia fondo bat sortzea zen, gero ondare kultural hori herritarren eskura jartzeko. Biblioteka ondasun kulturala gordetzeko,

"GIZARTEAK ESKATZEN DUENAREN ARABERA, ZERBITZU BERRIAK ESKAINI BEHAR DITUGU"

mantentzeko eta zabaltzeko espazioa den unetik, aldatzen joan dira haren eginbeharrak.

Digitalizazioa iritsi zenean aldaketa izugarria izango zen.

Itzela izan zen. Lanean hasi nintzenean egurrezko bi kaxa genituen: batean erabiltzaileen fitxak zeuden eta bestean hartutako liburuen fitxak gordetzen genituen. Liburutegi berrian idazteko makina lortu genuen, baina iraultza nagusia digitalizazioarekin iritsi zen. Ordenagailu pila bat jarri ziren, eta beti zeuden hartuta, horren beharra zegoelako. Lan egiteko modua ere aldatu da; informazio gehiago trafikatzeko da, onerako eta txarrerako, eta horrek guztiorrek ekarri du alde iluna ere. Telefono mugikorrarekin irakurketa aldatu egin da; 50 urte-tik gorako erabiltzaileak dira, batez ere, liburuak hartzen dituztenak irakurtzeko. Haurrek eta gazteek, bestalde, umetatik mugikorra izan duenak ezberdin irakurri du. Irakurketa mota ezberdin horrek eragina izan behar du etorkizunean. Izan ere, bideo bat ikustea bada irakurketa modu bat, baina ohiko irakurketa eta testu bat lantzeko garaian gabeziak agertuko dira; kalitatean jaitsi egin da, salbuespenak salbuespen.

Irakurketan aldaketak izan arren, onurak ere ekarri zituen digitalizazioak, ala?

Garapen handia izan zen. Euskadiko biblioteka guztiak sare batean daude, eta sare horrek ahalbidetzen digu edozein liburu edozein lekutatik ekartzea. Zerbitzua asko hobetu da, eta hori geratzeko etorri da. Hurrengo erronka adimen artifiziala izango da.

Etorkizuna nola ikusten duzu?

Beste etapa berri batean sartu behar dugula uste dut. Orain, mugikorrean informazioa eskura izanda, herritarrek ez datoz hainbeste informazio bila. Uste dut komunitatearen beharrak jarraituz elkartzeko guneak sortu behar direla. Bibliotekan jendea elkartzeko, tailerrak egiteko, zitak, te baten inguruan... Orain artekoa moldatu beharra dago, eta bibliotekariak zubi-lanak egin behar ditu. Esku onetan utzi dut liburutegia: Oskar Loiti bertan geratuko da eta aurki beste langile bat hasiko da. Ea elkargune horiek sortzen ditugun eta biblioteka bizia dugun.

Haixe Bolada topaketa, musika kalera ateratzeko

Lehenengoz, kaleko musika topaketa antolatu dute Eskoriatzako Ad Libitum txarangako kideek zapatu honetarako. Hain zuzen, bidelagun izango dituzte egun osoko jaialdian Aguraingo banda eta Zumaiako Zumai txarangako kideak

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** Eskoriatzako Ad Libitum txaranga musika kalera ateratzeko helburuarekin sortu zen duela urtebete, eta hori bultzatzeko antolatu dute Haixe Bolada kaleko musika topaketa. Jai giroa herriz herri sustatzen diharduen bertako musikari taldearekin batera Aguraingo banda izango da Eskoriatzan, baita Zumaiako Zumai txaranga ere.

Egun osoko topaketa

Zapatu honetarako egitaraua honako hau izango da: 10:00etan, Ad Libitum txarangaren kalejira hasiko da; 12:30ean, berriz, Aguraingo musika bandak ekingo dio kalejirari, poteo musikatua eginez; eta, amaitzeko, 18:30ean, Zumai txarangaren emanaldia izango da. Jaia antolatzeko tabernen laguntza eskertu dute antolatzaileek.

"Aguraingo taldea banda bat izan arren kalean ere jotzen duen taldea da, ohitura daukate, eta pentsatu dugu euren eredu ikustea ondo legokeela, zerbait ezberdina delako. Gure oinarrietan ere hala dugu jasota: musika kalera ateratzea eta baita estilo ezberdinak jorratzea ere; beraz, haiek gonbidatu proposak dira. Haiekin batera Zumai txarangakoak izango ditugu



Ad Libitum txarangako kideak joan den astean, Arrasaten. AD LIBITUM TALDEA

gurekin. Zumaiatik datorren txaranga taldea kaleko estiloa jotzen duen txaranga bat da, eta giro ederra jarriko dutelakoan gaude. Bi taldeak esperientziadunak dira eta, giro ona sortzeaz batera, haiengandik ikasteko aukera izango dugulakoan gaude", adierazi du Iñigo Beitiak, Eskoriatzako Ad Libitum txarangako kideak.

Eredu berrietatik ikasteko

Horixe da Ad Libitum txarangako kideek topaketa hori antolatzearen helburua: "Eredu

berrietatik ikasi nahi dugu, eta musika herrira ekarri, gainontzeko taldeek egiten dutena ikusteko eta ikasteko". Horrez gain, musika kalera ateratzea ere garrantzitsua dela adierazi dute taldekideek, eta zapatu honetan Eskoriatzan 60 musikari inguru izango direla adierazi du Beitiak. "Aguraindik 30 laguneko taldea izango dela aurreikusten dugu, eta Eskoriatza eta Zumaiako taldekoak batuta hogeita hamar izango gara; hamabost musikari inguru talde bakoitzean".

Gorosarri taldekoen soka dantza, Gaba Baltza ospatzeko

Gaba Baltza datorren egunean ospatuko dute, eta mozorroak prestatzeko tailerra izango da gaur Tortolis ludotekan. Egunerako prestatutako ekintzen artean, azpimarratzekoa da 19:00etan Gorosarri dantza taldekoen saioa izango dela, iaz moduan. Mozorrotuta soka dantza bat egingo dute 55 dantzari parte hartuko duten saioan.



Iaz, Gaba Baltzean. G.D.T.

Zero taldea Inkernu tabernan arituko da urriaren 31n

Udako emanaldiei amaiera emanda, bueltan dira Inkernu tabernako kontzertuak. Hain zuzen ere, urriaren 31n Zero taldearen kontzertua izango da, 22:00etan. Punk-rock estiloa jorratzen dute RIP, The Kagas, Piztupunk eta Begitruk taldeetan aritutako musikari esperientziadunek, eta emanaldi bizia aurreikusten dute antolatzaileek.

LEINTZ GATZAGA | 19



Desfibriladorea Gatzagako kultura etxeko eraikineko sarreran. AIORA ELKOROBARRUTIA

Desfibriladorea gatzagarren eskura jarri du Udalak

Herritarrei nola erabiltzen den irakasteko ardura hartu dute Eneka Zankada eta Txema Fernandez herritarrek

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Kanpo desfibriladore automatizatua jarri dute Leintz Gatzagako kultura etxeko eraikineko sarreran. Herrian desfibriladore bat jartzeko beharra ikusita, jartzea erabaki du Gatzagako Udalak, baina, horrekin batera, formakuntza saioak ere eskaini nahi dituzte, gatzagarrek aparailua erabiltzen ikas dezaten. Zapatu honetan egitekoak ziren arren, azaroan egitea aurreikusten dute, baina data eta ordu zehatza zehazten dutenean jakinaraziko dietela herritarrei azaldu dute.

Saioak haur eta helduentzat

Eneka Zankada eta Txema Fernandez gatzagarrek eskainiko dituzte herritarrentzako formakuntza saioak. Biek egiten dute edo egin dute lan osasun arloan, eta helduentzat zein haurrentzat egingo dituzte saioak. "Ez da berdina haurrei edo helduei erakustea, eta bientzat eskainiko ditugu saioak, euskaraz zein gazteleraz. Larrialdi baten aurrean zer egin behar den eta desfibriladorea nola erabiltzen den irakastea izango da asmoa", adierazi du Eneka Zankada gatzagarrek.



IBAN URRETA

Gatz Bidearen abestia gogoan

Iban Urreta artista aretxabaletarrak egindako lan berria Gatzagako pilotaleku atzeko paretan dago. Bertan egindako horma-irudian herriko arku bat marraztu du Urretak, duela bi urte sortu zuten Gatz Bidearen gaineko *Hegoko iparra* abestiaren noten partiturrekin batera, antzinakoa eta oraina batzen duen irudi bat irudikatu guran.



Joxe Mari Rubio eta Felipe Uriarte eguaztanean Aroztegi aretoan erakusketa prestatzen. JOKIN BEREZIARTUA

Bergarako ehungintzaren industria: nostalgikoa eta berria, aldi berean

Oihalgintzaren industriak garrantzi handia izan du Bergaran, eta Joxe Mari Rubiok eta Felipe Uriartek ehungintzaren prozesua jasotzen duten zazpi makina eraiki dituzte, "eskala txikian"; erakusketa gaur inauguratuko dute, Aroztegin, ZTB jardunaldien baitan

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak abian dira Bergaran eta horren baitan inauguratuko dute gaur, 12:00etan, Aroztegi aretoan Bergarako Joxe Mari Rubioren eta Felipe Uriarteren *Ehungintza prozesua* izeneko erakusketa; azaroaren 10era arte egongo da ikusgai. Ia bi mendez izan da Bergararen motor ekonomiko eta sozialetako bat ehungintzaren industria, eta Rubiok eta Uriartek oihalgintzaren prozesua ikusarazi nahi izan dute proiektu horren bidez. "Urte asko eskaini dizkio Bergarak ehungintzaren industriari, eta orain ez da geratzen hango makineriaren arrastorik. Museo batean kontserbatu zitezkeen, baina desagertu egin da", dio Uriartek. Elkarlanean makinaren bueltako hainbat proiektu egin dituzte bi bergarrek,

"eskala txikian" –besteak beste, aerosorgailua eta lurrun-trena–.

Kotoitik oihalera

Herrian ehungintzaren inguruko makinari ez dela geratzen azpimarratu du Rubiok, eta horregatik erabaki zutela proiektu horrekin hasia. Prozesuaren azken fasetik hasi ziren, ehungailutik, eta ondoren beste sei makina egin dituzte, kotoia hartzen den unetik oihala egiten den arteko prozesu osoa kontatzeko. "Ehungailua egin genuen lehendabizi. Geroago, batzar bat eduki genuen eta han Andoain-

"KOTOITIK HASITA BUKAERARA ARTEKO PROZESU OSOA KONTATU DUGU"

JOXE MARI RUBIO

go edo Villabonako emakume batekin egin genuen topo. Bergarako ehungintza industriari buruzko informazioa nahi zuen, ikerketa bat egiteko. Hari entzunda, falta zitzaizkigun makinak egitera animatu ginen. Ehungailua prozesuaren bukaera da. Erakusketan kotoitik –zuntzak luzatetik– hasi eta bukaerara arteko prozesua kontatu dugu", azaldu du Rubiok, tailerrean erakusketako makinei azken ukituak eman bitartean.

Jatorria gogora

Biek berretsi dute oihalgintzaren industriak Bergaran zenbaterainoko garrantzia izan duen, baina iruditzen zaie herriko gazteendako, esaterako, zerbait berria izan daitekeela. "Erakusketak balio dezala izan duguna eta desagertu dena baloratzeko. Herriko historia eta kultura da;

batez ere, gazteriarendako", dio Uriartek. "Bergaran ez da jende asko egongo prozesua ezagutu duena. Ehungintza industria aspaldikoa da, eta baten batzuek ezagutuko dute, baina beste batzuek ezagutuko izango da; gazteendako. Behintzat, jakin dezatela nondik datorren oihala, Bergaran zer-nolako garrantzia izan duen eta zein zen prozesua", azaldu du Rubiok.

Makineria martxan

Ikasketei dagokienez, Uriartek telekomunikazio aldetik jo bazuen ere, Rubiok izan du ehungintzarekin lotura: "Nire ikasketak Elementalean izan ziren eta han ikasi nuen, handik dator guztia". Bertatik bertara ezagutzen du oihalgintzako prozesu osoa, baina dio ezberdina izan dela makinak egitea: "Nik badakit zein den prozesu osoa, baina beste gauza

"ERAKUSKETAK BALIO DEZALA BERGARAN IZAN DUGUNA BALORATZEKO"

FELIPE URIARTE

bat da makinak egitea plano bari eta zeure burutik aterata... Horrela hasi ginen makinak egiten, eta orain animatu dira gure makinak ateratzera. Laboratorium museoko zuzendari Rosa Errazkin oso pozik dago".

Hala, inaugurazioan martxan jarriko dituzte egindako lanak, baina Uriartek gehitu du ezin dituztela denbora osoan, piztuta izan haria amaitzen delako eta bobinak martxan jartzea garestia izan daitekeelako.

Bi bergarrek egindako makineriaz gain, Algodonerako eta Elementaleko irudi eta laborategiko tresneriak, katalogoak eta zigiluak ere ikusgai egongo dira. Era berean, ikus-entzunezko bidez kontatuko da zer izan zen ehungintza, eta bi egileek ere azalduko dute nola egin duten erakusketako makineria, zer egiten duten eta nola egiten duten lan.

Erakusketa gaur inauguratuko dute, 12:00etan, eta ordutegi honen barruan bisitatu daiteke, azaroaren 10era arte: martitzetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30, eta domeketan, 12:00-14:00.

ZTB jardunaldien egitaraua

Gaur zabalduko den erakusketaz gain, jarduera hauek antolatu dituzte ZTB jardunaldien baitan:

AZAROAK 4

- **10:00** *Digitalizazioa Euskal Herrian* hitzaldia Seminarixoan.

AZAROAK 5

- **12:00** *Kubo beltza-Adimen artifiziala* erakusketa Laboratoriumen. Otsailaren 16ra arte egongo da zabalik.

AZAROAK 6

- **10:00** *Adimen artifiziala: zer da? Gure egunerokoan duen eragina* ulertuz hitzaldia Seminarixoan.

AZAROAK 7

- **09:00** *ChatGPTren eta beste AA sortzaile tresna batzuen erabilera praktikoa* barnetegi teknologikoa Miguel Altunan.

AZAROAK 8

- **14:30** *Adimen artifiziala dendetarako: zerbitzu hobea eta marketina errazagoa* ikastaroa Irizar jauregian.

AZAROAK 11

- **10:00** *AA ikertzen: zer den, nola dabilen eta nolako eragina* duen ikastaroa Seminarixoan.

AZAROAK 13

- **10:00** *Aurpegi errekonozimendua eta identifikazio biometrikorako beste modu batzuk: erronkak eta arriskuak* hitzaldia Seminarixoan.

Hainbat berritasun izango ditu aurtengo Gau Beltzak

Tribial jolasa eta mikroipuin lehiaketa antolatu ditu Jardunek; gainera, ekintza gehienak urriaren 31n egingo dira eta egun horretan lehenengo aldiz gozatu ahal izango da Bergarako Musika Eskolako ikasleen dantza, kantu eta kalejiraz

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA Badator Domu Santu Eguna, eta, ondorioz, Gau Beltzeko ospakizunak ere bai. Eguna iritsi aurretik, ordea, Jardun Euskara Elkarteak hainbat egitasmo berri jarri ditu martxan. Horietako bat da Ndank Ndank elkartearekin eta Bergarako Musika Eskolarekin elkarlanean sortutako tribial jolasa. Gau Beltzari eta hiru eragileei lotutako hamabost galderako lehiaketa prestatu dute labur.eus/99Qj3. Domeka izango da parte hartzeko azken eguna. "Berbalagunekin egin genuen tribial jolasa, eta ideia ona iruditu zaigu Gau Beltzerako ere egitea, gaia herrian zabaltzeko. Saria baino garrantzitsuagoa da Gau Beltza indartzea", azaldu dute Jardunetik. Herritar guztiei zuzenduta dago eta gutxienez hamabi galdera zuzen erantzuten dituztenen artean sariak zozkatuko dituzte urriaren 29an. Sari-banaketa urriaren 30ean izango da, 17:30 aldera, Oxirondo azokan, Eguaztenak Oxirondon dinamikaren aurretik –gaztaina-jana egingo dute, Gau Beltzari lotuta. Gau Beltzaren bueltako mikroipuin lehiaketa ere antolatu

du Jardunek, eta hilaren 20ra arte egon da parte hartzeko aukera. Lehiaketa horrekin, gaia lantzeaz gain, euskaraz idazteko ohitura hartzea bultzatu nahi izan du: "Euskaraz labur idazteko aitzakiarekin jarri dugu martxan; euskarazko idazmena bultzatzeko helburuarekin".

Bestalde, gaur, 17:00etan, plazan kalabaza hustea eta mozo-roak egiteko tailerra egingo dituzte. Norberak eraman behar ditu kalabazak eta izara zaharrak.

Arimen Egunean fanfarrea

Hilaren 31n ospatuko da Gau Beltza, eta Jardunek, Bergarako Udalak, San Joxepe elkarteak, Bedelkarrek, Bergarako Musika Eskolak eta Ugutz Toursek antolatu dute egitaraua. 17:00etan hasita, *Xanduli, manduli...* gozoki banaketa egingo dute Bedelkarreko dendetan, eta 18:00etan San Martin plazan txokolate-jana egingo dute San Joxeperen eta Jardunen eskutik. Hala, 18:15ean hasiko da Musika Eskolako ikasleek girotutako dantza, kantu eta kalejira. Azken urteetan bezala, Bautista Legenarduna Bergaran izango da eta bisita gidatua egingo

du, 21:30ean euskaraz eta 23:00 gaztelaniaz. Jardunek mozo-rotzeko dei egin du.

Aidaun ere ospakizunak

Misterio jolasak egingo dituzte LH-3 eta LH-6 arteko gazteek Aidaun. Gainera, iaz bezala, Osintxun eta Angiozarren gozoki-eskea egingo dute egunean.

Elikaenera bisita, 'Debagoiena geuretik loratzen'-en baitan

Debagoieneko EH Bilduk Elikaenea bisitatuko du, *Debagoiena geuretik loratzen* egitasmoaren baitan, gaur, 18:30ean hasita, Elikaenea proiektua bera eta elikadura burujabetzara bidean eman dituen pausoak ezagutzeko. Bisitan parte hartzera animatu ditu herritarrak bailarako EH Bilduk.

Otsailean aurkeztu zuten *Debagoiena geuretik loratzen* ekimena, eta dinamikaren helburua da ibarrean martxan dauden edo abiarazi nahi diren "proiektu eraldatzaileak" ezagutaraztea. Lehen bisita Oñatin egin zuten, Onaro proiektua eta energia burujabetzaren bidean egindako bidea ezagutzeko.

Lanbroa kultur elkartearen urriko azken hitzaldia gaur

Maiatzean sortu zen Lanbroa kultur elkartearen urriko hitzaldi-afariei amaiera emango zaie gaur, arratsaldeko zazpietako saioarekin. *Bergarako Bersarkada eta beste pake saioak lehenengo karlistaldian* izango dute ardatz Zumalakarregi Museoko arduradun Mikel Alberdirekin Irizar jauregian. Hilabete honetan eginen duten hirugarren hitzaldia da eta hiru egubakoitzetan Lehen Karlistaldia izan dute hizpide.

Ohi bezala, hitzaldiaren ostean afaria egingo dute Sagarpe elkartearen, eta afaldu nahi nahi duenak 610 28 97 48 telefono-zenbakian eman behar du izena. Afariak 18 euro balio du.



LH-3ko eta LH-4ko taldeak, eguaztenean, Misterio jolasetan. AIDAUN HAUR ZERBITZUA

Aitziber Albistegi

Albistegi Agility eta Albaitaritza

Modu seguruan eta erosoan praktikatu agility kirola zure txakurarekin Albistegi klinikako indoor pistan

Ia 20 urteko esperientzia du Aitziber Albistegik albaitaritzan eta ia 300 m² dituen agility indoor pista duen albaitaritza klinika zabaldu berri du Bergarako Amillaga kalean; Gipuzkoako barruko pista bakarrenetakoa da

Albaitaritza zerbitzuaz gain, txakurarekin agility kirola modu seguruan eta erosoan praktikatzeko aukera eskaintzen du Albistegi Agility eta Albaitaritza klinikako ia 300 m² dituen belar artifizialeko indoor pista. Nazioarteko Federazio Zinologikoak zehaztutako neurri ofizialak betetzen dituzte oztupo guztiek: "Agility lehiaketak egon arren, jabeak bere txakurarekin harremana sortzeko eta sendotzeko bidea ematen du, biek batera kirola praktikatzuz". Txakurrak oinarritzeko oboedientzia



Aitziber Albistegi Balirekin agility pistan.

|| Jabeak bere txakurarekin duen harremana sortzeko eta sendotzeko bidea ematen du biek batera kirola praktikatzuz ||


izatea eskatzen da. "Txanda bakoitzean txakur bakarra egotea nahi izaten dut, baina hiru txakur batera egon daitezke elkar ezagutzen badira". Ordubeteko saioa 25 euro da, baina aurrenekoak %25eko deskontua du. Hileko bonua ere atera daiteke. Aurrez hitzordua

eskatu behar da.

Klinika irekita dago astelehenetik egubakoitzera 09:30etik 13:00etara eta 15:30etik 19:00etara; zapatutan, 10:00etatik 12:30era. Ordutegiz kanpoko larrialdietarako deitu telefono zenbakira.



ALBISTEGI AGILITY ETA ALBAITARITZA ZENTRUA



Ordutegia: Asteleheneetik ostiralera: 09:30 - 13:00 / 15:30 - 19:00
Larunbatetan: 10:00 - 12:30

Amillaga kalea 1 - 6. pabilioia, Bergara - 943142343 / 650717186 (24h)

"Ringean sentitu nuen pelikula baten nengoela"

MIKEL GARAGORRI BOXEOLARIA

Duela hiru urte eta erdi boxeoa bere kabuz hasi ostean, garaipen batekin debutatu zuen Garagorri Labegaraletan: "Amestutako debuta izan zen, egun ahaztezina"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Urriaren 19an debutatu zuen boxeolari moduan Mikel Garagorri (Bergara, 2002); Labegaraletan, etxean. Aste barruan Madrilen harrapatu du GOIENAK, Audiologia ikasten ari da eta han. "Motibatuta" dabil ikasketekin, eta horiek amaitzea du lehentasun; betiere, boxeoa hobetzen jarraitzeko asmoz: "Egunean bizi naiz, biharkoan askorik pentsatu barik".

Debatean garaipena lortu ostean zer sentitu zenuen?

Gogoratzen dut urduri nengoela borrokaldia hasi aurretik. Debuta lasaiagoa izango zela espero nuen, ez nuen horrenbeste jende espero Labegaraletan; aldagelatik irten nintzanean erabat harritu nintzen: argiak itzalita, jende asko oihuka... Ringera igo nintzanean, une batez sentitu nuen pelikula baten nengoela, oso une berezia izan zen. Hori bai, kanpaia entzun nuenean dena ahaztu nuen eta nire onena ematera irten nintzen.

Aurkaria ezagutzen zenuen?

Nigan zentratu nintzen. Borrokaldiaren aurreko egunetan ahalik eta gehien entrenatu nintzen, eman ahal nuen dena emateraino. Eta borrokaldia irabazi nuela esan zidatenean sekulakoa izan zen; halako sentazio ederra



Mikel Garagorri, Labegaraletako borrokaldian, urriaren 19an. IMANOL SORIANO

"IRABAZI NUELA ESAN ZIDATENEAN ITZELA IZAN ZEN; HALAKO SENTSATIOA OSO GUTXITAN IZAN DUT"

oso gutxitan izan dut. Amestutako debuta izan zen, egun osoa izan zen ahaztezina.

Nori eskaini nahiko zenioke debuteko garaipena?

Ixari [Rodriguez], bereziki. Asko lagundu dit. Baita Madrilen la-

guntzen ari direnei ere. Hala ere, duela bi urte hil zen nire aitonari ere eskaini nahi diot; Mikel Garagorri zuen izena eta badakit boxeoa gustuko zuela.

Nola hasi zinen boxeoa? Duela hiru urte eta erdi hasi nintzen. Ez zidan inork eragin boxeoa hasteko, ez nuen boxeoa zebilen inork ezagutzen. Nire kabuz hasi nintzen klub baten bila eta halaxe agertu zen Sorarbox. Hor ezagutu nuen Ixa. Ordutik harekin nabil, baina Madrilen ere beste zentro batean entrenatzen naiz.



NIRE USTEZ

EIDER NAJERA

Eskerrak nire etxeari

Herriminez beteta idazten dut gaur, nire etxea urrun sumatzen dudalako. Hala ere, edozein lekutara noala, eskutik helduta daramat. Badaude etxe sentitzen duten lekura itzultzeko aukerarik ez duten pertsonak, beraien herriminak gosez eta bonba hotsez beteak baitaude, aukerez hutsik. Zorteko naiz zentzu horretan, nire etxera itzultzeko bidaiak ez dakarrelako arriskurik, ez dudalako ihes egin gurasoek hazten ikusi nauten etxetik, eta badakidalako beti aurkituko dudala babesleku bat bertan. Nire etxea, lau hormaz haratago, betidanik alboan izan ditudan edota berriki ezagutu ditudan pertsonen osatuta dago.

Nire etxea nire gurasoengan dago, nire anai-arrebengan, nire lagunengan. Ni ere banaiz nire etxearen parte. Zein polita eta zein mingarria den herrimina, zure parte den horren balioa birdefinitzera derrigortzen zaitu eta. Bihotzetik gertu dauzkanak beso artean izateko premia sentitzean, badakit zein den itzultzeko bidea. Distantziak dena lehertuko ez duen itzaropenez betetzen dut nire barrualdea etxera itzuli bitartean.



GOIENA

Jolasa, ziklismorako eskola gisa

Lokatza Ziklismo Eskolaren helburuetako bat da txikitatik bizikleta erabiltzeko zaletasuna sustatzea, eta horren adibide garbia da urtero antolatzen duen Bizikleta Festa. Aurtengoa joan den zapatuan egin zuten, eta 100 bat neska-mutiko batu ziren Seminarioko patioan; bizikleta gainean askotariko jolasekin eta probekin ederto ibili ziren gaztetxoak.

Harmailak beteta, aspaldian ez bezala

Labegaraletako harmailak bete egin ziren boxeoa erakustaldiaz gozatzeko. Infekzio batek eraginda urriaren 19an borrokatzeko aukerarik izan ez zuen Andoni Kortabarria bergararren arabera, goraldean dago boxeoa: "Kontaktuko kirolek, oro har, eta boxeoa, bereziki, gero eta jende gehiago erakartzen dute. Labegaraletako harmailen irudia beste isla bat da".



Hainbat zale sutsuki animatzen, Labegaraletako harmailan. IMANOL SORIANO

Alebin eta infantil mailetakok partiduak gaur Antzuolan

Gipuzkoako eskuz banakako errendimendu txapelketaren barruan hiru partidu jokatu dira gaur Antzuolako pilotalekuan, 19:30ean hasita. Pilotari bergarrek Antzuolan jokatu dute, udal pilotalekua obretan dagoelako. Alebin eta infantil mailetan lehiatuko dira, hurrenez hurren, Gabilondo, Muxika eta Alberdi pilotariak.



Begarako pilotari bat, jokoan. GOIENA



Aretxabaletako Kaparrak izango da Txiri Festeko taldeetako bat; irudian, Arrasateko gaztetxeko kontzertu baten amaiera. GOIENA

Txiri Fest: lagunekin eta lagunentzat, kartzela bete

Txiri Fest jaialdia egingo dute bihar kartzela zaharrean, honako talde hauekin: Sotoalde (Bergara), Etxepe (Arrasate), Kaparrak (Aretxabaleta) eta Estutu (Elorrio). Sarrera guztiak agortuta daude; atak 21:00etan irekiko dituzte eta kontzertuak 21:30ean hasiko dira

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Sarrera guztiak agortuta daude bihar, urriak 26, kartzela zaharrean egingo den Txiri Fest jaialdirako –ate irekiera, 21:00etan; kontzertuak, 21:30ean–. Joan den egunean jarri ziren salgai eta guztiak agortu ziren di-da batean. Zuzeneko musika izango da protagonista, eta hainbat estilo oholtza gainean: anfitrioi arituko den Bergarako Sotoalde –bezperan Danbakan joko dute, Seminarixoan; ikus 34. orria–, Arrasateko Etxepe, Aretxabaletako Kaparrak eta Elorrioko Estutu. Sotoalde eta Etxepe musika urbanoa egiten dute, Kaparrak rumbaren bueltan mugitzen da eta Estutuk punk-oi! doinuak eskainiko ditu. Ondoren, DJak egongo dira.

Kartzela zaharra bete aurten ere 2022a ezkeror urtero egin dute, eta urtero bete izan dute gaztetxea; The Txiripot Crew izenez ezaguna den kuadrillak antolatzen du jaialdi berezia, Sotoalde

deko Mikel Montielek zehaztu duenez: "Herriko kuadrilla batek antolatzen dugun jaialdia da, herriko kultura eskaintzari ekarpen txiki bat emateko sortua. Gazteok elkartu eta ondo pasatzea da helburua. Ez dugu izan estilorik buruan jaialdia antolatzeko orduan; azken finean, modu batera edo bestera, kuadrillako lagunak dira parte hartzen duten taldeak. Are gehiago, esan daiteke aurten bereziki taldeak eurak izan direla euren burua gonbidatu dutenak. Izan ere, askotariko musika entzuten dugu gehienok, eta, horregatik, gustu guztien dako Txiri Festak antolatu izan ditugu". Jaialdiko ordena zein izango den galdetuta, honako

THE TXIRIPOT CREW KUADRILLAK ANTOLATU DU FESTA; URTERO JENDE ASKO ERAKARTZEN DUTE

hau dio Sotoaldeko kideak: "Ordina zehaztuta dago, baina ez dugu zein den esango; jendea etor dadila hasieratik bere gustuko taldea ikusi nahi badu!". Lehen Txiri Festa antolatu zutenetik hobetzen eta handitzen doan jaialdia dela dio Montielek: "Aurtengoaz ez dugu gozatu oraindik eta hasita gaude 2025ekoan pentsatzen. Ideia batzuk irten dira dagoeneko; ikusiko dugu. Akaso, kartzela zaharra txiki geratuko zaigu...".

Sotoalde asteburu mugitua Asteburu mugitua bezain berezia biziko du Sotoalde: "Bi kontzertu emango ditugu asteburuan; ez da ohikoena. Berezia izango da Danbakagatik, batez ere, beste formatu batean parte hartzeko aukera handia delako. Txiri Festerako ere egongo da tentsio puntua jende asko egongo delako eta dena ondo irtetea nahi dugulako, baina kartzela zaharrean gozatzea izango da helburua".

Literatura solasaldietako lehen saioa "arrakastatsua" izan da

Eider Rodriguezen 'Eraikuntzarako materiala' liburua izan zuten hizpide 15 bat literatura-zalek urriaren 23an

J.B.L. BERGARA

Eguaztenez, hilak 23, hasi ziren, Irizarren, Jardun euskara elkar-teak Udalarekin eta udal liburutegiarekin elkarlanean antolatutako literatura solasaldiak. Mikel Albisu Iriarte –*Mikel Antza* ezizenez ezaguna– idazleak gidatu zuen Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* liburuaren gaineko solasaldia. "Hamabost bat lagun elkartu ginen lehen saioan. Solasaldian zehar liburuaren pasarteak aztertu genituen, egilearen inguruan jardun genuen... Arrakastatsua

izan zen, momentu ederra partekatzeko aukera izan genuen", adierazi dute antolatzaileek.

Beste bi saio egingo dira

Ziklo beraren barruan beste bi saio egingo dira. Azaroaren 20an, Mikel Zubimendiren *Han egon zen* liburua izango dute berba-gai, Jose Luis Elkorro protagonista duena; abenduaren 18an, Xamarren *Etxera bidean* lana izango dute hizpide. Parte hartzeko alde aurretik izena eman behar da, Jardunen: 605 71 24 69 edo jardunkultura@topagunea.eus.

Sarrerak salgai 'Hamelingo txirularia' musikaz gozatzeko

Bergarako Antzerki Musikala (BAM) elkarteak azaroaren 9an eta 10ean taularatuko du obra, lau emanaldirekin

J.B.L. BERGARA

Begarako Antzerki Musikala (BAM) elkarteak Grimm anaien *Hamelingo txirularia* musikala taularatuko du Seminarixoan azaroaren 9an (17:00etan eta 19:00etan) eta 10ean (17:00etan eta 19:00etan). 2008an Iñigo Casalik eta Iñaki Elizaldekin egin dako *El Flautista de Hamelin* gaztelaniazko musikaren euskarazko bertsioa da. Valen Moñux bergararrak egin du euskarazko egokitza-pena –Miren Amasorrainek, Oihan Vegak eta Jone Larrañagak zuzenketak–. Eta,

Ander Arrutirekin batera, Moñux da zuzendari eszenikoa ere, eta laguntzaile lanetan arituko da Oihan Vega. Marije Ugaldek izango du abeslariak eta abesbatzak zuzentzeko ardura.

Sarrerak salgai daude

Hamar musikariz osatutako zuzeneko orkestra izango da osagaietako bat; horrez gain, 30 aktore eta abeslari hartuko dute parte, eta 40 hurrez osatutako abesbatza bat ere izango da. Sarrerak salgai daude seminarixoa.eus webgunean.

'Euskelele' ikuskizuna dator: sarrerak salgai 'seminarixoa.eus'-en

Azaroaren 16an familiei zuzendutako *Euskelelea* izeneko ipuin musikatu estreinatuko dute Seminarixoan (20:00). Enrike Solinisek jatorrizko ideian eta Solinisek berak sortutako instrumentuan eta Juan Kruz Ige-rabide poetaren hitzetan oinarrituta dago ikuskizuna. Doinu ederrak eta kantu tradizionalak entzuteko aukera izango da, Eus-

kal Barrok Ensemble taldeak interpretatua eta Irrimarraren ilustrazioekin osatua. Ikuskizunean parte hartuko du, besteak beste, Bergarako Musika Eskolako abesbatza txikiak. Sarrerak salgai daude dagoeneko, seminarixoa.eus atarian.

Bestalde, musika eskolako arduradunek dei egin diete bertatik pasatu diren akordeoi-jotzaileei Gabonetan egingo duten ekitaldi bereziko; informazioa emateko hitzordua zehaztu dute urriaren 29rako, eskolan (19:30).



lazko urrian eginiko Tipi-Tapa saioa. GOIENA



Herri Eskolako ikasle batzuekin eginiko saio bat. ANTZUOLA LAGUNKOIA



2019ko greba feministako elkarretaratze bat. ANTZUOLA LAGUNKOIA

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Herria hobetzeko ekarpenak egitea; herriarendako eraginkorrak izatea; ideiak partekatzeko askatasuna eta aukera edukitzea; gizartearekin sentibera izatea; gazteekin batera ekitea; elkar-lanean aritzea; adinekoen lana ikusaraztea eta haien irudiari balioa ematea; herri dinamike-tan integratuta sentitzea. Horiek eta gehiago dira Antzuola Lagunkoia egitasmoaren balioak, talde horren atzean dauden edo egon diren antzuolarren hitzetan.

Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Lagunkoia ekimenaren parte da, hain zuzen, Antzuola Lagunkoia, Matia Fundazioak jarri zuen arren martxan, eta duela hamarkada bat, 2014an, egin zituen lehen urratsak, horretarako proposamena jasota. "Laburbilduz, honen helburua da aldarrikatzea pertsona edadetuen ekarpena onura dela herria hobetzeko", azaldu dute Kontxi Elorzak, Juanita Zabalok eta Pilar Etxanizek, Antzuola Lagunkoia taldeko kideek, "herri-tar guztiak direlako baliagarriak talde baten parte izateko, denek dutelako hitz egiteko aukera eta inor ez delako bestea baino gehiago".

Eginiko lehen urratsak

Hasiera batean, talde independentetzat egin zituzten lehen urratsak, baina Landatxope jubilatutako eta pentsiodunen elkar-tearen alboan. "Herri diagnostiko bat egin genuen, eta 72 ekintza identifikatu genituen; batez ere, hirigintzarekin lotuak. Esate baterako, bainu publikoak jartzea, osasun zentroan ate automatiko bat, bidegorrian bankuak, ur parkea... Asko zaharrentzako barrera arkitektonikoen ingurukoak ziren, baina beti pentsatu izan dugu zaharrentzako ona dena gainontze-koendako ere izango dela".

Hamar urtez herrian eragiten

Adineko pertsonen parte-hartzea bultzatzea helburu izanik, 2014an hasi zen martxan Antzuola Lagunkoia taldea; ordutik, proiektu ugari aritu dira, hala nola hirigintzari, garraioari eta bakardadeari lotuak. Egun, jendea animatu nahi dute taldera batzera

Horretarako, hirigintzaren alorrean egin beharreko ekintzak identifikatzeko, Tipi-Tapa saioak egin izan dituzte –Landatxope elkarteak egin zuen lehena, baina Antzuola Lagunkoia hartu zion lekukoa–, eta hamar urteotan hiruzpalau egin dituzte. "Kalean ibiliz argazkiak ateratzen ditugu konpondu beharrekoak

kokatzeko, eta txosten bat egiten dugu Udalari bidaltzeko; ondoren, bueltatu egiten digute, esanaz zeintzuk diren euren lehenasunak eta konpetentziak. Horrela, jarraipena bermatzen dugu".

Taldekieen hitzetan, umore ukitu batekin, "aguazilaren lana" egiten dute "etengabe", baina nabarmendu dute Udalak esker-

tu egiten duela: "Diotenez, lan handia egiten dugu, eta lagungarria da euren eragindako". Hain justu ere, azkeneko, iazko urriaren lehen zuten Tipi-Tapa saio bat, eta Antzuola Lagunkoia taldeko kideak ez ezik eurekin batera izan zen Aritz Igeltz, Antzuolako Udaleko Hirigintza zinegotzia.

Hirigintzaz gain, beste hainbat

Gehienbat, horrenbestez, hirigintzan du arreta jarrita taldeak, baina zortzi arlo dituzte guztira langai, egunerokoan landu ohi dituztenak: garraioa, etxebizitza, aire zabaleko eraikinak eta eremuak, herritarren partaidetza eta enplegua, errespetua eta inklusioa, gizarte eta komunitate egitura, komunikazioa eta informazioa, eta gizarte zerbitzuak eta osasuna. Horiek lantzen hasteko, beraz, hainbat proiektu izan dituzte hamar urteotan esku artean.

Komertzio lagunkoia izan da, zehazki, hamarkada honetan esku artean izan duten proiektuetako bat, herriko komertzioetako arduradunekin elkar-lanean: "Helburua zen komertzioek kontzientzia pixka bat izatea nagusiekiko; esate baterako, eserleku bat jartzea dena bakoitzean, edo lupak-eta, prezioak hobeto ikus ditzaten". Proiektu horren asmoa, ordea, harago doa, dendariak pertsona nagusi batzuen familiekiko izan dezaket bitartekaritza jardura gogoan izanda: "Haiek dira, hein handi batean, pertsona bat nola dagoen, zein egoeratan dagoen oharzen direnak egunerokoan, ea burua galtzen hasiak diren edo nahastuta dauden, tratu zuzena baitute dendetan".

Horrez gain, garraioan ere arreta jarrita dute aspalditik, eta egun duten borroketako bat da: "Antzuolako kasuan, huts egiten dute konexioek, eta, gainera, aldapa batean dago autobus geltokia; espaloia ere badago, eta hori oztupo da mugikortasun arazoak izan ditzaketenentzat, espaloiarenekin eta autobusaren artean zulo bat sortzen baita sartu-irtenak egitean". Horri erantzuna emateko, taldeko kideen hitzetan, harremanetan daude Udalarekin, eta hark "premiatzen" ikusten du

Egindako lanaren aitortzat, saria

Hamar urteotako ibilbidean sariren bat edo beste ere eskuratu du Antzuola Lagunkoia taldeak. 2018an, esate baterako, Eusko Jaurlaritzak Antzuola Lagunkoia taldearen *Ibilbide osasuntsuak* proiektua saritu zuen, Euskadi Lagunkoia programaren baitan antolatutako Jardunbide Egokien Sarietan. Guztira, 28 proiektu aurkeztu zituzten, eta finalisten artean gelditu ziren antzuolarrak.

Sailburuak txalotua

Proiektuak helburu zuen –eta egun ere badu–, ohitura osasungarriak bultzatzeaz gain, harremanak sendotzea eta hirigintza alorra bultzatzea, eta, taldekideek orduko hartan



2018ko Jardunbide Egokien Sarietan antzuolarrak. ANTZUOLA LAGUNKOIA

GOIENARI jakinarazi ziotenez, "oso gustura" jaso zuten saria, "eginiko lanaren aitortzat". Beatriz Artolazabalek, orduko Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak,

proiektua txalotu zuen: "Herriko eguneroko bizitza apur bat gizatiarragoa eta guztiontzat gogobetegarriagoa egiten duten gauza txiki horiek guztiak berreskuratzen ditu".

Zer nabarmenduko zenuke egitasmo horretatik?



JUANITA ZABALO
ANTZUOLA LAGUNKOIAKO KIDEA

"Hemen arituta sentitzen dena esplikaezina da"

"Nik ez nuke aipatuko zer egin dugun hamar urteotan, baina esplikaezina da zer sentitzen den hori eginda. Ni hasieratik nago taldean, eta lehendabizikoetan hasi ginen herriko konponketa lanak-eta zehazten, dena polit geratu zedin Antzuolan, baina ohartu gara badaudela beste premia batzuk; batez ere, pertsonekin lotuak: esaterako, bakardadea eta harremanak. Horrelako premiei erantzuna ematea herriz herri –Lagunkoia dauden herrietan, behintzat– sekulakoa litzateke".



KONTXI ELORZA
ANTZUOLA LAGUNKOIAKO KIDEA

"Zabaldu egiten dira ohiko harremanen zirkuluak"

"Batik bat, egindako harremanak aipatuko nituzke, zabaldu egiten baitira ohikoak diren zirkuluak. Taldean giro oso ona eduki dugu, irteerak-eta antolatu izan ditugu, eta jende interesgarria ezagutzeko balio izan digu. Pertsonalki, ohartu naiz badagoela ni baino okerrago dagoen jende asko, behar batzuk dituen, eta, horrenbestez, nahi gabe inplikatzeko zara, errazago eta serioago hartzen. Eskerrak eman nahi dizkiet Udalarari eta Matia Fundazioari, beti egon baitira laguntzeko prest".



PILAR ETXANIZ
ANTZUOLA LAGUNKOIAKO KIDEA

"Egiten duguna denendako da, ez guretako bakarrik"

"Nik garbi dut egiten duguna ez dela guretako bakarrik, baizik eta denentzako: guretako ona dena hala izango da gainontzekoendako ere. Hortaz, ekarpena egiten diogu herriari eta hori eginez ongi sentitzen gara. Ona da gure autoestimua denendako ere. Taldean bere ekarpena egiten du bakoitzak, denena onartzen da, eta guztion artean behar dena egiteko gai gara. Hamar urteko errebisioa egiten denean ikusten da zenbat gauza egin diren, eta betegarria dela esango nuke".

hori aldatzea: "Baina beste ekin-tza handiago baten barruan, behin-behinean zerbait egin beharko litzatekeela ere esaten duten arren".

Bakardadearen lanketa

Esku artean dituzten lanketen artean garrantzitsuenetako bat da adineko pertsonen bakardadea, ezkutuko gaia izan arren sarritan, oso ohikoa baita egunerokoan: "Batik bat, gai honek pandemian arduratzen gintuen, bakoitza bere etxean baitzegoen sartuta, bakarrik, eta beldur handia zabaltzen zen, gainera, telebistetan eta. Telefono-deiak egiten genituen jendea nola zegoen jakiteko, eta Gabonetan mezu bat ere banatu genuen postontziz postontzi, baina nahiko inpotente sentitu ginen, zer egin jakin ezinik; gaur egun ere hala gabiltza, gaiari bueltak ematen". Garai batean, esate baterako, ibilbide osasuntsuak egiten hasi ziren, ohitura osasuntsuei bide emateko, baina, batez ere, erlazionatzeko: "Jende jakin bat kalera ateratzeko aitzakia izan zen, harremanak egiteko eta sendotzekoa".

Taldearen osasuna

Hirigintza, garraioa, bakardadea... asko dira gaur egun ere Antzuola Lagunkoia lantzen dabilen proiektuak, "inoiz ez direlako akabatzen", baina au-

rrera egiteko jendea beharrean daudela azaldu dute: "Ilusio handiarekin hasi ginen lanean duela hamar urte, baina hori mantentzea ez da beti erraza izaten; pandemiaren ondoren kosta egin zitzaigun martxan jartzea, baina, azkenean, lortu genuen. Hala ere, jende berria nahi dugu erakarri, taldea osasuntsu egon dadin". Elorzak, Zabalok eta Etxanizek erantsi baitute jendea prest egoten dela "gauza puntualetan laguntzeko", baina zenbaitek ez dutela konpromisorik hartu nahi: "Badaude, adibidez, jubilatzen direnean hain ondo sentitu eta loturarik nahi ez duten herritarrak; haiek animatu nahiko genituzke taldera batzera".

Hamargarren urteurrena ere ospatzeko dute oraindik, baina taldekideek aurreratu dute argazkiekin osatutako bideo bat egiteko asmoa dutela, urte hauetan eginiko lan guztiaren lekuko izan dadin; eta horrez gain, eskertze festa bat antolatzeko asmoa dute, ekitaldi bat, Antzuola Lagunkoia taldean parte hartu duten guztien lana aitortzeko helburuarekin.

Proiektuka ez, baina landuak

Proiektuka ez bada ere, Antzuola Lagunkoia baditu beste era batera lantzen dituen gaiak: berdintasunaren alorrean, esate baterako, 2019ko martxoaren 8an eginiko Euskal Herriko greba feminista antolatzen aritu ziren; integrazioan, atzeritik etorritako herritarren Udalaren harrera protokoloa ontzen aritu ziren; eta, horrez gain, belaunaldien arteko harremanak ere oinarri dituzte, Idolaz aisialdi taldearekin ekin-tza batzuk antolatu izan baitituzte.



ANTZUOLAKO UDALA

40. urteurrena Aiherran

Urriaren 19an ospatu zuten Aiherran, eta dozenaka herritar joan ziren Antzuolatik hara. Bi udalen arteko hitzarmen-sinatzea izan zen ekitaldirik garrantzitsuenetako bat, eta han zehaztu zuten urriaren 19a izango dela aurrerantzean bi herrien senidetzearen egun ofiziala. Herri kiroletan aritu ziren ondoren, eta bazkaria izan zuten, azkenik, musikak alaituta.

Euskararen Egunerako lelo lehiaketa martxan da

Antzuolako Udalaren eskutik lelo lehiaketa antolatu dute aurtengo Euskararen Egunerako –abenduaren 3an izaten da–, eta martxan da joan den asteaz gerroztik izen-ematea. Herritarrek azaroaren 18ra arte izango dute proposamenak bidaltzeko aukera, astelehena, eta udala@antzuola.eus helbidera edo Instagram kontura bidali beharko dituzte; horrez gain, izena eman daiteke udaletxean et liburategian. Hautatutako leloari dago-kionez, Euskararen Eguneke ekitaldietan erabiliko dute, baita pankarta nagusietan ere. "Eman zure alea, eta ospatu gurekin", azpimarratu dute Udaleko ordezkariak.

Memoria tailerrean izen-ematea zabalik azaroaren 15era arte

Landatxope jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak eta Gizarte Zerbitzuek antolatuta, zabalik da memoria tailerrean izen-ematea. Hamar saio egingo dituzte guztira; eguaztenetan izango dira, azaroaren 20tik otsailaren 5era, 09:30etik 11:00etara bitartean, Landatxopen. Interesdunek, beraz, gizarte zerbitzuetara edo Landatxopera –azaroaren 12an edo 14an, 16:30etik 18:00etara– jo beharko dute izena ematera; horretarako, azaroaren 15a da azken eguna. "Badaude memoria murrizketen ondorioak prebenitzeko eta ahalik eta denbora gehien atzeratzeko egin daitezkeen ariketak. Saio horietan esango digute nola egin".

OHARRAK

'Hona bostekoa' erakusketa Olanen

Unai Gaztelumendi, Eñaut Aiartzaguena, Kote Camacho, Iñaki Martiarena eta Aritz Ibarra artisten lan bateratua da, komikiak oinarri. Olanen ikusgai bihar eta etzi, 18:30etik 20:30era.

'Hansel y Gretel' antzezlanaren Torresoroan

Ortzai antzerki taldearen eskutik, 12 urtetik gorako herritarrei zuzenduta, bihar izango da, 18:30ean. Sarrerak Entradium plataforman eskuratu daitezke: labur.eus/G3HGz.

Gaztaina erre jana Landatxopen

Azaroaren 9an izango da, bazkideendako, baina urriaren 29an eman behar da izena, 16:30etik 18:30era, Landatxope elkartearen.



Intxortako Ahuntzak Trail taldeko kideak 2025eko lasterketa aurkezten. L.Z.L.

Ahuntsen lasterketak laugarrena ere izango du

Martxoaren 29rako iragarri dute eta lazko ibilbide bera izango dute bai ahuntsen lasterketak –21 km– bai antxumeenak –4 km–. 400 dortsal aterako dituzte eta eskuragarri egongo dira azaroaren 2tik aurrera 'herrikrosa.eus' atarian

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA Hasi da atzerako kontaketa Intxortako Ahuntzak Trail lasterketaren laugarren ediziorako, eta antolatzaileak hasita daude lanean. Martxoaren 29rako iragarri dute proba, eta jakinarazi dute aurreko aldietan moduan bi lasterketa jokatu direla; ahuntzena –16 urtetik gorakoak–

eta antxumeena –12-16 urte artekoak–. "Iaz bezala, 350 dortsal egongo dira eskuragarri nagusien lasterketarako eta 50 dortsal gazteen probarako. Ahuntsen lasterketa 10:00etan abiatuko da eta antxumeena, berriz, hamar minutu lehenago, 09:50ean", azaldu du Intxortako Ahuntzak Trail taldeko Eleder Lozanok.

Elgetako trail taldeak martitzenean egin zuen laugarren edizioa aurkezteko agerraldia. Parte hartzaileak, antolatzaileak eta taldeko neska-mutikoak elkartu ziren kartel berria aurkeztu eta kirol hitzorduaren berri emateko.

Elgetako mendi lasterketak hiru urtetik gorako ibilbidea du

dagoeneko eta lekua egin du inguruko mendi lasterketan egutegian.

Iazko ibilbide bera

Aurreko urtean, nagusien lasterketa bost kilometro luzatzea erabaki zuten antolatzaileek: Egoarbitza ibilbidean sartu eta maratoi erdiaren distantzia eman zioten probari. "Balazioa oso positiboa izan zen. Egoarbitza da inguruotako mendirik ederrerenetakoa, eta parte hartzaileek ere horixe esan zuten amaieran; ibilbidea oso polita zela. Hori horrela, aurten aldaketa horri eustea erabaki dugu. Egoarbitza izango da 16 urtetik gorako lasterkarietako igo beharko duten lehenengo tontorra", azaldu du Lozanok. Hala, 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibela izango ditu aurten ere Ahuntsen lasterketak. Egoarbitzaren ostean Goikomendi igo, Aixolako urte-gira jaitsi, Erdella igo eta, amaitzeko, Intxortako punta zapaldu beharko dute plazako helmugara iritsi aurretik. Pentsatzekoa da lasterketako azken zatia izango dela lasterkariendako gogorra: "San Romandik Intxortako tontorrera bidean dauden azken maldetan hankak bete-beteta eramango dituzte".

Antxumeen lasterketari dago-kionez, aurrekoetan moduan, 4 kilometro eta 180 metroko desnibela izango ditu. Honako hau izango da ibilbidea: plazatik abiatu, Goikomendira igo, La-

rrabilburuko pistara jaitsi eta helmuga plazan. Bi elgetar nagusitu ziren iaz: Unax Agirre Osa (17.34) eta Alazne Lozano Etxaniz (22.39).

Kortazar parte hartzaile

Aurten ere Oihana Kortazarren parte hartzea aurreikusten dute Elgetan. "Bi ediziotan hartu du parte –lehenengoan lesionatuta zegoen–, eta biak irabazi ditu. Iaz, 1.50.58 egin zuen. Gizonezkoetan Oier Elorza azkoitiarra nagusitu zen (1.40.05). Biak irteera puntuan egotea nahiko lukete antolatzaileak, eta, esan dutenez, Kortazar parte hartzeko asmotan da.

Babesleendako eta boluntarioendako ere izan dituzte esker oneko hitzak: "Elgetako moduko herri txiki batean halako mendi lasterketa antolatzea oso polita da. Babestuta sentitzen gara. Hasieratik alboan ditugun babesleak ditugu eta ehun bat herrikideren laguntza izaten dugu proba egunean. Denak dira beharrezkoak. Baita aurreko asteetan pistak txukuntzen eta garbitzen eta bideak markatzen ibiltzen direnak ere. Oso esker-tuta gaude".

HERRI KROSAKO LANTALDEAK HARTUKO DITU DENBORAK, BAINA TXIPAREKIN AURTEN


Gau Beltza prestatzeko lanetan ari dira elgetarrak ere

Aurreko astean Josu Ozaitarekin egindako saioen ondotik ari dira egitaraua prestatzen

L.Z.L. ELGETA

Udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan ospatzen da Gau Beltza edo Arimen Gaua. Hala, kalabazak hustu, aurpegi itxura eman eta kandelak pizteko egunak datoz. Gaua, beldurra, gozokiak, gauetz lagunekin ateratzea, mozorroak... Gazteen-dako erakargarriak diren osagai ugari ditu Gau Beltzak, eta azken urteetan ospakizunak herrian izan duen harrera da horren erakusle.

Maala guraso elkarteak dihardu aurten Gau Beltzeko ekintzak



Elgetan prestatutako kalabazak. L.Z.L.

antolatzen. Atzo, eguna, egin zuten azken batzarra, eta laster emango dute lotutako egitarauaren berri. Herri Eskolan ere jardura bereziak egingo dituzte hilaren 31n. Zuzendaritzatik jakinarazi dute gaiarekin lotutako ekintzak egingo dituztela.

Aurretik, Josu Ozaitarekin bisita Gau Beltzarekin lotuta urteetako kezka izan da jaiatza jatorri arrotzeko kutsua hartzen ari zela. Gaia ikertu duen Josu Ozaita antropologoa Elgetan izan zen aurreko astean. Eskolako ikasleekin elkartu zen lehenengo. Idatzitako *Gau beltza* liburaren berri eman zien LH-4ko, LH-5eko eta LH-6ko ikasleei, *Tertulia dialogikoak* izeneko formatuko saioetan. Ozaitak herritarrentzako hitzaldia ere egin zuen iluntzean liburutegian.

Eskolako jangelako sukaldeari buruzko batzarra eguaztenean

Jangela Eraldaketa batzordeak deitu du, eta 18:30ean egingo dute bilera irekia, eskolako liburutegian

L.Z.L. ELGETA

Badira urte batzuk egitasmoa mahai gainean dela eta eskolako langileekin, gurasoekin eta udal ordezkariarekin osatutako Jangela Eraldaketa batzordea ere martxan dela. Orain arteko ibilbidearen errepaso egitea eta aurrera begirako erronkak zehaztea izango dira batzarreko bi puntu nagusiak. "Proiektuaren zirriborroaren planoak ikusi ahal izango dira. Nola gelditzea aurreikusten den jakiteko aukera izango da", azaldu du Hezkuntza zinegotzi Kepa de Vegak.

Jangelak sukalde zerbitzu propioa izatea da Elgetako hezkuntza komunitatearen nahia, eta kafe antzokiko sukaldea erabiltzea litzateke planteamendua.

Hamaiketako osasungarria

Lanketa nagusia hori izanda ere, Jangela Eraldaketa batzordeak beste hainbat proiektu garatu ditu bidean; adibidez, *Hamaiketako osasungarria* egitasmoa. Asteburuan Bergaran egindako Gozo Topaketan izan ziren eskolako ordezkariak ekimenaren berri ematen.

Herri Foroak ekin dio ikasturte berriari

Aurreko urtean egindako ekintzen balorazio positiboa egin dute, nahiz eta hobetu beharrekoak ere identifikatu dituzten. Esate baterako, herri hezitzaileen filosofia zer den eta zer bilatzen duen herritarrei hobeto azaltzea

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Elgetako Oinherri Herri Foroa osatzen duten bost bat eragiletako dozena bat lagun elkartu ziren ikasturte berriari ekiteko batzarrean. Hilaren 16an egin zuten eta bost puntu jorratu zituzten Hezkuntza zinegotzi Kepa de Vegak gidatutako batzarrean.

Lehenengo eta behin, aurreko ikasturteko balorazioa egin zuten, eta positiboa da. Bi Herri Foro, taldekako bilerak eta ekainean frontoian egindako azoka izan ziren ekimen nagusiak. Landu beharrekoen artean aipatu zuten hobeto azaldu behar zaiela herritarrei herri hezitzaileen filosofia zer den; izan ere, susmoa da ez dagoela oso argi. "Dinamikaren helburu nagusia da herritarren arteko elkarrekintzak sustatzea denok denongandik ikasteko aukerak sortzeko eta sustatzeko", laburbildu zuten Kepa de Vegak.

Ikasturte berriko erronkak

Lanean jarraitzeko asmoa dute bertaratutako eragileek, eta ikasturte honetan ere Herri Foroa birritan deitzea eta taldekako bileren dinamikarekin jarraitzea da helburua.

Talde motorrak bi egitasmo nagusi izango ditu aurrean. Alde



Ikasturte honetako lehen Herri Foroa, hilaren 16an, udaletxean. L.Z.L.

DATOZEN ASTEETAN EGINO DIRA TALDEKAKO BILERAK; EKIMENAK ZABALIK JARRAITZEN DU

batetik, umeen parte-hartze organo egonkorra sustatzea. LH-1 eta LH-6 arteko hamabi ordezkari osatzen dute eskolako ikasle batzordea -gela bakoitzeko bi- eta bi hilean behin elkartuko da talde motorreko kide-

kin udaletxean. Ikasturteak aurrera egin ahala foroko eragileekin ere elkartzeko aukera aztertuko da. Hala, taldean lantzeko bi galdera eraman zituzten batzarretik etxera eragileek: *Ikasle batzordearekin elkartzea gustatuko litzaiguke? Zer azalduko eta galdetuko genieke?*

Talde motorraren bigarren egitasmoa da herriko ondarea jasotzen hastea. Egunotan dira hastekoak taldekako bilerak eta bertan joango dira definitzen lanketa hori zelan egin eta nondik hasi.

Patata-tortilla "ona" egiten ikasteko saioa Ozkarbin

Bi kontzertu, mendi irteera Egoarbitzara eta bola-joko txapelketa ere iragarri dituzte azarorako

L.Z.L. ELGETA

Berdin da izeneko taldeak irabazi zuen Sagardo Egunekeko patata-tortilla txapelketa. Gainera, bi sari eskuratu zituen: zapore onenarena eta itxura onenarena. Taldeko kide Iker Herranek egingo du sukaldaritza ikastaroa Ozkarbi elkartean. Azaroaren 8an izango da, 19:00etan. Gazteentzako ikastaroa dela adierazi dute elkarteko ordezkariak. Interesatuak ozkarbi.elkartea@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar dute azaroaren 6a baino lehen.

Musika, irteera eta boloak

Beste lau ekintzarekin osatzen da Ozkarbiren azaroko egitaraua. Hilaren 15ean Xabier Badiola eibartarraren kontzertua izango da eta 22an, Elgetako Biok taldearena. Azaroaren 17rako mendi irteera iragarri dute Egoarbitzara eta azaroaren 29rako, bola-joko txapelketa. Txapelketa 18:30ean hasiko da eta hiru kategoria egongo dira: 6-12 urte, 13-16 urte eta 17 urtetik gorakoak. Aurretik, 17:30ean, jolasak eta aurpegia margotzeko txokoa egongo dira.



I.A.A.

Berehalako su-eten eskaera

Palestina "berehalako su-eten eta genozidioaren amaiera" eskatzeko elkarretaratzea izan zen astelehenean plazan. Gernika-Palestina Herri Ekimenetik deituta, Euskal Herriko 178 herritan egin ziren kontzentrazioak; tartean, Elgetan. "Ondorio latzak izaten ari den eskalada belikoa gelditzea eta bake eta itxaropen etorkizuna eskaintzea" exijitu zituzten.

OHARRAK

Ipuin saio berezia gaur liburutegian

Bi saio izango dira: 17:30ean HH-2 eta LH-1 arteko umeendako eta 18:30ean LH-2 eta LH-6 artekoendako.

Mendi irteera Etxarri-Aranatz aldera

Kantsatzeke mendi taldeak *Trikuharrien ibilbidea* proposatu du domekarako. Taldea 08:00etan abiatuko da, plazatik.

Eskuragarri dago EAJren Gabonetako loteria

Urtero moduan, Elgetako jeltzaleek Gabonetako loteria atera dute. Erosi nahi dutenek Maria Jesus Leterengana edo Begoña Ardanzarengana jo behar dute. Azken eguna: azaroak 14.

Ekimenik jendetsuena, herri azoka

Eguraldiak baldintzatuta, udal pilotalekuan egin behar izan zen Oinherri Herri Hezitzailea dinamikako Elgetako I. herri azoka ekainean. Elgetako 22 eragilek jarri zuten erakusmahaia azokan, eta jendetsua izan zen. Azokarako eragile guztien informazioarekin osatutako eskuorria bereziki ondo baloratu dute eragileek.



lazgo herri azoka frontoian. IMANOL SORIANO



Iñaki Akizu, Lorea Jimenez, Asier Lauzurika eta Iñigo Ruiz martitzen arratsaldean jolasgunean. SARA LANZ

Jolas berriak Urgaineko bigarren fasearen ostean

Urgaineko jolasguneko bigarren faseko lanak bukatu berri ditu Udalak: harmaila atondu dute, saskibaloi eta futboleko kantzak asfaltatu, iturri bat jarri eta hoditeria berri, besteak beste. Herritar guztiendako dago erabilgarri gunea

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urgain Errekaldeko jolasguneko bigarren faseko lanak bukatu berri ditu Oñatiko Udalak, eta herritarrek erabilgarri dute dagoeneko. "Proiektu honen helburua zen, batetik, bertako komunitateak testuinguru inklusiboagoa, komunitarioagoa eta berdeagoa izatea, baliabide pedagogiko bezala erabiltzeko, esperimintatzeko eta jolaserako, baina herriko jolasguneen sare barruan integratzen da. Eskola orduetan bertakoek erabiliko dute, baina eskola orduetatik kanpo, asteburuak barne, herritarrek etor daitezke jolaserako, esperimintatzeko, sozializatze-ko eta aisialdiaz gozatzeko", azaldu du Udaleko Hezkuntza batzordeburu Asier Lauzurikak.

Jolasak eta eraberritzeak

Proiektuak hiru fase ditu: lehen fasean udal jabetzako lurra jolasgunean sartu zuten. Euri-urak ere bideratu zituzten, eskolako hezetan arazoei konponbidea

emateko, eta urmael bat ere sortu zuten, "baliabide didaktiko eta pedagogiko" bezala. Bigarren fasean egindako lanak aipatu ditu astean Lauzurikak: "Bigarren fase honetan harmaila atondu da eta erabilgarri jarri herritarrentzat eta eskolarrentzat. Jolas eremuak zituen ur hoditeriak zaharberritu egin dira, eta iturri bat jarri dugu. Horrez gain, asfaltatu egin ditugu saskibaloi eta futbol kantzak eta argiztapena berri egin dugu. Bigarren ate bat ere jarri dugu jolasgunera sartzeko".

Azken lan horien aurrekontua 244.000 eurokoa izan da -100.000 euro inguru lehenengoarena-. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren dirulaguntza jaso du

"HERRITARRAK ETOR DAITEZKE, JOLASTEKO, ESPERIMENTATZEKO ETA AISIALDIAZ GOZATZEKO"

Udalak, eta "oraindik argitaratu barik dagoen Hezkuntza Sailaren dirulaguntza deialdira aurkeztea" ere bada asmoa. Lur Paisajistak enpresak egin du proiektua eta hiru fasetan gauzatzea espero da; hirugarrena falta da.

Jolasen garrantzia

Jolasgune horrek izan dituen eraberritze lanek aldaketa garrantzitsuak ekarri dituztela adierazi du Urgain eskolak. Mainer Rivera eskolako idazkariak adierazi duenez, "ikasle guztiei ematen die tokia jolasgune honek", eta "liskarrek gutxira egitea ahalbidetu" duela gaineratu du Jon Mikel Larrañaga ikasketaburuak. Lore Jimenezek, Urgain Herri Eskolako zuzendariak, bestalde, jolasak umeengan duen garrantzia azpimarratu nahi izan du: "Jolasean ikasi egiten dugu. Hemen era guztietako jolasak egin daitezke, eta, era berean, ikasteko, esperimintatzeko, aukera ematen du".



Oinezkoak Usako eta Torreauzo arteko bidean paseoan. O.E.G.

Torreauzotik Usakorainoko bidegorriak badu proiektua

Zuazolako zubirainokoa da proiektua, baina lehen fase honetan Torreauzotik Ezibai baserriraino egingo dute

O.E.G. OÑATI

Torreauzotik Usakoraino bidegorria egingo dute. Proiektua onura publikotzat hartu du udalbatzak aho batez iraileko osoko bilkuran, eta tarte horretan bidegorriak pasako dituen lurren hiru jabeekin desjabetzeak adosteko lanarekin hasita daude.

Ezkerretik eta eskuinetik

Proiektua eginda dago eta jasotzen du bidegorria egongo dela Torreauzotik Usako sarreraraino, Ezibai baserriraino. Next Generation funtsetik 569.000 euro jaso zituen Udalak proiekturako, eta lurra Udalaren eskuetan daudenean aterako du bidegorriko lanen lizitazioa, bizikletendako zein oinezkoendako izango dena. 700 metro inguru izango ditu zati berriak eta tarte batean eskuinetik eta gero ezkerretik joango da: Torreauzotik hasita, eskuineko

aldetik egingo da Chinchurreta enpresako sarrera-irteera pasa arte, han bidea gurutzatuko du eta ezkerreko aldetik jarraitu.

Proiektu osoa Zuazolako zubiraino dago eginda. Hau da, bizikletek eta oinezkoek haraino joateko aukera izango dute bidegorria erabiliz. Hori, baina, lehen fase honen jarraipena izango litzatekeela azaldu du Xabier Igartuak, Zerbitzuetako batzordeburuak, "hurrengo urteetan gauzatzeko moduan".

Orain, lehen faseko lanak aurrean esleitzea da Udalaren nahia, eta lanak ere urtea bukatu aurretik hastea, udarako erabilgarri egon dadin bidegorria. Hori bukatuta, bizikletan edo oinez herrigunetik Usakoraino modu erosoan eta seguruan joateko modua izango dute herritarrek eta bisitariak, baita auzotarrek ere euren joan-etorriak autoz egiteko.

"Herritarren erantzuna" eskertu egin du Hotz Oñati elkarteak

Ia 7.300 kilo janari batu ditu Hotz Oñatik joan den asteburuan egindako janari bilketan: 7.230 kilo Zaporeak taldeari eman zizkioten eta beste 30 kilo barratxo zerealdun *Aita Mari* itsasontzira bidaliko dituzte. Herritarren erantzuna eskertu egin du Hotz Oñatik: "Eskerrik asko denoi. Zuen laguntzari gabe ezingo genuke ezer egin".

Gipuzkoako kartografiaren bilakaera berbagai

Gipuzkoako kartografiaren bilakaeraz arituko da datorren egunean Jabier Aspuru. Debagoieneko ikuspuntutik hitz egingo du gai horri buruz. Goiengusik antolatuta, Oñatiko Esperientzia Gelaren barruan izango da hitzaldia, Santa Ana antzokian, 10:00etan. 55 urtetik gorako oñatiar guztiak joan daitezke, bazkide izan edo ez.

"Edonor etor daiteke 'casteller'-a probatzera"

ERITZ CAMPOS ARETXAGA EUSKAL HERRIKO CASTELLER TALDEKO KIDEA
Oñatiko plazan egingo du domeka goizean entsegu Euskal Herriko Casteller Taldeak. Bertako kide da Campos, eta herritar guztiak gonbidatu gura ditu saiora

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Euskal Herriko Casteller Taldeko kide da Eritz Campos Aretxaga (Oñati, 2001). Domekan erakustaldia eta ikastaroa egingo dute plazan, 11:00etan, eta herritar guztiak gonbidatu gura ditu: "Casteller batean jende asko behar da, eta denendako tokia dago".

Nola heldu zinen Euskal Herriko Casteller Taldera?

Duela hilabete pare bat, lagun baten bitartez jakin nuen *casteller* talde bat zegoela Euskal Herrian eta domeketan egiten zituztela entseguak. Izan ere, beti gustatu izan zaizkit, eta lagunak entsegura joateko proposatu zidanean baietz esan nion.

Non egiten dituzue entseguak?

Gasteizen egin zen bilera batean erabaki zen Euskal Herriko talde hori sortzea, nahiz eta egun Donostian eta Bilbon jende gehiago dagoen. Normalean, bi hiriburu horietan izaten dira.

Zer ikasten duzue?

Badago zer ikasia. Adibidez, oinarria den multzoan, *piña*-n, nola egon ikasten dugu. Hor komeni da burua behera edo albo batera izatea, bestela, nahiz eta helburua dorrea ez jaustea den, goiko dorretik norbait erortzen bada buruan edo lepoan min hartzeko arrisku handiagoa dago eta. Ariketak ere egiten ditugu, nola egon eta nola igo ikasteko.

Nork egiten ditu irakasle lanak?

Euskal Herrian bizi, ikasi edo lan egiten duten kataluniarrak edo valentziarrak dira gehienak; euskaldunen bat edo beste ere badabil gidari.

Pisua izaten duzu kontuan?

Pisu arinekoak izaten dira aiposenak dorrean gora egiteko, eta, normalean, gaztetxoak izaten dira eskalatzen dutenak. Beheko oinarriko jende asko behar izaten da, eta hor denendako tokia egoten da.



Eritz Campos Aretxaga oñatiarra. E.C.

Zenbat lagun behar dira, gutxienez, *casteller* baterako?

Tamainaren arabera aldatu egiten da kopurua, baina 30 bat behar dira, gutxienez, bai. Gaztelu handi bat egiteko, berriz, ehunetik gora.

Nor joan daiteke domekan plazan egingo duzuen saiora?

Edonor, herritar guztiak joan daitezke probatzera. Urgainen egin zuten *casteller* bat behin, eta eurekin ere jarri gara harremanetan. Saioa irekia da.

Bakeroak eta txankletak

Bilbon, Donostian eta Gasteizen –taldea sortzen ari dira– egiten dituzte entseguak astean zehar, eta domeketan izaten da entsegu orokorra. Bilbon egin ohi izan dituzte, baina, ekintza Euskal Herrian zehar hedatzeko nahiarekin, herrietara ere eramanez dituzte. Ermuan egin zuten behin, esaterako, eta Oñatin egingo dute domekan, plazan, 11:00etan.

Herritar guztiendako da deialdia, parte hartu gura duen edo ikuskizuna bertatik bertara ikusi gura duen edonor joan daiteke. *Casteller*-a egin gura dutenendako, baina, praktika bakeroak eramatea da aholkua –elastikoak aukeran–, "hain labingarriak ez direlako". Baita alkandora bat eta txankletak ere. Probatzen duenak gustukoa duela ikusten badu, aukera izango du Euskal Herriko Castellars Taldeak duen sare sozialean sartzeko, hitzorduak jakiteko.



Entsegu bateko argazkia. E.C.



NIRE USTEZ

ASIER UGARTE IMAZ

Eztabaida antzuak

Galdetu al dizute inoiz historiako zein garaitan bizi nahiko zenukeen? Edota zer egingo zenukeen milioi asko izango bazenitu? Ala zer eramango zenukeen irla bakarti batera? Askotariko ikuspegiak egongo dira galdera hauen bueltan eta lagun arteko solasaldietarako eztabaida sortzeko bezalakoak izan daitezke, hala ere, eta aitortu beharra daukat ez diedala horrelako galderei inoiz zentzu handirik hartu, azken finean, ezingo garelako benetan egoera horietako baten aurrean egon.

Denetariko eztabaidak izan dira horrelako galderaren bati buruz hitz egitean, eta beti egongo da iritzi eta argumentu ezberdinei kontra egiteko modu bat, oso zaila iruditzen baitzait koherentzia osoz jardutea gure ekintza eta pentsaeretan. Bada, zergatik jarraitzen dugu antzuak diren eztabaidetan burua nahasten? Susmoa dut pertsonok amets asko egiten ditugula ez dakugun hori imajinatzen, eta, kontrara, esku artean dakuguna behar bezala baloratzea eta maitatzea kostatzen zaigula.

GORA ETA BEHERA



Neurriak hartu beharra landare inbaditzaileen aurka



Landare inbaditzaileei dagokienez, panpa-belarra "herrian ikusten" dela eta, "zabaldu baino lehen neurriak hartzeko" eskatu gura dio herritar batek "dagokionari".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

AUTLAN
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Orreagatik iragan hurbilera antzezanaren une bat. HISTORIA OROITUZ ANTZERKI ELKARTEA

Iruñeko Erresumaren sorrera oroitzeko lana

'Orreagatik iragan hurbilera' antzezanak hartuko du Santa Ana antzokia zapatuan, 19:00etan. Historia Oroituz antzerki elkarteak interpretatutako lana da eta Iruñeko Erresumaren sorreraren mendeurrena aintzat hartuta sortu zuten

Julen Murua Mesonero OÑATI

"Iruñeko Erresuma sortu zeneko mendeurrenaren baitan", *Orreagatik iragan hurbilera* antzezlana taularatuko du Historia Oroituz antzerki elkarteak Oñatin. Zapatuan izango da Nabarralde elkarteak ekarritako antzerkia, 19:00etan hasita, Santa Ana antzokian; sarrerak bost eurotan egongo dira salgai antzokiko leihatilan –ikasleentzat doakoa izango da emanaldia–.

Seguratik datorren lana

"Segurako hogeitaz antzezle amateurrek antzeztutako lana" dela dio Lourdes Imazek, antzezlano zuzendariak, eta euren helburua da "historian gertatu diren pasarteak taula gainean interpretatzea eta bi garai haien artean lotura bat sortzea; garai desberdinetako euskal herritarrek jasan dituzten erasoak azaltzeko, gertatutakoa ez dezagun ahaztu". Hainbat urtez ibili dira antzerki munduan lanean, eta euren azkenengo obran *Orreagatik ira-*

gan hurbilera–, "Iruñeko Erresuma sortu zen garaian gertatutakoa azaltzea" da helburua. Imazek aurreratu duenez, antzerkia "bi garai ezberdinetan dago kokatuta: alde batetik, Baskoiek Orreagan Karlomagnoaren tropak –frankoak– gailendu eta Eneko Aritza Baskoien lehen errege izendatu zuten garaietan –VIII. eta IX. mendeetan, gutxi gorabehera–; eta bestetik, XX. mendearen bigarren erdialdeari egiten dio erreferentzia, frankismo garaia. Azken garai horri erreferentzia egiteko, zenbait esketx antzeztuko dira, garaiko irakaskuntza, erlijioaren indarra, jendearekiko errepresioa eta garai hartako beste hainbat egoera azaltzeko".

12, 14 ETA 20 URTEKO NESKA-MUTILEK ANTZEZTUTAKO LANA DA 'ORREAGATIK IRAGAN HURBILERA'

Garaiari egokituta

"Bereziki garai hartako egoera islatzeko egokitu den musika eta koreografia" erabiltzen dutela dio antzezlano zuzendariak. Era horretara, "antzezlari indar handiagoga emateaz gain, gaztetxoeren interesa ere piztea" lortu nahi dutela aitortu du; izan ere, "*Orreagatik iragan hurbilera* antzezlanean oholtza gainera igotzen direnak 12, 14 eta 20 urteko neska-mutilak izaten dira, eta erakartzen dute publiko gaztea ere". Gainera, "antzezleek hika hitz egiten dute" lanean, "hitanoa erabiliz euskara sustatzea" ere badelako, Imazek hitzetan, Historia Oroituz elkartearen helburua.

Oñatiarrei gonbita

Euskal Herriko hainbat tokitan antzeztu dute lana dagoeneko, eta asteburuan Oñatin egiteko "irrikari" daudela dio Imazek. "Herritarrak antzezlana ikusteko gonbita" egiteko ere aprobeztatu du laneko zuzendariak.

'Kenopsia' lanaren birak Verduri Hall-en izango du geldialdia

Domekan 12:30ean izango da kontzertua; diskoa kaleratu zutenetik bigarrenaz arituko da boskotea Oñatin

J.M.M. OÑATI

Ia urtebete igaro da Mila Modu taldeak bere hirugarren lana kaleratu zutenetik: *Kenopsia*. Oñatiko Eltziaiko topagunean egin zuten diskoaren aurkezpen kontzertua, eta harrezkero ez dute kontzerturik egin Oñatin, asteburura arte. Izan ere, domekan, 12:30ean, Verduri Hall-eko oholtza gainera igoko da boskote oñatiarra, *Kenopsia* diskoaren aurkezpen biraren harira. Sarrerak 8 eurotan daude salgai dagoeneko Oñatiko Udalaren webgunean (*oñati.eus*).

Zuzenekoan berritasunak

Kenopsia diskoaren aurkezpen kontzertuan egon ez zirenek bigarrenaz izango dute boskote oñatiarra herriko taula gainean ikusteko aukera, Mila Modurenzat "oso berezia" den toki batean, Xabi Yanezek aitortu duenez; izan ere, bertan jo zuten euren

estreinako kontzertua. Orduetik, baina, gauzak aldatu egin dira, laukote izatetik boskotea izatera igaro baitira, Miren Fernandez taldera batuta. "Teklatuarekin eta sintetizadoreekin lan borobilagoa lortu dugula uste dut. Ez disko berriaren bakarrik; aurreko abestietan eta zuzenekoetan ere nabari da; beste kolore bat, beste indar bat, dute abestiek. Uste dut badela gure inguruan hainbeste ikusten ez den zerbait, eta oso pozik gaude emaitzarekin", dio Yanizek.

Lanean jarraitzen dute

Mila Modu "lokaleko taldea" ere badela dio taldeko abeslariak, eta Fernandez taldera batu denetik "azkenengo hilabeteetako lana" izan da ikusten ez den hori egitea. Aurrerantzean joko dituzte kontzertu gehiago, eta "albiste berriren bat" ere izango dutela aurreratu du Yanizek.



Mila Modu taldeko boskotea. MILA MODU

Burrunda Faktoriaren hirugarren denboraldia, hasteko prest

Apirilean egin zuen Burrunda Faktoriak bigarren denboraldiko azken kontzertua, eta, atsedenerako tarte bat hartu ostean, hirugarren denboraldiari hasiera emateko prest daude dagoeneko. Kuartz eta Bloñ taldeak izango dira Antixena gaztetxe oholtzara igotzen aurrenak, gaur, 22:00etan, eta euren ostean, abendu bukaerara arteko egitaraua

antolatuko dute kultur elkarte kideek.

Aurreko denboraldietan bezala, kontzertuetako sarrerak erosteko bi modu egongo dira: alde batetik, kontzertuan bertan sarrerak Antixenean erosteko aukera egongo da –langileentzat 8 eurotan eta langabeentzat 3 eurotan–; bestetik, kontzertuetako bonua erosteko aukera egongo da, kontzertu guztietarako sarrera ziurtatuta izateko –langileentzat 25 eurotan eta langabeentzat 10 eurotan–.

KORDA ROTA KTARSIA SOTOALDE MALKO

Bergarako
Seminarixoa
Urriak 25
21:30

Chill out gunea
20:00etatik aurrera
San Martin plazan
DJ JOE PIEMAN

Sarrera arrunta **5 €**
Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**
Goiena txartela erakutsita **0 €**

Azaroak 15

ETEN
LOW COST DELUXE
REBEL NOISE
K-PO

Azaroak 29

DEL VAL
HENKO
TXERRIKUMEAK
KARENA

Abenduak 13

BANANA SHAKE
ONDARE
721-GOGOR GABILTZA
MAIDER MIMI



Begarako Udala



GIPUZKOA
Kultura



SEIN
Luzapena, Sareaketa, Eraketa
Kulturaren Erakundeak

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



"Trailak asko lagundu dit urte gogor hau kudeatzen"

MALEN OSA ANSA SALOMON TALDEKO KORRIKALARIA
MENDI LASTERKETAK Asteburuan Suitzan egindako lasterketarekin, Oñatikoa hirugarren geratu da Golden Trail World Series zirkuituan



Malen Osa Ansa, aste barruan, Oñatiko Zumeltzegi dorrean. XABIER URTZELAI ATXA

Xabier Urtzelai Atxa OÑATI

Lau minutuko aurrerapenarekin iritsi da Malen Osa (Oñati, 2002) hitzordura, dortsal barik dagoenean ere erlojuko orratzei aurrera egiten utziko ez balie bezala, asteburuan Suitzan jokatu duten GTWSko finalean egin duen moduan (2.20.05). Neke fisikoa daukala aitortu du, baina pozik dago egindakoarekin. Are gehiago, denboraldia amaitu berri dela jakitun, gorputzak izango duen beherakada aurreikusita dauka dagoeneko, hitzarmen bat sinatuta izango balute bezala. "Bi aste barru beste lasterketa bat izango banu, hobeto egongo nintzateke, tentsioa mantentzeak hori dakar eta. Baina gorputzak badaki denboraldia amaitu dudala eta bizpahiru asteko atsedena da

torrela". Izan ere, esfortzu fisiko handiko asteak izan dira hauek, eta emozionalki hilabete gogorrrak. Infusio batekin ekin dio berriketaldiari, Aloñako tontorra atzean duela.

Hirugarren egin duzu munduan izan handiena duen zirkuituan: Golden Trail Series; barneratu duzu?

Egia esan, nahiko sentsazio arraroak ditut, denboraldi xelebrea izan delako. Bereziki, Golden Trail Series zirkuituan geldialdi luzea izan dut, Zegama-Aizkorri [maiatzak 26] lehia-tu nuenetik punturik batu barik nengoelako; joan den asteko finalera arte zirkuituko lasterketa gehiago egin barik nengoen, eta denbora luzea izan da. Berez, abuztuko Poloniako lasterketarako [Tatra Sky Marathon] oso ondo prestatu nintzen, eta egu-

raldi txarragatik bertan behera utzi zutenean pena handia hartu nuen. Esango nuke hirugarren postu hau espero gabe etorri zaidala, baina pentsatu nahi dut diziplinaren eta konstantziaren ondorioa izan dela. Izan ere, lasterketetako emaitzak ez dira ikusgarriak izan, baina batu ditudan puntuek eraman naute podium horretara, eta pozik nago. Duela bi urte esan izan balidate Goldenetan hirugarren izango nintzela... ez nukeen sinistuko.

Presio handia zenuen azken lasterketa honetan? Izan ere, hainbat kontrario zuzen zenituen puntu gutxiko aldearekin.

Banuen presioa, bai. Azken batean, lasterketa estrategikoa egitera joan nintzen, nire mar txan eta nire estilora; hau da,

atzetik aurrera eginez. Eta, zorionez, lasterketaren bigarren zatian kontrario horiek gaingitu ahal izan nituen. Egia da bederatzigarren postu bat ez dela horrenbeste baloratzen,

"DIZIPLINAREN ETA KONSTANTZIAREN ONDORIOA IZAN DA HIRUGARREN POSTU HAU"

"FINALEKO EMAITZA EZ ZEN IKUSGARRIA IZAN, BAINA MAILA IZUGARRI DABIL IGOZTEN"

baina oso pozgarria da ikustea lasterkarion maila zelan dabilen igotzen. Gaur egun benetan izan behar duzu egun ona aurrealde horretan ibiltzeko. Hala, iaz laugarren izan nintzen sailkapen orokorrean, aurten koska bat igo dut, eta hori gutxi egin dutela esango nuke; pozik egoteko modukoa da, bai.

Hirugarrenaren eta zortzigarrenaren artean 69 puntuko aldea baino ez da egon.

Azken batean, denboraldi batean gorabehera asko egoten dira. Komunikabideetan emaitzak baloratzen dira, baina sailkapen orokor horretan beste korrikalari asko falta dira. Eta hor egote hutsak erakusten du denboraldian zehar ze konstantzia izan duzun, zelan egin duzun lan... Askok baloratzen dut aurreten minik hartu ez izana, prozesuarekin gozatu izana, hila-beteak aurrera joan diren neurrian hobetzen joan naizela ikustea... Horrek eman dit aukera lasterketetan aurrealdean ibiltzeko. Egon dira korrikalariak finalean oso lan ona egin dutenak baina denboraldi hasieran pattal ibili zirenak, eta alderantziz, oso indartsu hasi zirenak baina gero min hartu dutenak. Hilabete askotan gorputzak ondo erantzun dit, eta horregatik egin dut hirugarren. Oihartzun handia izan du finalean zelan helmugaratu zinen, *Beti zurekin ama zioen elastikoa eskuetan zeneukala; momentu hunkigarria izan zen [abuztuan zendu zen Gurutze Ansa, Malenen ama, 57 urterekin].*

Espero nuena baino oihartzun handiagoa izan du, egia esan. Garbi neukan zerbait berezia egin nahi nuela. Oso-oso urte gogorra izan da eta ama galtzea espero gabeko zerbait izan da.



Realaren eta Bartzelonaren arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Bartzelona norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeratutako beste lagun batek:

Reale Arena futbol zelaiko premium gunetik.
 Partidua azaroaren 10ean izango da, 21:00etan.

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 4.

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Egin Goienakide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena"
 kide

Okm:
 batzen gaituen distantzia

Ama egunero daukat gogoan, baina harekin detailea izan nahi nuen, eta, gainera, etxekoak ere bertan zeuden... Momentu hunkigarria izan zen, bai; nik uste dut bertan zeudenak ere konturatu zirela momentu berezia bizitzen ari ginela. Kirol emaitzatik haratago, nazioartean ere oihartzuna izan du kontuak eta... tira, polita izan da.

Diozu urte gogorra izan dela; fisikotik asko izango zuen, baina emozionalki ere hori guztia ondo ku-deatzea...

Trail munduan buru-belarri ibiltzeak gauza onak izan ditu, batetik, baina baita txarrak ere, bestetik. Hau da, halako inpaktua sortzen duen gertaera baten aurrean, traila ihesbide handia izan da niretako, handiena. Besteak beste, inguru horretan beti eroso sentitzen naizelako. Azken hilabete gogor hauetan oso garrantzitsua izan da motibazioari eusten lagundu didan zerbait izatea, aurrera egitera bultzatu nauena. Beste alde batetik, egia da trailak sentipen batzuk estali ere egin dizkidala, eta gero, beste momentu batzuetan tsunamia etorri izan zait. Bai, hilabete hauetan zoriontsu izan naiz, baina oso momentu zailak ere izan ditut. Hala ere, harro nago zelan kudeatu dudan hau guztia, eta kirolak asko lagundu dit horretan.

Goldenetako zirkuituak aurten zortzi lasterketa izan ditu, munduko hainbat lekutan; zer behar da zirkuitu hori irabazteko?

Gauzak oso ondo egin behar dira, eta asko du, baita ere, estrategiatik. Inor ez da joaten lasterketa guztietara, lasterketa guztiak ezin dira-eta ondo prestatu, tartean lesioak egoten direlako edota sasoi puntuan gorabehera handiak izaten direlako. Horregatik, korrikalari bakoitzak dituen ezaugarrien arabera gehien egokitzen zaizkion lasterketak aukeratzen ditu, kontrario zuzenak nora doazen ikusi... Zirkuitua egitea erabaki nuenean ikusten nuen ze maila egon behar zen, eta benetan, ez nuen neure burua podiumean ikusten. Baina gero erregularra izan naiz, lehen esan moduan, konstantea, eta horrek eraman nau hirugarren postura.

Hau da, inork ez du zirkuitua osorik egiten?

Ez, ez. Gehiago esango dizut: ez dut uste ona denik zirkuitua osorik egitea, desgastea sekula-

koa izango litzatekeelako. Eta, horrekin batera, bestelako lasterketa batzuetan ere egon nahi izaten dugu, edo gure markendako garrantzitsuak izaten dira. Helburua zirkuitu batean izatea ondo egoten da, baina bestelako lasterketak egitea ere ondo etortzen da: emaitza onak badira, motibatuta mantentzen zaituzte, lasterketa handietara hobeto iristen laguntzen dute... Gustatzen zait bestelako lasterketetara joatea.

Esaterako, aurten irabazi duzun Aiako lasterketara?

Hori da. Esango dizut sorpresa handia hartu nuela Aiako lasterketan, errendimenduari begira urteko momentu onenetakoa bertan izan nuelako, eta, lesio batetik nentorrenez, horrela hasteak txute handia eman zidan. Egia da lasterketa horiek ez dutela besteek duten oihartzunik, eta oharkabean pasatzen dira halakoak, baina asko gustatzen zaizkit. Presio gabe joaten zara, bestelako giroa egoten da... Nazioarteko lasterketan, berriz, bestelako kontua izaten da. Aspeteteko bidaiak batean izaten dugun demanda mediatikoa sekulakoa izaten da: elkarrizketak, grabazioak... Eta, neurri batera arte, halakoetan ere gurtura ibiltzen naiz, baina bai, halako bidaiak oso nekagarriak izaten dira. Askotan, etxean korrika egitea plazera izaten da. **Baina herri mailako lasterketak entrenamendu modura hartzen dituzuela esatea ere asko esatea da, ala?**

Bai; izan ere, dortsala janzen badut ni ez naiz entrenatzera joaten, ni lehiatzera joaten naiz, izan Oñatin edo Txinan [Barre]. **Aurten ze momentu nabarmenduko zenuke?**

Nik uste dut aurten egin dudan lehenengo Zegama-Aizkorri be-

"AMA EGUNERO DUT GOGOAN, ETA AZKEN LASTERKETAN DETAILEA IZAN GURU NUEN HAREKIN"

"HILABETE HAUETAN KIROLA OSO GARRANTZITSUA IZAN DA; AURRERA EGITERA BULTZATU NAU"



Malen Osa, asteburuan, Ascona-Locarnoko helmugan. XABI AGIRRE

tirako geratuko dela hor, une berezien artean. Asko gozatu nuelako, nire lehenengo maratonia izateko errendimendu ona izan nuelako, etxekoekin asko gozatu nuelako eta bigarren postuak dena borobildu zuelako. Baina esango nuke, emaitzetatik harago, aurtengo denboraldiak lagundu didala neure burua hobeto ezagutzen. Goi-errendimenduko kirolari batendako oinarrizkoak diren gauza asko finkatu ditut, eta etorkizun batean oso beharrezkoak izango ditut. Kontu honi buelta asko eman dizkiot, eta esango nuke oinarri oso sendoa eraiki dudala, ikaskuntza urtea izan dela. Ikusten ez diren gauzak dira, baina atsedean hartzen ikasi dut, gimnasioko indar ariketei garrantzia eman diet, ordekan korrika azkarrago egiten saiatu naiz, lasterketan zehar nutrizioa hobeto zaintzen ikasi dut... Eta badira kontuan hartu beharreko beste detaile batzuk, *friki* samarrak direnek bakarrik menperatzen dituztenak baina errendimenduan oso lagungarri direnak. Hain zuzen, halako detaile txikiak geroago eta gehiago zaindu behar dira, maila igotzen dabil eta.

Zelan daramazu kontrarioen aurrean zeure burua ez gutxieteko egiten diharduzun lanketa?

Esango nuke aurten gorabehera dezente izan ditudala, eta, bere neurrian, baina gorabehe-

ra horiek ere interesgarriak dira. Egia da urte hasieran konfiantza handiagoarekin ibili nintzela eta denboraldi amaiera honetara zalantza gehiagorekin iritsi naizela. Eta, seguruenik, pasatu den guztiak ere ez du lagundu. Lehen aipatu dut inoiz baino hobeto lan egin arren lehiaketa askotan ez dudala hori islatu, eta, kanpotik ikusita urte oso ona egin dudala badirudi ere, nik garbi daukat askoz gehiago eman dezakedala. Azken final honetara, esaterako, konfiantza gutxirekin iritsi naiz, baina tira, urtea bera izan da diferentea eta psikologoarekin lan oso ona egiten nabil; hura ere nire taldearen parte da, eta izango da. Azken batean, goi-errendimenduko kirolariak oso zorrotzak izaten gara geu-

"KANPOTIK BADIRUDI URTE ONA EGIN DUDALA, BAINA BADAKIT GEHIAGO EMAN DEZAKEDALA"

"IKASKUNTZA URTEA IZAN DA; USTE DUT ETORKIZUNERAKO OINARRI SENDOA JARRI DUDALA"

re buruarekin, eta erlatibizatzen jakin behar da; entrenamendu txar bat egin izanak daukan garrantzia daukala, ez handiagoa. Hala ere, hain zuzen, existentsia maila horrek eramaten gaitu elitean lehiatzera; frustrazio horietatik ere hobekuntzak etortzen dira. Oreka bilatu behar da.

Neguan ze asmo duzun aurreratzerik bai?

Bada, nik ere ez daukat oso garbi [Barre]. Hiru aste barru, Alpeetarako bidea hartuko dut; korrika egiteko zapatilak mendiko eskiekin aldatuko ditut, eta epe motzean dudan helburua Espainiako selekzioarekin Munduko Kopan parte hartzeko txartela lortzea da. Azaroaren 23an daukat lasterketa bertikal bat, eta hor lan ona egiten badut abenduaren 14an Frantzia izango naiz. Iaz, Espainiako txapelkun izan nintzen bertikallean, eta badut txartela lortzeko esperantza. Eta hortik aurrera, joango gara ikusten. Martxoko lehen astean, berriz, Munduko Mendiko Eskiko Txapelketa jokatuko dute, eta hor ere egon nahiko nuke.

Datorren urterako asmoen gainean galdetzeko goiz samar izango da oraindik...

Tira, Goldenak bai izango ditut helburu moduan, zalantza barik, baina oraindik ez dut erabaki ze lasterketatan izango naizen. Eta Canfrancen irailean jokatuko duten Munduko Txapelketan (WMTRC) ere parte hartu nahiko nuke, baina horretarako sailkatu egin behar naiz. Helburu anbiziotsua da, 45 kilometroko lasterketa delako, sei ordu inguruko proba.

Distanzia horien gainean berbetan, eta amaitzeko Zegaman aurten egin duzun lana eginda, urteroko hitzordu bilakatuko da?

Zegama-Aizkorri prestatzen hasi nintzen momentuan neure buruari agindu nion ez zela urtero egingo nuen lasterketa bilakatuko. Ez da-eta bideragarria. Hor aurrean egon nahi baduzu aurretik lan asko eskatzen duen lasterketa bat da, eta ondoren denbora luzez hartu behar da atsedean. Aurten desgaste handia eragin zidan; gogoan dut zenbat kosta zitzaidan Zegamatik errekupeatzea. Denboraldia baldintzatzen duen lasterketa horietakoa da Zegama; horrenbestez, ikusiko dugu egutegira egokitzen den.



Bergarako Sotoalde laukotea. SOTOALDE



Oñatiko Malko taldea. MALKO



Arrasateko Korda Rota taldea. KORDA ROTA



Bergarako Ktarsia taldea. KTARSIA

Seminarixoko agertokiko oihala gora gaur hasiko den Danbakarendako

Lau talde lehiatuko dira Bergarako Seminarixoa areto barruan, 21:30ean hasita; eta kanpoan, 20:00etan hasita, chill out gunean, Sanprubusa eta zuzeneko musika

Aitziber Aranburuzabala Juldain BERGARA

Uztailean iragarri zen seigarren Danbaka Musika Lehiaketaren atzerako kontaketa bukatu da; gaur, egubakoitza, abiatuko dute Goienak eta Bergarako Udalak elkarlanean, Gipuzkoako Foru

Aldundiaren babesarekin, antolatutako eskualdeko musikarientzako lehiaketa. "Ohorea da, eta pozik egoteko arrazoi bat, Danbaka bigarren bezala Bergaran egitea", azaldu zuen Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Maitte Usabiagak eguaztenean egin-

dako prentsaurrekoan. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Kultura Sustapeneko zuzendari Isaac Palenciak berretsi egin zuen ekimenaren garrantzia: "Sekulako ekimena da tokian tokiko kultura sustatzeko. Gipuzkoako Foru Aldun-

diak argi dauka Danbakan egon behar duela eta Danbaka lagundu eta babestu behar duela".

Orain dela bi urte egindako lehiaketaren formatu bera izango du; hau da, lau kanporaketa izango dira: gaur, azaroaren 15ean eta 29an eta abenduaren 13an, eta 2025eko urtarrilaren 17an jokatu da finala. "Ez da, baina, musika lehiaketa soila, musikariei euren lana plazaratzeko aukera paregabea eta musikazaleentzako topagune ederra baizik", esan zuen Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

Kontzertuko, lau lehiakide

Danbakak ikur duen denetarikoen estiloen eta erritmoen nahasketak izango dira emanaldi guztietan. 2019an abiatutako Arrasateko Korda Rota izango da agertoki gainera igotzen lehenengoa. Gogotsu daude jotzen duten kolore

askotariko rock doinuak eskaintzeko. "Oso pozik gaude Danbakan parte hartzeagatik; esperientzia berri bat bizitzeko gogotsu. Gozatzeri goaz, eta, datorrena datorrela, ongiatorria izango da", azaldu dute Korda Rotako taldekideek.

2020an sortutako Bergarako Ktarsia taldeak hartuko die lekua. Kide batzuek badakite Danbakan parte hartzea zer den, orain dela bi urteko lehiaketan izan ziren eta. "Formatu akustikoan jo genuen orduan, baina kide eta instrumentu berriak sartu dira taldean eta gauza berriak eskainiko ditugu. Egingandakoarekin gustura geratzea eta denok ondo pasatzea da gure asmoa", diote Ktarsiako kideek.

Sotoalde eta Malko ere bai

Etxean jokatu du hirugarren taldeak ere: iaz sortutako Ber-



Jokin Bereziartua, Isaac Palencia eta Maite Usabiaga, eguaztenean Seminarixioan, seigarren Danbaka aurkezten. MIREIA LARRAÑAGA

garako Sotoaldeak, hain justu. "Musika urbanoa egiten dugu, askotariko estiloen nahasketarekin, eta ari gara gure estilo propioa sortzen. Guretzako ere sekulako aukera da Danbaka, ez bakarrik gure proiektuari ikusgarritasuna emango diolako, eskualdean dagoen uzta erakutsiko duelako ere bai", gaineratu dute Sotoaldekoek.

2021ean Oñatin sortutako Malko taldeak borobilduko du lehen Danbaka-gaua. "Rocka egiten dugu, baina, gure diskoak erakusten duen moduan, askotariko estilo nahasketekin. Kontzertu ona emateko gogoz goaz, eta, zergatik ez, irabaztera ere bai [Barre]; ahalik eta jende gehienak gure musikarekin gozatzeko asmoz goaz", diote Malko taldekoek.

Hiru sari izango dira

24 taldek eman dute aurtengo lehiaketan parte hartzeko izena eta horietatik askotariko hamasei musika proposamen izango dira lehian. "Amaia Arriaranek, Ainhoa Vitoriak, Sara Alonsok, Julen Narbaizak eta Iñigo Ugartek osatutako epaimahai ederrak aukeratu ditu hamabost musika-proposamen eta publikoaren boto gehien jaso dituen Arrasateko Ondare taldeak borobildu du zerrrenda", azaldu zuen Bereziartuak.

Aurreko aldietan moduan, hiru sari izango dira guztira: sari nagusia, hau da, disko baten grabaketa; publikoaren sariarekin bideoklip bat grabatzeko aukera izango du irabazleak; eta Danbaka-Ekinez sariarekin, berriz, datorren urteko Berga-

rako Ekinez musika jaialdian parte hartzeko aukera.

Sarrerak hainbat preziotan

Eguaztenean egindako agerraldian azaldu zutenek, guztiontzako daude atea zabalik: "Chill out gunerako sarrerarik ez da ordaindu behar izango eta areto barruan izango diren kontzertuetarako, berriz, prezio askotariko sarrerak daude: kontzertuetarako sarrerak 5 eurotan salduko dira Seminarixioan bertan kontzertu egunetan; Goienakideak doan sartu ahalko dira, Goienaren aplikazioa erakutsita, eta Goienakide ez izan arren

"OHOREA DA DANBAKA BERRIZ SEMINARIXIOAN EGITEA"

MAITE USABIAGA,
BERGARAKO UDALA

"SEKULAKO EKIMENA DA DANBAKA TOKIAN TOKIKO KULTURA SUSTATZEKO"

ISAAC PALENCIA,
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

"EZ DA MUSIKA LEHIAKETA SOIL BAT, HORI BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO DA"

JOKIN BEREZIARTUA,
DANBAKAKO KOORDINATZAILEA

Goienaren aplikazioa deskargatuta dutenek 2 euro ordainduko dute txartela".

Kontzertu guztiak grabatuta

Goiena Komunikazio Taldeak jarraipen zabala egingo dio seigarren Danbakari euskarri guztietan; hau da, *Goiena.eus* atarian, Goiena telebistan, GOIENA aldizkarian eta *Puntua* aldizkarian, baita sare sozialen bidez ere; lehiaketak kontu propioa izango du Instagran eta X sare sozialetan. Horrez gainera, *Danbaka.eus* atarian lehiaketarekin lotutako askotariko informazio eguneratua izango da.

Kontzertu guztiak osorik grabatuko dira eta, azaroaren 7an hasita, eguenero, bi kontzertu izango dira Goiena telebistan ikusgai, 21:00etan eta 23:00etan, eta hurrengo egunean *Goiena.eus* atarian.

'Danbakast' bideopodcasts


Seminarixoa izango da lehiaketaren gune nagusi, baina baita Goiena telebistako platoa ere; izan ere, urriaren 10ean estreinatuko zen *Danbakast* bideopodcast abian da. "Hainbat tertuliakide eta gonbidatu izango ditugu mahaiaren bueltan, Danbakaz eta musika arloko askotariko kontuez lasai, luze eta zabal berba egiteko. Asteroko maiztasuna izango du, lehiaketa bukatu bitartean. Eguenetan 20:00etan eta 22:00etan eskainiko dugu kapitulu berri bat eta ondoren ikusgai izango da *Goiena.eus* atarian eta Spotify plataforman. Dagoeneko hiru saio daude ikusgai eta entzungai, eta ari gara gehiago sortzen".

Hurrengo kontzertuak

AZAROAK 15




ETEN



LOW COST DELUXE



K-PO



REBEL NOISE


AZAROAK 29




DEL VAL



HENKO




KARENA



TXERRIKUMEAK

ABENDUAK 13



MAIDER MIMI



BANANA SHAKE



721-GOGOR GABILTZA



ONDARE

DJ Joe Pieman chill out gunean

Aurreko aldian moduan, Seminarixoa aretoaren kanpoaldean chill out gunea egongo da giroa berotzeko. "Kontzertuen aurretik, 20:00etan hasita, eta kontzertuen arteko tarteetan, eskualdeko askotariko DJak izango dira protagonista, musika esparru horretan ere harrobia dugu-eta Debagoienean. Guztiok zaudete gonbidatuta. Ez da sarrera erosi beharrik izango. Gaurko gaua girotzeko, Aretxabaletako DJ Joe Pieman -Joseba Pieurruges-gonbidatu dugu", dio Bereziartuak.

Taberna zerbitzua ere izango da Danbakako gauetan. "Chill out gunean Sanprubusa izango dugu, beste behin, gurekin, jatekoak eta edatekoak izango dituzue bertan, eta, horrez gainera, jarleku bako Seminarixoa aretoan ere barra txiki bat jarriko da".

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Etxe bat errentan hartu nahiko genuke. Hiru neska aretxabaletar gara. Lan egonkorra dugu. 688 62 99 56 edo 616 76 04 61

Arrasate edo Oñati.

Etxea errentan hartuko genuke. 661 63 78 98 (Sebastian) edo 603 45 54 92 (Lina)

Arrasate edo Oñati.

Hiru logela dituen etxebizitza errentan hartuko nuke. 603 45 54 93

Bergara eta inguruak.

Etxean errentan hartzeko etxe bila nabil Bergara eta inguruetan. Bi ume dituen pertsona arduratsua naiz. 645 70 34 10

Bergara. Errentan hartzeko

pisu bila nabil. Bi pertsona gara. 645 72 92 87

Oñati.

Oñatiko bi gazte etxebizitza bat errentan hartzeko bilatzen ari gara. Langileak eta arduratsuak. Lanpostu egonkorra dugu. 603 34 39 05

Oñati edo Arrasate.

Etxea errentan hartuko genuke. Bi seme-alaba dituen bikotea gara. Lan egonkorra dugu. Telefonoa: 665 99 67 42

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Garajea errentan hartu nahi dut Arrasateko erdigunean. Deitu 605 90 11 10 telefono zenbakira.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaleta-Eskoriatza baserria. Baserri batean, adineko emakumea zaindu eta etxeko lanak egingo dituen emakume baten bila gabiitza. Astelehenerdik larunbatera bitarteko 40 ordutako kontratua, goizez eta arratsaldean. Ibilgailua edo gidabaimena eta Soziosanitario titulua beharrezkoak dira. Baldintza onak. Telefonoa: 628 44 00 49 (15:00etatik aurrera deitu)

Arrasate. Adineko pertsona bati lagundu

eta konpainia egingo dion norbaiten bila nabil, baita garbiketala-lanak egin ditzan. Astelehenerdik larunbatera, goizez eta arratsaldean, orduka lan egingo duen norbait behar dugu. 669 11 28 94

Arrasate. Eguerdietan

umeei ikastolatik jaso

(Umezaintza-Arimazubi) eta jaten emateko pertsona baten bila gabiitza. Kotxea izatea edo ikastola horien inguruan bizitzea beharrezkoa da. Etxeko garbiketala egiten jakitea baloratuko da, zainzaz gain etxe garbitzaile bila ere gabiitzaileko. Telefonoa: 670 53 10 25

Bergara. Emakume bat behar da nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egingo, etxean bertan bizi izaten. 607 54 07 72

Ume txikia zaindu. Emakume euskalduna behar da ume txiki bat zainzteko. Ez da ordutegi finkoa eskaintzen, beharren arabera. 653 72 31 71

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 602 06 52 12

Arrasate. Emakume arduratsua hainbat lan egingo prest, pertsona nagusiak zaindu, garbiketala lanak egin. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Telefonoa: 641 55 72 92

Arrasate. Gizon arduratsua hainbat lan egingo prest. Pertsona nagusiak zaindu, garbiketala lanak egin. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Telefonoa: 674 60 38 29

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Emakumezkoa orduka lan egingo prest. Garbiketala lanetan, jatetxeetan, hoteletan, biltegietan edo sukaldari laguntzaile bezala lan egingo nuke. Telefonoa: 611 53 63 39

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Nagusiak zaintzen eta hauek pasiatzera atereaz lana egingo nuke, baita garbiketala lanetan ere. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo prest nago. Pertsona arduratsua naiz. 603 35 40 08

Arrasate eta inguruak. Sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. Telefonoa: 644 05 98 53

Arrasate. Larunbatetan garbiketala lanak egingo lan bila nabil. 7 urteko lan esperientzia dut. Telefonoa: 612 51 42 99

Arrasate. Neska gazte eta arduratsua, gauetan orduka, pertsonak zaintzako gertu. 672 78 04 30

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Telefonoa: 685 73 87 95

Arrasate. Pertsona nagusiak zainduko nituzte. Asteburuetan eta jaiegunetan lan egingo gertu. 658 92 43 73

Arrasate. Arratsaldetan, 16:00etatik aurrera, lana egingo nuke. Garbiketala lanetan, eta hauek pasiatzera atereaz. Pertsona arduratsua naiz. 682 31 97 37

Bergara eta Arrasate. Bergaran, neska goizetan garbiketala lanak egin eta pertsona nagusiak paseatzeko prest. Astelehenerdik ostiralera Arrasateko ospitalean gauak egiteko aukera dut. 642 37 01 92 (Lina Marcela)

Bergara. Pertsona nagusiak zaintzan edota garbiketala lanak egingo nuke. Orduka lan egingo gertu. Esperientzia eta lan-erreferentziak ditut. 666 07 42 98

Debagoiena. Asteburuetan eta jaiegunetan lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzan. Deitu 672 94 82 80 zenbakira.

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 43 08 54

Debagoiena. Asteburuetan zein asteburuetan orduka lan egingo nuke pertsona zaintzan edota garbiketala lanetan. Telefonoa: 612 56 12 39

Debagoiena. Astelehenerdik ostiralera arratsaldeetan edo gauetan eta aste bukaeretan edozein ordutegitan lan egingo nuke. Adinekoen zaintzan edo garbiketala-lanetan orduka lan egingo prest. Esperientzia dut. Telefonoa: 691 28 53 25

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxetik kanpo bizitzen lan egingo nuke. Soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Deitu 662 02 45 80 telefono zenbakira.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo

bestela lan egingo nuke. Sukaldari laguntzaile edo zaintzaile lanak egingo gertu. Esperientzia dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 613 33 09 34

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Pertsona nagusiak zaintzen lan egingo gertu. 611 75 39 92

Debagoiena. Garbiketala lanak egin edota pertsona nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Etxetik kanpo bizi izaten. Telefonoa: 642 39 90 66

Debagoiena. Garbiketala lanetan edo pertsona nagusiak zaintzan, pasiatzera laguntzen edota ospitalean konpainia egiten lan egingo nuke. Orduka lan egingo gertu. Soziosanitario titulua dut. Telefonoa: 643 50 58 27

Debagoiena. Neska gaztea orduka lan egingo prest. Asteburuetan eta asteburuetan lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzan. Telefonoa: 632 63 77 38

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketala lanak egingo nituzke. Bestelako lanak egingo prestatasuna. Soziosanitario eta garbi-

keta titulua dut. Deitu 643 47 39 37 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketala lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo prest. Telefonoa: 627 03 16 40

Debagoiena. Tabernetako eta etxetako garbitzaile gisa eta adinekoen paseatzera laguntzeko lan bila nabil. 642 26 61 50

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzeko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut, baita erizaintzako ikasketak nire herrialdean. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 643 50 56 62

Debagoiena. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketala lanak egingo prest dagoen neska gaztea. Orduka lan egingo nuke astegunetan zein asteburuetan. Telefonoa: 602 82 64 84

Debagoiena. Soziosanitario tituludun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 604 23 85 31

Oñati eta Arrasate. Pertsona nagusiak eta umeak

zaindu edota garbiketala lanak egingo prest. Deitu 677 42 20 97.

Debagoiena. Garbiketala lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 603 77 58 82

Debagoiena. Pertsonen zaintzan edota garbiketala lanetan aritzeko gertu. 15 urteko esperientzia dut. Soziosanitario titulua. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 07 40 39.

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Hustutako katu emea opari. Hustutako katu emea oparitzen da. 9 urte inguru ditu. 615 73 68 07 edo 606 65 66 61

8. DENETARIK

807. AURKITU

Eraztuna aurkitu dugu. Urkulu inguruko basoan urrezko ezkontza-eraztun bat aurkitu da. Barnean testua dauka idatzita. Deitu 656 90 82 93 telefono zenbakira.

808. BESTELAKOAK

Oñatitik Bergara ko-txea partekatzea. Oñatitik Bergara 14.35etan kotxean joaten den norbaiten bila nabil. Gastuak elkarbanatuko nituzke. 652 73 12 34

ZORION AGURRAK



ESKORIATZA Kimetz Karpio Azpitarte
Urriaren 30an, 13 urte. Gure mutikoari, zorion potolo bat eta egun ederra pasetako. Bere osaba Gorka, amama Resu, aitita Txomin eta lon txakurtxo.



OÑATI Ander Odriozola Larrañaga
Urriaren 28an, 8 urte. Zorionak familia danan partetik! Oso ondo pasau zure egunian!



BERGARA Oier Leturia Fernandez
Urriaren 28an, 2 urte. Zorionak, gure etxeko erraldoiari! Ilargiraino eta buelta maite zaittugu, Oier!



BERGARA Olga Igartua Azpiroz
Urriaren 26an, 12 urte. Zorionak, maizia! Egun polita pasa! Zu eta ni..... Maite zaitut! Amatxo.



ARRASATE Mikel eta Eneko Quintana Rodriguez
Mikelek 6 urte egingo ditu, urriaren 25ean eta Enekok 4 urte, urriaren 26an. Zorionak, Mikel! Zorionak, Eneko! Ondo pasau zure egunean. Patxo potolo bana danon partetik!



ARRASATE Aimar eta Hodei Souto Martin
Aimarek 4 urte egingo ditu, urriaren 24ean eta Hodeiek urtebete, urriaren 30ean. Zorionak, Aimar! Zorionak, Hodei! Muxu handi bat familiaren partetik.



ARRASATE Oxel Souto Lasa
Urriaren 24an, 12 urte. Zorionak, mutikote! Egun bikaina izan dezazula etxekoan artean! Muxu handi bat bihotza!



DEBAGOIENA Paula Zubia Murugarren
Urriaren 22an, 5 urte. 22an, 11 urte. Zorionak! Oso ondo pasa zure urtebetetze egunean. Zure familia guztiaren partetik, muxu ta belarri tirakada handi bat.



ARAMAIO Enai Bolinaga Altuna
Urriaren 22an, 5 urte. Zorionak, gure txapeladun! Jarraitxu holaxe, irrifar batekin, bizitza deskribitzen ta gozatzan. Patxo erraldoiek etxeuon partetik!



ANTZUOLA Nere Gonzalez Prieto
Urriaren 21an, 6 urte. Zorionak, Campanilla. Maite zaituztegu ilargiraino eta buelta! Muxu handi bat etxekoan partetik!



ARETXABALETA Lur Pagoaga Urra
Urriaren 18an, 3 urte. Zorionak, Lur! 3. eguzki bira emanda jadanik! Abentura berrietarako prest! Ilargiraino eta buelta maite zaittugu!



BERGARA Mari Tere Etxaniz
Urriaren 15an, 94 urte. Zorionak!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarriak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarrien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Korosti
Inmobiliaria

Bergara:
Belanbidea,
53m², 2 logela,
terraza eta
igogailua.
210.000€



Bergara: Goenkale,
100m², unifamiliarra,
3 solairukoa, 3 logela,
egongela tximinia.
300.000€

Bergara:
Zubiaurre,
80m², 2 logela, miradorea,
igogailua, trastelekua.
150.000€,
negoziagarria



Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio
gehiago:



OROIGARRIA

Mari Pili Isasisasmendi Arregi

Amaia lankidearen ama
2024ko urriaren 22an hil zen.



Bat egiten dugu familiaren saminarekin.



Pausoka
haur eskola

Pausokako familia.
Aretxabaletan, 2024ko urriaren 25ean.

OROIGARRIA



Leonor Zubia Azkargorta

2024ko urriaren 18an hil zen, 57 urte zituela.



*Eskerrik asko, Leo, emundako danatik eta elkarrekin bizittakuatik.
Beti izango zara gurekin.*

Odriozola familia.
Oñatin, 2024ko urriaren 25ean

ESKER ONA

Eusebia Martin Gomez

Angel Garcariaren alarguna
2024ko urriaren 23an hil zen, 91 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2024ko urriaren 25ean.

OROIGARRIA

Mari Pili Isasisasmendi Arregi

"Zumai"-ren alarguna
2024ko urriaren 22an hil da.



*Joan zaigu gure Mari Pili,
famiako guztion zaindari eta
mila errezetaren sukaldari.
Emakume apal eta gogorrari
amama, izeba, ahizpa eta ama maiteari,
eskerrik asko gure etxeko erreginari.
Maite zaitxugu, amama.*

Zure bilobak.
Aretxabaletan, 2024ko urriaren 25ean.

OROIGARRIA

Leonor Zubia Azkargorta

2024ko urriaren 18an hil zen, 57 urte zituela.



*Leo, batera bizi izandako momentu danak
gurekin izango dia betirako.*

Zure kuadrilla eta lagunak.
Oñatin, 2024ko urriaren 25ean.

ESKER ONA

Bittor Agirre Gonzalez de Mendibil

2024ko urriaren 15ean hil zen, 91 urte zituela.



*Aitxa, zenbat jende hurbildu zaigun doluminak eman
eta zurekin zuten harremanaren berri ematera.
Zuk ereindakoa jaso dugu.*

Eskerrik asko denoi, bihotzez.

Agirre Unzueta familia.
Aretxabaletan, 2024ko urriaren 25ean.

ESKELA

Rafael Ramos Rey

2024ko urriaren 24an hil zen, 67 urte zituela.



Haren emaztea: M. Jesus Izura; seme-alabak: Igor eta Nerea Molina, Laida eta Mikel Jauregi; bilobak: Izaro, Haizea, Suar; gurasoak: Maria eta Abdon (†); anai-arrebak: Abdon eta Isabel Mercado; ezkon gurasoak: Emilia Arizpeleta eta Pablo Izura (†); ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, urriak 25, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Familiak Arrasate Berria beilatokian hartuko zaituzte gaur, 11:00etatik 13:00etara bitartean.

Aldez aurretik mila esker.
Arrasaten, 2024ko urriaren 25ean.

MEZA



Tibur Zabaleta Cortaberria

Jesus Odriozolaren alarguna
2024ko urriaren 21ean hil zen, 85 urte zituela.



Lerro hauen bidez familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Ondra-meza zapatuan izango da,
urriaren 26an, 19:30ean,
Oñatiko Agustindarren elizan.

Elizkizunetara joango zaretueno eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2024ko urriaren 25ean.

Oroilore

Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Gure artean agurtutako guztiei
euren bidez aurrizten lagundu
diegu, orain arte bezala, eta guztiek
izango dute agur berezia Oroiloren.*


*Gure eskerrik beronenak gagan
izan dituzten konfiantzagarriak eta
maitagarriak.*

Mario, Iban eta Maribi

617 44 21 55
BERGARA • ANTZUOLA • Moyua OÑATI



BERRI-ZAKUA



Abel eta Maria Angeles
"Zorionak, guraso eta aitona-amonak! 53 urte ezkondu zinetenetik. Primeran pasako dugu eguna. Asko maite zaituztegu!"



74ko kintoak
Zapatuan izan zuten ospakizuna arrasatearrek. Poteoan ibili ziren, bazkaldu aurretik, Eskerriatzako Ad Libitum txarangak lagunduta.

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN

**MALEN OSARI
ELKARRIZKETA**

Munduko Golden Trail Series zirkuituan hirugarren geratu da, eta Xabi Urzelairekin berba egingo du korrikalari oñatiarrak.

'Harmailatik' Astelehena, 20:00 eta 22:00

**'BIXI IBILI' ARETXABALETAN**

Aretxabaletan egingo du hurrengo geldialdia Aitor Agirianok, herrien arteko tribal jokoarekin.

'Bixi ibili' Martitzena, 20:00 eta 22:00

**EUSKARAZKO KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA**

Libe Mimenza eta Ane Zuazubiskar gonbidatu ditu Goiatz Aranak, gai horrek hedabideetan zein leku duen aztertzeko.

'Berbagai' Eguaztena, 20:00 eta 22:00

**'DATUETATIK TIRAKA: ETXEBIZITZAK'**

Etxebizitzak hartuko dituzte hizpide: alokairua, salmenta, etxe berriak, bigarren eskukoak, eraberrituak...

'Datuetatik Tiraka Saretzen' Eguena, 21:00 eta 23:00

**PODCASTAK, DANBAKAREN HARIRA**

Seigarren musika lehiaketarekin batera, solasaldiak egingo ditu Jokin Bereziartuak, eta musikaren erpin ezberdinak landu.

'Danbakast' Eguena, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 25**BERGARA Ehungintzaren gaineke erakusketa**

Joxe Mari Rubioren eta Felipe Uriarteren tresneriaren bidez ezagutzeko.

Aroztegi aretoan, 12:00etan.

BERGARA Bingo musikatua

Erretiratuendako.

San Joxepe elkarteon, 17:00etan.

ELGETA Ipuinen ordua

Saio berezia, adinka.

Liburutegian.

BERGARA Igel, toka eta bola txapelketak

Erretiratuendako.

San Joxepen, 18:00etan.

ARETXABALETA Ixotu taldearen ikasturteko aurkezpena

Atxabaltako Gazte Mugimenduaren baitan dagoen euskara taldeak.

Udaletxe zaharrean, 18:00etan.

ARRASATE AGAKOren ikasturte aurkezpena

Bereziki, herriko gazteei zuzendua.

Gaztetxean, 18:30ean.

BERGARA Elikaeneara bisita

Herritarak gonbidatu dituzte.

Oxirondon, 18:30ean.

ARRASATE Dantzaldia

Portaloi elkartearen eskutik.

Kulturolan, 18:30ean.

ARRASATE Zine foruma

Nuevo orden mundial gaia izango dute berbagai.

Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA 'Bergarako besarkada eta beste pake saioak lehen karlistaldian' hitzaldia

Mikel Alberdik egingo du berba, Lanbroa kultur elkarteak gonbidatuta.

Irizar jauregian, 19:00etan.

ARRASATE Lirika Gaztea

Musika, kantu eta lirika arloetan nabarmendu diren gazteen kontzertu-errezitaldia.

Juan Arzamendi Musika Etxean, 20:00etan.

BERGARA Danbakaren lehen kontzertua

Oholtzan izango dira Korda Rota (Arrasate), Ktarsia (Bergara), Sotoalde (Bergara) eta Malko (Oñati).

Seminarixoan, 21:30ean.

OÑATI Kuartz eta Bloñ taldeak

Burrunda Faktoriaren eskutik. Sarrerak: zortzi euro arrunta eta hiru euro murriztua.

Gaztetxean, 22:00etan.

ZAPATUA 26**ESKORITAZA Kaleko musika topaketa**

10:00etan, Ad Libitum txaranga; 12:30ean, Aguraingo musika banda; eta 18:30ean, Zumai txaranga.

Fernando Eskoriatza plazan.

ARAMAIO Erretiratuaren Eguna

10:30ean, herriko trikitilarien kalejira; 12:00etan, meza, nagusien abesbatzekin; 13:00etan, dantza taldearen emanaldia; eta 14:30ean, bazkaria

Aramaion.

ESKORITAZA Orientazio jolasa

Familiendako, Aste Berdearen baitan.

Ibarraundi museoan, 10:30ean.

ARRASATE Bailarako Txistulari Eguna

Leintz bailarako txistularien jaia ospatuko dute, hamabosgarrenez. Kalejira egingo dute 11:00etan eta kontzertua 13:00etan.

Herriko Plazan.

ARETXABALETA GuGeu

Atxabalta taldearen batzarra

Herritar guztiendako irekia.

Udaletxe zaharrean, 12:30ean.

ARRASATE Bertso-pilota jaialdia

Etxaniz-Erasun eta Mikel Goñi-Balardi pilotariak eta Amets Arzallus Antia eta Ane Zuazubiskar Iñarra bertsolariak. Debalde.

Uarkapen, 18:00etan.

ARRASATE Beldur etxea

Gaztetxoendako.

Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Hona bostekoa' komiki erakusketa

Gaur eta bihar ikusgai Udalbiltzaren Geuretik Sortuak bekako komikiak. Kotetoren Txillardegia Bergaran, Mattinen Handantza, Eñaut Aiarzaguenaren Gure basoak, Aritz Ibarraren Aldaxka pozoituak eta Unai Gaztelumendiren Harresia.

Olaran etxean, 18:30ean.

ANTZUOLA 'Hansel y Gretel' antzezlan

12 urtetik gorakoendako. Sarrerak, hamar euro.

Torresoroan, 18:30ean.

OÑATI 'Orreagatik iragan hurbilera' antzezlan

Nabarralde elkarteak ekarritako herri antzerkia, Historia Oroituz Elkartearen eskutik. Sarrerak: bost euro –ikasleak debalde–.

Santa Anan, 19:00etan.

ARETXABALETA Smooth Trip taldea

Besteak beste, The Police, Ken Zazpi eta Radiohead taldeen bertsioak.

Arkupen, 20:00etan.

BERGARA Txiri Fest

Etxepe, Kaparrak, Sotoalde eta Estutu taldeak. Sarrerak, zortzi euro.

Kartzela zaharrean, 21:30ean.

ARRASATE Urban Festa

Musikari urbanoen topaketa. Ostean, DJ festa. Sarrerak, bost euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 27**OÑATI Familientzako txangoa Aitzulora**

Izena emateko: 943-78 28 94 edo arantzazu@gipuzkoanatura.eus. Arrikruzteko apartakalekuan, 10:00etan.

ELGETA Bisita gidatua lubakietara, gazteleraz

Izena: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.eus.

Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.



ORTZAI ANTZERKI TALDEA

ANTZUOLA 'Hansel y Gretel' antzezlan

Grimm anaien izen bereko ipuinean oinarritutako antzezlan taularatuko du Ortzai Antzerki Taldeak. Pantomima formatura egokitu du Iker Ortiz de Zaratek. Sarrerak, hamar euro.
Bihar, zapata, Torresoroan, 19:30ean.

OÑATI Arte lantegia

6 eta 12 urte arteko umeak dituzten familiendako. Izena: 688 61 38 40 edo adiskideak@arantzazu.org.
Gandiaga Topagunean, 10:30ean.

OÑATI 'Casteller' tailerra

Euskal Herriko Casteller Taldearen eskutik.
Foruen plazan, 11:00etan.

OÑATI Mila Modu taldea

Oñatiko taldearen emanaldia. Sarrerak, zortzi euro.
Gaztelekua, 12:30ean.

BERGARA Kantu jira

Jardunen eskutik.
San Martin plazan, 13:00etan.

BERGARA Erretiratuen bazkaria

San Joxepeko kideendako. Ostean, musika eta dantzaldia.
San Joxepen, 14:15ean.

ARRASATE Beldur etxea

Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE 'Postdatarik gabeko gutunak' antzezlan

Nerea Ariznabarreta eta Kepa Errasti aktoreekin. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokian, 19:30ean.

ASTELEHENA 28

ARRASATE Aurretiazko borondateen gaineko hitzaldia
Voluntades anticipadas y autodeterminación hitzaldia egingo du Marije Goikotxeak, Goienagusik antolatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea

Oñatin, Bergaran, Antzuolan eta Arrasaten.
Herri horietan, 12:00etan.

MARTITZENA 29**ARRASATE 'Garen guztia bidelagutzen' solasaldia**

Amaia Gozategik egingo du berba, Amaidolua elkarteak gonbidatuta.
Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE 'Haurdunaldi subrogatuen analisi feministak eta kuirrak' hitzaldia

June Fernandezek eta Elixabete Imazek egingo dute berba.
Kulturaten, 18:30ean.

OÑATI Literatura solasaldia

Peste y cólera liburuaren gainekoa, Monica Leivarekin.
Liburutegian, 18:30ean.

EGUAZTENA 30

OÑATI Araotz ezagutzeko irteera
Pake Lekuko erretiratuendako. Araozko elizan elkartuko dira.
Araotzen, 10:00etan.

OÑATI Gipuzkoako kartografiari buruzko hitzaldia

Jabier Aspuru ingeniariak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Santa Anan, 10:00etan.

BERGARA Eguaztenak Oxirondon

Herriko baserriarren garaiko produktuak erosteko aukera, eta sukaldaritza zuzenean, Elikaenean.
Azokan, 17:30ean.

BERGARA 'Elikadura menopausian: goseak buztana labor', hitzaldia

Jabekuntza Eskolaren baitan.
Irizar jauregian, 18:00etan.

ELGETA Eskolako jangelaren proiektua: batzarra

Proiektuaren nondik norakoak azalduko dituzte.
Herri Eskolan, 18:30ean.

BERGARA 'Descansa en paz' pelikula

Jatorrizko bertsoian eta azpтитuluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 31**BERGARA Gau Beltza**

Xanduli manduli abestu eta gozokiak banatuko dizkiete neska-mutikoei.
San Martin plazan, 17:00etan.

ARRASATE Arimen Biltzarra, Biteritik hasita

Ilargitxorekin kalejiran joango dira, Doke antzerki eskolak kale antzerkia eskaintzen duen bitartean.
Biteri plazan, 18:00etan.

ESKORIATZA Gaba Baltza

Musika, dantzak, gaztaina erreak, zezensuzkoa, Gorosarri dantza taldearen emanaldia...
Fernando Eskoriatza plazan, 18:00etan.

ANTZUOLA Gau Beltza

18:00etan, *Altxorren bila*; 19:00etan, hilerritik jaitsiera; eta 19:10ean, ekitaldia: txalaparta, abesbatza, kondairen kontaketa...
Herriko Plazan.

OÑATI 'El cielo rojo' filma

Sarrerak, bost euro.
Zinema-aretoan, 19:30ean.

ESKORIATZA Zero taldea

Punk-rock doinuak.
Inkernu tabernan, 22:00etan.

ARRASATE Eneritz Furyak

Esperimentatzeari mugak jartzen ez dizkion bakarlarri sortzailea Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAI ANTZOKIA**

Soy Nevenka
Zapatua eta astelehena: 19:30.
Zack y Wowo
Zapatua: 17:00.

BERGARA**SEMINARIXOA**

La infiltrada
Domeka eta astelehena: 17:00.
Zentral parkeko heroiak
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Joker. Folie a deux
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.
Transformers one
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**FLORIDA**

Buffalo Kids
Domeka: 12:00.
La virgen roja
Egubakoitza eta zapatua: 21:30.
Domeka: 12:00, 18:30, 20:30.
Astelehena, martitza eta eguna: 17:00.

El club de los milagros
Egubakoitza eta zapatua: 18:30, 22:30.
Domeka: 18:35.
Astelehena eta eguaztena: 19:15.
Martitza: 16:30.

La infiltrada
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 12:00, 16:00, 18:30, 21:00.
Astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:30.
Martitza: 17:00, 20:30.

La sustancia
Egubakoitza eta zapatua: 21:45.
Domeka: 20:30.
Astelehena eta eguaztena: 19:45.
Martitza: 19:15.

Los destellos

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka: 16:15, 20:45.
Astelehena: 19:45.
Martitza: 20:45.
Eguaztena: 19:15.

Robot salvaje

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 19:40.
Domeka: 12:00, 16:15, 18:20.
Astelehena: 17:30.
Martitza: 20:45.
Eguaztena: 19:15.

La habitacion de al lado

Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:45, 22:00.
Domeka: 12:00, 16:15, 18:30, 20:40.
Astelehena eta eguaztena: 17:15, 19:30.
Martitza: 16:45, 18:30.

Amal

Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 22:00.
Domeka: 12:00, 16:00, 18:15.
Astelehena eta eguaztena: 16:45, 20:15.
Martitza: 16:15, 18:25.

El llanto

Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15, 21:30.
Domeka: 12:00, 18:00, 20:30.
Astelehena eta eguaztena: 17:00, 19:15.
Martitza: 16:45, 20:30.

La gran escapada

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30.
Astelehena eta eguaztena: 17:15.
Martitza: 18:30, 20:45.

Marco

Martitza: 19:00.

Muerte en Amara

Egubakoitza eta zapatua: 20:30.
Domeka: 12:00, 16:30.
Astelehena eta eguaztena: 18:45.
Martitza: 19:00.

Rita

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 22:00.
Domeka: 16:15, 18:30.
Astelehena eta eguaztena: 16:45, 20:15.
Martitza: 16:15, 18:25.

KRITIKA**El llanto**

★★★★★

Zuz.: Pedro Martin-Calero. **Herr.:** Espainia (2024). **Aktoreak:** Ester Exposito, Mathilde Ollivier, Malena Villa. **Iraupena:** 107 minutu.

Osatu gabeko proposamena**ANTONIO ZABALA**

El llanto filma fantasiazko eta beldurrezko zineman koka dezakegu. Filma Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialean aurkeztu zen, eta Pedro Martin-Calero zuzendari onenaren saria irabazi zuen. Eta, egia esateko, filma zuzenduta dagoen moduan dago proposamenaren balio handiena. Irudiek errotia eta indarra dute eta bizitza arruntan bat-batean azalpen arrazionalik ez duten gertaerak agertzeak ikusleak istorioan murgiltzea lortzen du. Alde horretatik, *El llanto* film erakargarria da.

Oso modu bortitzean hasten da filma, eszena harrigarri batekin. Hortik aurrera istorioa beste neska batengana hurbiltzen da. Ondo sartzen gaitu haren bizitzan.

Informatikak eta Internetek garrantzi handia dute komunikatzeko moduan. Istorio honetan ere biraketa harrigarri bat izango da. Ostean, beste neska bat agertuko da filmean. Hasieran badirudi nesken istorioek ez dutela loturarik, baina sumatzen dugu azkenean istorio eta pertsonaia guztiak elkartuko direla, filmari zentzua emateko.

El llanto filmak ikuslea nahastu nahi du. Ez dezala jakin trama nondik nora joango den. Hori sentitzea gozagarria izaten da, baina halako filmak eskatzen dute bukaera ona izatea, ikusitako guztia ixteko eta sendotasun dramatiko izateko; kasu honetan, ez da horrela gertatzen, eta proposamena osatu gabe geratzen da.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Patxi, zeruan alkate

Lurrean hala izan zinen, Elgetako alkatea, "Patxi alkate". Zure eskutik ikasi nuen Elgeta maitatzen eta ezagutzen. Ez nuen maisu hobea aurkituko! Ni Errenteriako alaba eta Bergarak besarkatutako debagoiendarra, elgetarrek zinegotzi aukeratu ninduten.

Zenbat gauza ikasi ote nituen zuregandik, Patxi. Alderdi barruan ere, EAJko kide baitzinen, zure izana eta zure esanak *autoritas* handikoak ziren eta gaur ezagutzen dugun Elgetaren antolakuntza, zerbitzuak, ekonomia sortzaileak, kultur eraikinak, zuk sortutakoak dira. Zer izango litzateke gaur egun Elgeta Pagatzako industrialderik gabe, Antzokirik gabe, Ferixa Nagusirik gabe, urbanizazio nagusienak eta errepide hobekuntzarik gabe? Patxi, guztiak izan dira zuk sortutakoak edo zuk bultzatutakoak.

Alkate handi batek bezala jokatu izan duzu, erakunde guztietako ateak joz, zure herri txikia, bihotzean handi, bizitzeko ezinbestekoa zenuen Elgetaren alde. Baina zure handitasunean umila zinen, maitagarria.

Lagunok asko maite zaitugu, Patxi, alderdikoek eta baita alderdikoak ez ziren elgetarrek ere. Seguru aurkituko duzula zer antolatua zeruan. Egun handira arte, Patxi.

BUKATZEKO

Mendiko federatu beteranoenari aitortza

Euskal Mendizale Federazioaren datu-basearen arabera, Jazinto Lizarralde Aiestaran oñatiarra da urte gehien dituen gizonezko federatua. Hala, aitortza jaso zuen Gasteizko Europa Biltzar Jauregian egindako galan, Zigor Egia presidentearen eskutik

Mireia Bikuña Madrid OÑATI

Duranako Iturribero Mendi Taldeak antolatuta, Euskal Mendizale Federazioaren Urteroko Gala egin zuten urriaren 18an Gasteizko Europa Biltzar Jauregian. Hainbat sari eta aitortza banatu zituzten. Besteak beste, urrezko intsigniak banatu zizkieten guztienez 40 urtez jarraian mendi federatu izan diren guztiak. Multzo horretan sartzen da, duda barik, Jazinto Lizarralde Aiestaran oñatiarra. Bada, aparteko beste aitortza bat jaso zuen oñatiarrak: *Andres Espinosa Euskal Mendizale 2024 saria*. Euskal Mendizale Federazioaren datu-basearen arabera, Lizarralde da urte gehien dituen gizonezko federatua: 93 urte bete berri ditu. Zigor Egia presidentearen eskutik jaso zuen oroigarria, hunkituta. "Urduri nengo, baina hunkituta ere bai. Urte asko dira mendiaz gozatzen, eta norbera gogoan izatea ohore handia da", esan dio GOIENARI Lizarralde Oñatin, etxean.

Martin Zabaletarekin

Ekitaldia bera "oso berezia" izan zela dio, aspaldi ikusi bako lagunekin elkartzeko aukera izan zuelako. Besteak beste, Martin



Zigor Egia eta Jazinto Lizarralde. EMF

Zabaleta ikusi zuen, 40 urteren ondoren. "Martin Zabaletarekin Aizkorri inguruetan egin nuen topo, Everestera joan aurreko astean. Nik ez nuen hura ezagutzen, baina haren laguna bai. Ostean, Kilimanjaron ere elkar-

tu ginen. Gasteizen berehala ezagutu genuen elkar. Gainera, Alberto Iñurrategi nire alboan egon zen ekitaldian, eta Edurne Pasaban ere ikusi nuen. Oso pozgarria eta hunkigarria izan zen ekitaldia".

Aizkorri kuttunena

Jazinto Lizarralde harakina izan da lanbidez. Harategiaren ordu-tegiak ez zion astegunetan mendiaz gozatzen uzten. Beraz, asteburuak aprobetxatzen zituen. Aizkorri izan da haren mendi kuttuna –hainbat aldiz igo izan du egun berean–, eta 1987an Hiru Handiak probaren lehen edizioan parte hartu zuen. Erretiroa hartu ostean, 2000tik 2011ra, Santiago bidea egin zuen lau alditan, lau ibilbide ezberdinetatik. Guztira, 91 egun oinez eta 3.929,5 kilometro.

Egun, lasaiago dabil. Duela gutxira arte, Arantzazura oinez igo zen domekero. Igo eta jaitsi. Baina, 91 urterekin ikutsa izan ostean, jaitsi bakarrik egiten da. "Motorrak ez dit gehiagorako ematen. Autobusean igozten naiz eta oinez jaitsi. Beti txaleko islatzailearekin, autoek ondo ikus nazaten", esan du.

Gogoan dauka abendu bukarran federatu txartela berri behar duela. Aloña Mendiren bitartez egiten du tramitazioa: "Ez dakit zenbat urte daramadan federatua izaten, baina badakit hemen nagoen bitartean federatua izaten jarraituko dudala. Mendiak bizitza ematen dit, eta ezin diot uko egin horri".

Beste saritu batzuk

Euskal Mendizale Federazioaren galan Debagoieneko beste ordezkari batzuk ere saritu zituzten. Urrezko intsigniak jaso zituzten Josean Mulasek eta Alvaro Arregik. Lehenak, eskaladaren munduan erreferente gisa egindako lanarengatik; eta bigarrenak, federazioko presidente kargutik egindako lanarengatik.

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

BERBAGAI

EGUAZTENERO, 20:00 ETA 22:00
GOIATZ ARANA, GERTUKO
PROTAGONISTEKIN BERBETAN



DESCARGA
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.

